

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2012-01-13
EGUBAKOITZA
492. ZENBAKIA
12. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

"Gureak Taldean
388 langile
daude
Debagoiengan"



Iñaki Alkorta |
Gureak taldeko presidentea | 8

'20 urtez
kantuan'
Goikobaluren
Iana,
kalean | 31



1512-2012 Nafarroa Bizirik taldeak
jaia egingo du Atxorrotzen bihar | 2

1512

Zuhurtzia eskatu du Oñatiko
Udalak lapurreten harira | 20



Hondakin gutxiago nola sortu eta
beira birziklatzen ikasteko bideak | 4



Manex Azularen salto bat, Formigalgo estazioan; jarraian egindako hainbat erretraturen muntaketa da. | JOSU AZULA

Manex Azulak, jauzi olinpiarra

Gazteen neguko Joko Olinpiarretan
lehiatuko da domekan, Austrian | 29

'Noiz arte
justiziarik
gabe?' jaialdia
gaur Arrasaten

Memoria historikoari
errespetua egingo
dute aldarri | 33

Pelikulak hiru
dimentsiotan
Arrasaten | 33



Debagoieneko
kirol txartela
eska daiteke
dagoeneko

Erabili ahal izango da
Eskoriatza, Arrasate,
Bergara eta Oñatin | 5

SINADURAK

Tenporak eta zientzia | 6

MANU ARREGI

6 | Nortasuna garrantzitsua da

MONIKA BELASTEGI

Sarea berriro osatzen | 25

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ

40 | Mugituko ditugu

MIKEL IRIZAR

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 |
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 |
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 |
TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKEKAK 36 |
EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38

goienakluba[™]
Abantailaz betetako kluba!

URTARRILEKO SARIAK



Hartu parte Goiena Klubeko bazkide izanda!



dks'11
debagoieneko
IV. kirolsariak

Debagoieneko
nork merezi du
herritarren
saria?

Debagoieneko kirolaren
sari banaketa ekitaldia

Urtarrilak 20 ostirala
Elgetako Espaloian | 19:00

egin
zure
proposamena!

www.kirolsariak.com

Aurten inoiz baino gehiago, euskaldun guztiak nafar

- ▶ 1512-2012 Nafarroa Bizirik ekimena lanean da
- ▶ Debagoieneko taldeak zapatuan egingo du ekitaldia
- ▶ Nafarroako Erresuma gogora ekarri nahi dute

LEIRE KORTABARRIA | ESKORIATZA

XNafarroaz, euskaldunon estatuaren bukaeraz, konkistaz... sari entzungo dugu aurten. Izan ere, Gaztelako eta Aragoiko koroek Nafarroa konkistatu zuten 500 urteurrena da; urteurren gozoa izan ez arren, hari alde onik ateratzeko gogoarekin batu dira hainbat herritar 1512-2012 Nafarroa Bizirik mugimenduan. Debagoienean ere taldea sortu da; joan den astelehenean aurkeztu zuten euren burua.

Nafarroako konkista XII. mendean Nafarroako Erresuma banatzeko Gaztelako Erresumaren eta Aragoiko Koroaren arteko itunekin hasi zen. 1200. urterako, zati bat hartuta zuen Fernando Katolikoak. Prozesua XVI. mendeko inbasioarekin bukatu zen. Nafarroa Beherea, inbasioa sailhestu zuena, erresuma independentea izan zen XVII. mendera arte. Orduan, Nafarroako Erresumako erregeak Frantziako koroa ere lortu eta bategitea inposatu zuen. XVIII. mendeko Frantziako Iraultza eta gero desagertu zen azken aztarna hori. Nafarroa Garaiak, Espainiako koroarekin bat zenak, XIX. mendean utzi zion erresuma izateari.

Euskal estatuaren hasiera 854 urtean koka daiteke, Iruñeko Erresuma sortu zenean. Iruñeko Erresumako burua baskoien printzea zen.

Burujabetza galdu izana

Orain, 1512-2012 Nafarroa Bizirik mugimenduak argi du bere helburua: "Oroimen historikoa berreskuratu behar dugula diogunean, herri zapaldu honek historikoki pairatu behar izan duen inbisibilizazio prozesua gainditu beharra dagoela esan nahi dugu. Lehenik eta behin, benetan gertatutakoa argitu, konkista bat izan zela argi utzi, bor-

Euskal estatua, bertsotan

Julio Soto nafarrak Oñatiko Gabonetako bertso jaialdian botatakoa; historia lezio bat.

*Zortziehun eta hogeita lau
lñigo Aritz jauna
Iruñeko Erresumako
lehen errege zalduna
hamaikagarren mende haseran
Antso gizon ezaguna
sortu zuena, gaur ezagun den
Nafarroako Erresuma
Arabako ta Gipuzkoako
ta Bizkaiko lur urruna...
ta Lapurdiko, ta Zuberoko
mugak elkartzen zituna
datuak datu, nahiz eta ezetz
jaso sarri erantzuna
bistakoa da: existitu zen
Euskal Herri euskalduna.
Julio Soto*

tizki herri honek subiranotasuna galdu zuela baieztatu. Eta horrekin batera, garaituen memoria berreskuratzeko, hau da, anonimatuatik atera izen abizen horiek guztiak, inbaditzailearen aurrean ez makurtzeagatik esperientzia latzak pairatu behar izan zituztenak": horrela idatzi du Patxi Abasolo Lopez mugimenduko kideak V. Mendeurrena: herri oso bat galtzaile artikuluan.

Mugimenduak bere agiria argitaratu du bere webgunean (www.1512-2012.com). Besteak beste, honakoa dio: "Gure mendeetako ibilaldia erakutsi nahi dugu eta kendu ziguten hura berreskuratzeko eskubidea dugula garbi adierazi; burujabetza galdu izana gure herriarentzat galbidea izan da".

Eskoriatzan hasi

Helburu horrekin bat egin dute zenbait debagoienarrek ere. Gurean, Eskoriatza izango da herri garrantzitsu bat. Hala, urteko lehenengo ekintzak Atxorrotzen izango dira, bihar, zapatua. Ekintza nagusia 12:00etan monolitoa inauguratzea izango da. Gero, 18:00etan, Ibarraundin mahai-ingurua izango da; Atxorrotzeko indusketen arduradun Iñaki Sagredok haien inguruan berba egingo du, eta Joseba Asironek, Nafarroaren konkistaz.

Atxorrotzen aztarnek orduan Nafarroa zenaren eta Gipuzkoaren historiak hitz egiten digute. Hori Debagoienarako berreskuratu gura dute. Atxorrotz Kultura Elkarteko eta bailarako Nafarroa Bizirik mugimenduko Juan Luis Zubizarretak hauxe dio: "Atxorrotz Gipuzkoako gotorleku garrantzitsuenarikoa izan zen, eta gaztelarrek suntsitu zuten Gasteiz inguratu zutenean. Gipuzkoara sartu ziren eta 1200. urtean hartu zuten Gipuzkoa". Nafarroa Bizirik mugimenduak hauxe zabalduko du: "betidanik izan garela herri bat eta gure estatua genuela".

Debagoienean, hainbat lagun bazebiltzan Nafarroako Erresumaren historiaren inguruan lanean; esaterako, Atxorrotz Kultura Elkartea, gazteluaren aitzakiarekin; eta Arrasaten, Sustraiak Errotuz ekimena. Orain, 1512-2012 mugimendurekin bat egin dute eta mendeurrenoko lehenengo ekintzetako bat antolatuta dute: bihar, zapatua, Atxorrotzen monolitoa inauguratuko dute, 1512-2012 Nafarroa Bizirik ekimenak proposatuta eta Eskoriatzako Udalak onartuta: "Nafarroako Erresumako gaztelu guztietan plaka bana ipiniko dugu, gaztelua noizkoa den, han nortzuk egon ziren, zelan suntsitu zuten... hori guztia azaltzen".



1512-2012 Nafarroa Bizirik mugimenduko Debagoieneko kideek lantaldea aurkeztu zuten

ESANAK

"Herri honen inbisibilitatea gainditu behar dugu"

PATXI ABASOLO
ARTIKULUGILEA

"Euskaldunok gure lurrian arrotz, atzeritar gara"

JOSU JIMENEZ MAIA
IDAZLEA

ESANAK

"Donostiaren eranzketa armaz izan zela ezkutatu da"

IDOIA ARRIETA
HISTORIAN DOKTOREA

"Konkistaren ondorioz, azpiegiturak berritu ziren"

MIGUEL SANZ
NAFARROKO PRESIDENTEA

Hitzorduk, musika eta denda

INTERNETEN

Ekimenak webgunea ireki du www.1512-2012.com helbidean. Euskaraz, espainolez eta frantsesez dago. Besteak beste, ekimenaren manifestu osoa zintzilikatu dute han.

LEHENGOAK ETA DATOZENAK

Izan diren ekintzen erreposoa eta datozen hitzorduk, hemeroteka eta albisteak batzen ditu.

MULTIMEDIA

Atari multimedia ere bada. Urteurrenoko propio atera dute musika bilduma bat (argazkian) eta bertan entzun daitezke abestiak. *Konkistak, 500 urte* liburua ere on-line eska daiteke. Horrez gain, bideoak eta loturak ere badaude.



Diskoaren azala. | 1512-2012



joan den astelehenean, Ibarraundin. | TXOMIN MADINA

Moziua udal guztietan

Debagoienean, orain hilabete eta erdi inguru hasi ziren lanean. Lantaldean eskoriatzarrak ez direnak ere batzen dira: arrasatearrak, aretxabaletarrak eta gatzagarrak, batik bat. Zubizarretak dioskunez, "Bergaran eta Oñatin ere badabiltzala" badakite, eta haiekin ere bat egin gura dute. "Herri bakoitzeko taldeak bere ekintzak antolatuko ditu, baina denon artean koordinatuta egongo gara: adibidez, herri baten gai jakin baten inguruko hitzaldia izan behar bada, ondo herrian beste gai baten ingurukoa antola dezaten", azaltzen du Juan Luis Zubizarretak.

Biharko jaiegunaz aurrera, beste ekintza batzuk ere badituzte esku artean: "Hemendik eta udaberrira arte, beste konferentzia pare bat egin nahi ditugu: lurraldetasunari eta historiari buruzkoak eta, aurrerago, beste pare bat. Irteera batzuk ere egin-

go ditugu, azken gaztelu izan zen Amaiurrera, besteak beste".

Nazio ekitaldi garrantzitsu batera dei egin nahi dute. Ekainaren 24an izango da, eta "hori bai bultzatu nahi" duela Debagoieneko taldeak ere.

Beste ekintza aipagarri bat urtarrilean bertan egingo dutela esan du Atxorrotz Kultur Elkarteko ordezkariak: Debagoieneko udaletan moziua aurkeztuko dute, Nafar Erresumaren defentsan eroriak omentzeko eta 1512-2012 agiriarekin eta antolatuko diren ekimenekin bat egitea eskatzen.

Aurten, indusketa gehiago

Atxorrotzek emango du zeresan gehiago aurten. Izan ere, Juan Luis Zubizarretak eguaztenean Arrasate Irratian esan zuen moduan, "udal aurrekontuetan badago partida bat horretarako",

eta "seguru asko, udaberrian" hasiko dira aurtengo indusketak. "Dorrea non zegoen ziurtatzera bideratuta egongo dira aurtengo lanak", aurreratu zuen Zubizarretak irratian.

Ezbairik ez duena da oso gotorleku garrantzitsua izan zela Atxorrotz, eta hala erakutsi dute orain arte topatutako aztarnak. "Nafarroako Erresumaren komunikazio gaztelu bat zen. Defentsa gaztelu batetik bestera, elkar ikusiaz antolatzen zen, eta badakigu Goikobalukoarekin kontaktuan zegoela, Elosuko beste batekin ere bai... Horrez gain, Gasteiz ordurako nahiko hiri garrantzitsua zen eta haren gertuan zegoen. Administrazio aldetik ere, erreferentzialtasun handia izan zuen XII. mendera arte gutxienez, nafar erregeen tenentzia baten egoitza izan zelako", azaltzen dute Nafarroa Bizirik-eko debagoiendarrek.

XABIER ZUBIZARRETA
NAFARROA BIZIRIK
TALDEKO KIDEA

"Euskal Herriak daroan prozesu politikoa, hori bai dela inportantea"

Arrasate Irratian izan ziren Juan Luis Zubizarreta eta Xabier Zubizarreta. Bigarrenaren esanetan, "urteurren borobila baino garrantzitsua da Euskal Herriak eta Nafarroak bizirik dirautela".

Zergatik da inportantea 500. urteurren hau?

Erreferentzia moduan hartu da urteurren borobila delako; baina benetan inportantea Euskal Herriak eta Nafarroak bizirik jarraitzen dutela da, lehen eta hemendik aurrera inoiz baino biziago jarraituko dutela, Euskal Herriak daraman prozesu politikoari esker, eta hori bai dela garrantzitsua.

Zelako estatua zen?

Oso erresuma aitzindaria zen ikuspegi sozialetik eta ideologikotik. Kontrarreformari jarraituz, Erromarekin harreman nahiko txarrak zeuzkan. Txikia ere bazen eta, beraz, inguruko etsaien aurrean bere burua babesteko adina indar ez zuen izan.

Historia berreskuratu nahi duzue. Nola?

Gaur egun, Nabarralde eta Nafarroa Bizirik inguruan historiari asko baditza lanean. Oñatin biltzarra egin zen, eta ezusteko eder batzuk agindu dizkigute, bereziki Debagoieneko historiari buruzkoak.

"Euskaldunok ez dugu aukerarik izan gure historia idazteko", esan zenuen. Hau da aukera?

Espero dezagun gure historia ezagutzeko aukera izatea. Aurreko mendeetan, dokumentu asko desagertu egin ziren, eta besteak beste manipulatu edo ezkutatu izan dira. Baina itxaropena ez dugu galdu behar. Arkeologia ere hor dago, eta gero eta datu gehiago ematen ditu gaur egun.



Efemeridearen beste alde bat

Nafarroko Gobernuak bultzatuta, Nafarroa 1512-2012 batzordea sortu da, 1212ko Navas de Tolosako gerra eta 1512ko konkista gogoratzeko. Miguel Sanz Nafarroko presidentek dioenez, "aukera paregabea dugu azpimarratzeko zer-nolako garrantzia duen historiari Nafarroaren ondare komunean eta izaeran". Interneten, www.navarra.es webgunean emango dute aurtengo antolatuko dituzten ekintzen berri.

EGUN OSOKO JAIA

10:30 Eskoriatzako plazan batuko dira eta Atxorrotzera igoko dira.

12:00 Atxorrotzen, Nafar Erresumako oroitarria jarriko da. Aurkezpena, txistulariak, dantzariak, San Migel bertsolaria, Petti, Andoni eta Eñaut musikariak...

18:00 Mahai-ingurua Ibarraundi museon. Hizlariak: Iñaki Sagredo, Joseba Asiron...

22:30 Inkernu tabernan, Nafar Jaia: Joseba Irazoki eta Petti&Andoni sound system.



30
urteko
esperientzia

Ile apainketa ikastaroak

Urtarrilean %50eko deskontua matrikulan

Nazioarteko titulu ofiziala
Goi mailako diplomatura
Mundu mailan aitortutako titulua
Nazioarteko lan-poltsa



Herritarrentzako zerbitzuak

- ORRAZTU.....7€-tik aurrera
- MOZTU 4,50 €-tik aurrera
- TINDATU 12,50 €-tik aurrera
- METXAK 10 €-tik aurrera
- PERMANENTEA..... 14 €-tik aurrera
- GARBITU, ORRAZTU, MOZTU ETA TINDATU 23 €
- ILE-LUZATZEAK..... 120 € (BURU OSOA ETA ILE NATURALA)

Hondakin gutxiago sortzeko eta beira birziklatzeko argibideak herririk herri

Mankomunitateak erakusketa eta kanpaina antolatu ditu, eta asteon hasi dira

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateak hondakinen sorreraren prebentzioaren gaineko erakusketa ibiltaria eta beira birziklatzeko kanpaina hasiko ditu asteon, Ecovidiriok emandako laguntzarekin. Erakusketa Oñatin abiatuko da eta kanpaina, berriz, Bergaran. Dena den, bailarako herri guztietara iritsiko dira, biak ala biak.

Nola birziklatu beira?

Beirari dagokionez, orokorrean beirazko ontzien birziklapenaren datuak, gaikako bilketaren artean onenak izanda ere, oraindik asko dago egiteko, eta jasotzen den kantitatea eta materialaren kalitatea hobetzeak erakunde guztien erronka nagusia jarraitzen du izaten, Mankomunitateko ordezkarien esanetan.

Debagoienari dagokionez, berreskurapen datuak hobetzeko kaleko edukiontzi gehiago eta ostalaritzako edukiontzi bereziak jartzen joan dira urterik urte. Dena dela, beharrezkoa ikusten dute kontzientziazio kanpaina abian jartzea jasotzen den kopurua handitzeko eta, bide batez, nola birziklatu behar den azaltzeko.

Kanpaina bihar, zapatua, abiatuko da Bergaran. Irala kalean

jarriko duten karpan, beira birziklatzeko prozesua eta haren onurak azalduko dituzte.

Horrekin batera, edukiontzi berdeetan beirazko poteak, beirazko botilak eta beirazko flakoak bakarrik bota daitezkeela ere erakutsiko dute. Bestalde, portzelanak, zeramikak, tapak, tapoiak, txapak, bonbillak, fluoreszenteak, ispiluak, leihotako kristalak, edalontziak, kopak eta kristalezko platerak ez direla bota behar ere erakutsiko dute, gero jarraitu beharreko prozesuan arazo larriak sor ditzaketelako.

Karpa 11:00etatik 14:30era egongo da zabalik eta bi aditu egongo dira azalpenak emateko. Jolasak eta bestelako ekintzak ere egongo dira.

Hondakinen sorrera gutxitu

Hondakinen sorreraren prebentzioari buruzko erakusketa ibiltaria ere antolatu du Mankomunitateak. Zazpi ataletan banatzen da eta bakoitzean prebentzioaren eta berrerabilpenaren alderdi bat lantzen da. Zazpi bloke tematikoak, honako hauek dira: *Ur zirkuituak: iturriko ura, gal ezin dezakezun plazera; Diseinuzko tratamenduak: ekodiseinua; Kontrasteen eremua: soberan hemen, faltan han; Terapia miragarriak: hale hop, bihur zaitez konpost; Bepiztua izateko:*



Beiraren gaineko erakusketa Antzuolan duela bi urte. | GOIENA

BEIRA BIRZIKLATZEKO KARPAREN EGUTEGIA

EGUNA	HERRIA	LEKUA	ORDU TARTEA
Urtarrilak 14	Bergara	Domingo Irala kalea	11:30-14:30
Urtarrilak 20	Arrasate	Sebero Altube plaza	17:00-20:00
Urtarrila 21	Aretxabaleta	Durana kalea	11:30-14:00
Urtarrilak 27	Oñati	Foru plaza	17:00-20:00
Urtarrilak 28	Eskoriatza	Herriko Plaza	12:00-14:00
Otsailak 3	Antzuola	Zurrategi plaza	17:30-19:30
Otsailak 10	Elgeta	Mendizaleen plaza	16:30-18:30
Otsailak 17	Leintz Gatzaga	San Migel plaza	18:00-20:00

murriztu, konpondu, berrerabili, ...; Hondakinterapia: hobe ez zikitzea; eta Azken zirkuitua: pentsatu egin aurretik.

Apirila bitartean bailarako udalerrri guztietan egongo da ikusgai eta publiko ororentzat zabalik egoteaz gain, Mankomunitateak urtero bailarako eskolekin egiten duen zaborra eta kontsumo arduratsuen inguruko kanpainaren barruan sartzea erabaki du. Hori horrela, DBHko 2. mailako ikasleei zuzendutako bisita gidatuak antolatuko ditu. Guztira, 600 bat ikasle parte hartzea espero dute 26 bisita gidatutan. Horrez gain, beste 12 bisita gidatu ere eskainiko dituzte, publiko orokorrari zuzenduta.

Lehen herria, Oñati

Martitzenean abiatu zen erakusketa Oñatin eta ikusgai egongo da hilaren 22ra arte, kultura etxe-ko erakusketa aretoan, 18:00etatik 20:00etara. Handik Bergara joango da. Bisita bidatuei dagokienez, hilaren 16 eta 18an izango dira publiko orokorrari zuzendutakoak eta parte hartzeko, nahikoa izango da 19:00etan bertan egotearekin.

Erakusketaren hurrengo geltokia Bergara izango da, hilaren 24tik otsailaren 5era, osoko bilkuren aretoan.

MUk ate irekien 20 bat jardunaldi egingo ditu

Eskaintza akademikoa ezagutzera emateko asmoz egingo ditu, sei campusetan

M.B. | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak ate irekien 20 bat jardunaldi antolatu ditu, bere sei campusetan, urtarrietik ekainera bitartean. Jardunaldi bakoitzak bi ordu inguru iraungo du, eta, horietan, fakultate bakoitzak bere eskaintza akademikoa eta titulazioak aurkeztuko ditu.

Ate irekien jardunaldiak MU bertatik bertara ezagutu nahi duten etorkizuneko unibertsitateko irakasle eta bideratzaileei zuzenduta daude. Izan ere, jardunaldiotan, fakultate bakoitzak bere zentroetan eskaintutako titulazioak zehatz-mehatz ezagutarazi eta bisitariak izan ditzaketan zalantza argituko ditu. Unibertsitate aurreko orientazio-jardunaldiak osatzeko, MUk bere hezkuntza-eredua aur-

kezuko du Euskal Autonomia Erkidego osoko ehun ikastetxetan baino gehiagotan.

Bailarako campusei dagokionez, Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan jardunaldiak izango dira otsailaren 4an, 10:30ean; martxoaren 15ean, 17:30ean; maiatzaren 12an, 10:30ean; eta ekainaren 9an, 10:30ean. Oñatiko Enpresa Zientzien Fakultatean; otsailaren 18an, 11:00etan; martxoaren 24an, 11:00etan; eta apirilaren 21ean, 11:00etan. Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean; Otsailaren 2an, 18:00etan; martxoaren 1ean, 18:00etan; apirilaren 19an, 18:00etan; eta maiatzaren 26an, 11:00etan

Argibide gehiago jasotzeko: www.mondragon.edu/prest eta 902 11 04 36.

'Goiena' papera hedabide irakurriena da Debagoienez

'Goiena.net' bailarako Internet atariak %50 egin zuen gora iaz

M.B. | ARRASATE

Emaizta onak izan zituzten Goienako hedabideek iaz, CIES erakundeak euskal hedabideen audientziak neurtzeko 2011n egindako bigarren inkestaren arabera.

Egunkariei dagokienez, krisia bizi dute eta nabari dute irakurle kopuruari dagokionez. Nabarmen behera egin du azkenaldian irakurle eta erosle kopuruak. Ondorioz, egunkari bat baino gehiago itxi beharrean izan da.

Goienaren ereduak beste bat da. Doanekoa. Funtzio sozialekoa. Euskaraz argitaratua. Horrek ematen dio balio erantsia. Eta hedabideak kontsumitzeko ohiturak aldatu egin badira ere, eta horrek irakurle galera ekarri duen arren, *Goiena* aldizkariaren eragin ahalmena nabaria da gaur egun ere. Askogatik da hedabide irakurriena gure eskualdean. Hemen



Goienaren logoa. | GOIENA

CIESe emandako datuak: *Goiena*: 26.000 irakurle (Gipuzkoan 33.000 dira); *El Diario Vasco*: 16.000; *Gara*: 5.000; *Berria*: 3.000; *Noticias de Gipuzkoa*: 3.000; *Marca*: 1.000.

'Goiena.net'-ek nabarmen gora Gorakada ikusgarria izan du aurtengo *Goiena.net*-ek: %50,42ko hazkunde bisitari kopuruari dagokionez 2010ekiko eta %47,27koa

bisitatu diren orriek dagokienez. *Google Analytics*-etik ateratako datuak dira.

Aurtengo hainbat errekor hautsi ditu *Goiena.net*-ek. Maiatzaren 23a, hauteskunde biharamuna, izan zen bisitari eta orrialde bisitatu inoizko errekorra. 41.410 orrialde bisitatu ziren eta 7.425 bisitari edo erabiltzaile izan zituen *Goiena.net*-ek egun hartan.

Telebistak ere gora Gipuzkoan

Goiena telebistak ere gora egin du Gipuzkoan. Lurrean gora egin duten lau telebisten artean dago. TVE1, TVE2 eta Antena3 dira besteak. Gainerako guztiak behera egin dute. Lurreko Telebista Digitalak ekarri duen eskaintza ugarietasunak audientziaren zatiketa eragin du eta ohiko kate guztiak behera egin dute, Goienak eta aipatutakoek izan ezik.



Gaztetxoak Arrasateko Musakola kiroldegiko sarreran. | JOKIN BEREZIARTUA

Dagoeneko hasi dira Debagoieneko kirol txartela tramitatzen

Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Oñatiko instalazioetan sartu ahal izango da

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Abenduaren 27an, Debagoieneko Mankomunitatean izandako bileran, Debagoieneko kirol txartelari jarraipena ematea erabaki zuten udal ordezkariak.

Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Oñatiko udal kirol instalazioetan sartu ahal izango dira txartela ateratzen duten erabiltzaileak. Urte osorako izango da,

urtarriletik abendura, eta bi txartel mota egongo dira: Plusa deritzona –instalazio guztietarako, eremu lehorra zein ur eremua– eta Premium izenekoak –Plusaren zerbitzu bera eta bainuetxeak.

Ez da deskonturik egingo

Txartela bateratzeko bidean, adin tarte batzuk adostu dituzte: umea, 0 eta 2 urte; haurra, 3-17 urte; eta

heldua, 18tik gorakoa. Bestalde, ez diete deskonturik egingo ez ikasle, ez langabe ezta pentsiodunei ere. Horrekin batera, unitate familiarri dagokionez, 18 urtetik gorako seme-alabak ez dira familian sartuko.

2012ko prezioak

Aurtengo adostu dituzten prezioei dagokienez, Plusa txartelaren

PREZIOA	
PLUSA	PREMIUM
HAURRAK 3-17	
119,25 euro	–
HELDUAK (+18)	
202,70 euro	244,16 euro
FAMILIA	
370 euro	440 euro

kasuan hauek dira prezioak: 3 eta 17 urte artekoena, 119,25 euro; 18 urtetik gorakoena, 202,70 euro; eta familia txartela, 370 euro.

Premium motako txartelari dagokionez, 18 urtetik gorakoena 244,16 euro dira eta familia, 440 euro.

Dagoeneko hasi dira txartelak tramitatzen eta arrasatearrek, bergararrek, eskoriatzarrek eta oñatiarrek, nork bere herrian egin dezake. Antzuolarrek eta elgetarrek Bergaran atera behar dute eta Gatzagarrek, berriz, Eskoriatzan. Aretxabaletari dagokionez, kiroldegi berria martxan jarri aurretik erabakiko du Udalak Debagoieneko kirol txartelaren sartu ala ez.

2011ko Debagoieneko kirol txartelari dagokionez, urtarrilaren 15era arte erabili ahal izango direla aurreratu dute Mankomunitateak.

'Goiena gida 2012' laster banatuko da etxeetan

M.B. | ARRASATE

Debagoieneko komertzio, ostalari, lantegi eta profesionalen telefonoak batzen dituen gida komertzial berri eta eguneratua dagoeneko prest dago. *Goiena.net* atarian bertan dago eskuragai eta kontsultatzeko moduan; etxeetan banatuko dena, berriz, hilaren 17an hasiko dira banatzen, GOIENA paperekoaren harpidedunen artean. Horrekin batera, publizitatea egin duten negozioek ere jasoko dute.

Hiru edizio

Gidaren papererako hiru edizio kaleratuko dira: bata, Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Leintz Gatzagan eta Aramaion banatuko dena (10.500 ale); bestea, Bergaran, Antzuolan eta Elgetan banatuko dena (6.800 ale); eta hirugarrena, Oñatin banatuko dena (3.400 ale).

Banaketarekin edozein arazo edo zalantza izanez gero, deitu 943 25 05 05 telefono zenbakira (Marta Leturia) edo idatzi ondoko helbide honetara: harpidetza@goiena.com.

Zenbait alderdi ez daude ados Mankomunitateak onartutako aurrekontuekin

Hondakinen kudeaketa da arrazoi nagusietako bat

J.I./M.B. | ARRASATE

Asteleheneko *Goiena* paperean aurreratu genuen moduan, 2012-rako 14 milioi euroko aurrekontua onartu zuen Mankomunitateko Gobernu Juntak abenduan; inoizko handiena da: iazkoarekin alderatuta, %65 handiagoa.

2012koak ezohiko aurrekontuak dira, zabor bilketa kontratu berriaren itzalean garatutakoak eta inbertsioak dira iguera eragin dutenak. Horren harira, Mankomunitateak aurreratu zioten Asteleheneko *Goiena* paperari, atzeratuta zeuden hainbat inbertsio egingo direla 2012an. Bada, hainbat alderdik aurrekontuen eta Mankomunitatearen asmoen gaineko desadostasuna agertu dute.

Ingurumenak zatirik handiena

Ingurumen Sailak izango du aurrekontuaren zati handiena: %57, hain zuzen –%81 Epeleko lanak kontuan hartuta–. Epelen 2.800.000 euroko inbertsioa egingo da iragztearen lehen fasea eta garbigune industrialak egiteko; eta zabor bilketarako, besteak beste, ibilgailuendako garajea egingo dute

(1.330.000 euro) eta bost kamioi erosiko dituzte (720.000 euro).

EAJ ez dago ados igoyerekin

EAJ ez dago ados aurrekontuan halako gorakada eragin duten erabakiekin. Lourdes Idoiaga Oñatiko zinegotziak gogora ekarri du Mankomunitateko Gobernu Juntan Bildu koalizioak duela gehiengo ia erabatekoa –Aralarrek ordezkari bat du–, eta jeltzaleek ez dutela ordezkartzarik. Hala, diote faltan igarri dutela aurrekontuen gaineko informazioa. Bestalde, gorakadaren harira esan du: "Gauden egoeran halako iguera... Udalek finantzatu behar dute Mankomunitatea; hortaz, ikaragarria da, eta bat-batean ez onartzeko modukoa".

Idoiaga ez dago ados, adibidez, hondakinak batzeko kamioiak erosteko eta garajea egiteko bi milioi euroko inbertsioarekin: "Harrigarria da. Hori herriek finantzatu behar dute eta 2012an dena finantzatzea ezinezkoa da".

Leire Egaña Mankomunitateko Ingurumen Saileko buru eta Oñatiko zinegotziaren arabera,

aldiz, 10 urtean ez da inbertsiorik egin bide horretan. Eta egin beharreko gastuak dira, datozen urteetan ordaintzen joango direnak: "Ikusita oraingo kamioiak oso egoera kaskarrean daudela, bost kamioi berri erostea aurreikusten da. Hasiara baten pentsatu zen Epeleko fondoak erabiltzea kamioiak erosteko, baina Epelen obra batzuk egin beharra dago eta horregatik, fondo hori Epelen bertan erabiliko da. Hala, mailegu bat eskatu behar da kamioiak erosteko".

Idoiagaren beste kritika bat da, hain justu, Mankomunitatea finantzatzeko udalak diren heinean, Oñatiko Udalaren aurrekontuan, behintzat, ez dela islatzen Mankomunitatearen gorakada, Udalak bailarako erakundeari egin beharreko ekarpenetan.

Leire Egaña, berriz, dio hori ez dela horrela: "Mankomunitateko aurrekontuak onartu zirenean, Mankomunitateko kontuhartzaileak jakinarazi zien udaletako bakoitzak egin beharreko aportazioa. Oñatin, abenduan onartu

ziren aurrekontuak eta jasota dago Udal bakoitzak egin beharreko aportazioa".

Ezadostasunak kudeaketarekin

Hondakinen kudeaketaren kasuan, Mankomunitateak adierazi du atez atekoa jarri nahi duela martxan 2013an Bergaran, Oñatin eta Elgetan eta sistema berriaren ezarpena bideratuko du aurrekontuaren beste zati bat.

Horren harira, EAJko Lourdes Idoiak gogora ekarri du Oñatin gaur gaurkoz indarrean dagoen erabakia bosgarren edukiontzia aldekora dela: "Oñatiko osoko bilkuran beste erabaki bat hartuta dago apiriletik. Hori balio gabetu barik dago. Baina ematen duenez, hainbat inbertsio zuzen zuzenean horretara doaz eta hala ezin dugu onartu".

Elgetan atez atekoa ezartzeaz, Oxel Erostarbe alkateak adierazi du bera Mankomunitateko Gobernu Juntako kide dela eta oraindik ez dela horren gaineko erabakirik hartu. Eta gehitu du: "Uste dugu zabor kudeaketan alde ekologikoa eta ekonomikoak kontuan hartu behar direla eta hartu beharreko erabakietan herritarren parte hartzea ezinbestekoa dela. Gura dugu elgetarrekin batera erabakitzea nola batu zabor organikoak gure herrian".

PSE-EEren jarrera argia da atez ateko ereduaren kontra, eta horrek baldintzatzen du 2012ko aurrekontuaren gainean duten iritzia.

DATUA
14
MILIOI
Aurrekontua 14.076.522 euro izanda, 7.000.849 aportatuko dute udalek.

Jendaurrean berba egiteko ikastaroak Manu Marañonekin

Arrasaten izango dira, EMUNen egoitzan (Uriburu 27, behe). Lehen ikastaroa urtarrilaren 24an eta 31n eta otsailaren 7an, 14an, 23an eta 28an izango da. Bigarrena, urtarrilaren 25ean eta otsailaren 1ean, 8an, 15ean, 22an eta 29an. 18:30etik 21:45era izango dira eskolak, euskaraz, eta prezioa 175 euro da. Material-gida praktikoa ere emango dute. Informazioa gehiagorako eta izena emateko: 650 47 02 51, komunikartemanu@gmail.com edo www.komunikarte.org.

Milioi eurotik gora jasoko dute bailarako hiru haurreskolak

Hezkuntza Sailak 1.077.816 euroekin lagunduko die Aretxabaleta, Arrasate eta Eskoriatzako udalei, 0 eta 3 urte arteko haurreskolen titular izateagatik, Europa Presse emandako datuen arabera. Laguntza hori 2011-2012 ikasturterako izango da eta, guztira, EAEn 5,1 milioi euroko laguntzak emango ditu Hezkuntzak kontzeptu horretan. Arrasateko Udalak 571.524 euro jasoko ditu; Aretxabaletakoak, 300.579; eta Eskoriatzakoak, 205.713.

ZABALIK

MANU ARREGI
http://goiena.net/iritzia/



Tenporak eta zientzia

Urtaro berriarekin hor etorri ziren, ohi bezala, tenporetan oinarritutako urtarorako eguraldi aurreikuspenak. Gusura entzuten ditut neuk ere. Antzinatek datorren ohitura da eta ondo dago ohitura zaharrei jarraipena ematea. Baina, nola hartu behar ditugu? Hor dago koska. Bitxikeria bezala hartu behar dira, baina inoiz ere ez iragarpen serio bezala. Zergatik?

Ez litzateke harriztekoa izango tenporen jatorria paganoa izatea. Horrela da iturri batzuen arabera. Gaur erabiltzen diren datak, berriz, egutegi liturgikoan sartuta daude eta ez dago jakiterik jatorrizkoekin bat datozen.

Baina demagun zuzenak direla eta azter ditzagun, ginetik, tenporen datak. Udaberriko tenporak, adibidez, Garizumako bigarren asteko asteazken, ostiral eta larunbatean dira. Inauteriak bukatzen direnean hasten da Garizuma. Eta, dakigun bezala, Inauterien datak Ilargiaren fasearen arabera aldatzen dira urtetik urtera. Honen arabera, tenporen kontu hau Ilargian oinarritzen dela pentsatu ahal dugu. Baina neguko tenporetara jotzen badugu, haiek Santa Luzia egunaren ondorengo, hau da, abenduaren 13aren ondorengo lehenengo asteazkena, ostirala eta larunbata dira. Ez du, kasu honetan, inongo loturarik Ilargiarekin. Hau da, ez da irizpide finkorik ikusten.

Pello Zabala ikusi nuen Gabonetan Goiena telebistan tenporataz hitz egiten. Iragarpena egiteko prozedura aldatu egin duela esan zuen, beste inguru batzuetan egiten zen bezala, kontratuporei ere begiratu behar zaielako. Zer esan nahi du horrek? Aldaketa aurretik ez zuela iragarpenetan asmatzen? Asmatzen al du orain?

Askok miresten dut Pello. Inork bezala daki Naturak bidaltzen dituen seinaleak irakurtzen. Maisua da horretan. Eta lan etnografiko ona egiten ari da tenporen sistema errekupepatzen. Gure kulturaren zati garrantzitsua da. Funtzionatu ezin duen eguraldi iragarpen antzinako sistema.

"Inork bezala daki Naturak bidaltzen dituen seinaleak irakurtzen"

USTEAK USTE

MONIKA BELASTEGI | mbelastegi@goiena.com

Nortasuna garrantzitsua da

Jaurlaritzak lege egitasmo bat egin du transexualen eskubideak aitortzeko eta arreta integral egokia emateko. Gaur egun, sexu aldaketa prozesua hasten dutenetik nortasun agiria eskuratzen duten arte, bi urtetik gora pasatzen dira. Irudi fisikoa eta nortasun agiriko datuak bat ez etortzeak diskriminazioa eragiten du eta hori saihesteko behin-behineko agiriak eskuratzea proposatu du Jaurlaritzak. Bestalde, sexua aldatzeko ebakuntza eta tratamendua eskubide bihurtzea ere proposatu du. Urrats garrantzitsua da Jaurlaritzarena, aurreiritziz jantzitako gure gizarte honetan, bazterketa sakona jasotzen duen sektore horrek ere dagokion aitortza merezi du-eta.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Euskara, zentimetro kontua

Onintza Iureta Azkune
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Aldagela publikoetan nago, ama-alabei begira, hobeto esanda, aditzen.

Diskrezioz ari naiz, baina nire belarriak haien aldera makurtuta daude.

Amak alaba txikiari euskaraz egiten dio eta alabak amari ere bai.

Ze ondo, ze polita.

Halako batean, eszena bukolikoan, bigarren alaba agertu da.

Ama, alaba zaharragoari (zazpi bat urte izango ditu) gaztelaniaz hasi zaio.

Triskantza!

Belarriak alde batera utzi eta lotsarik gabe begiratu diot hirukoteari.

Ez dago zalantzarik, ama bera da hizketan eta seguru biak bere alabak direla, antz handia daukate-eta.

Nola liteke?

Alaba bati euskaraz eta besteari gaztelaniaz?

Esplikazioa behar du...

Eta derrepente aittitta etorri zait gogora, eskuan

metroa duela, bilobak sukaldeko paretan neurtzen.

Harro asko egiten zuen marka lapitzarekin, bilobak hazten ari zirela ikusita.

Aldagelako zurrumbilo (niretzat zurrumbiloa, hirukotea lasai ederrean ari da bi hizkuntzetan) linguistikoki aurkitu diot esplikazioa: amarentzat hizkuntzak zentimetro kontua dira, hainbeste zentimetrorara arte euskaraz, eta hortik aurrera gaztelaniaz.

Gogoa behar

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lert

Errealaren esperpentoak edo tragedia terriblerik edo bankari baten enegarren lapurretak etsipen beti bera eragiten dute: "Ez dago gertatu dena esplikatu duen hitzik".

Noski daudela gertatutakoa zehazteko hitzak, tonuak, estiloak!

Bat baino gehiago.

Askok.

Aukera infinituen tresneria da hizkuntza.

Hiztunak, kaletar anonimoak zein akademikoak, mingainean dauka

mekanismo ezin biziagoa: hitzari hitza josi, ikusitakoa deskribatu, sentitutakoa espresatu eta besteekin partekatu.

Ez da zaila.

Gogoa behar, ordea, "gertatu dena" esplikatzeko.

Koska baita hizkuntzak hiztunaren implikazioa eskatzen duela.

Konpromiso pertsonala.

Egunotan bi ekonomiarik, Nobel saridunak biak, gertatzen ari dena esplikatzeko gogoz, sententzia garden-gardena eman dute:

"Ez da posible krisi ekonomikoa konpontzea iruzurra egin zuten finantzari eta bankari kriminalak kartzelan sartu gabe".

Ez, hitzek ez dute hiztunon gogo faltaren kulpa.

OHARRAK (Post scriptum):

-Aukera infinituen tresneria da hizkuntza.

Gertatu dena esplikatzeko.

Baina baita gertatu dena gezurraren lanbro zerratuarekin estaltzeko ere.

-Imre Kertész: "Orain arte, hemen, gezurra zen egia; gaur, ordea, gezurra ez da ezta egia ere".

Ez, gezurra ez da egia ere. Inpunitatea da.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Ziertra Martin, Itxaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com


Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako initzen erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Eskerrik asko!

Gorka Judez

(Aloña Mendiko Saskibaloai Sailaren izenean)
Oñati

Hitz hauen bitartez, Aloña Mendi KEko Saskibaloai Sailak Oñatiko herriari eskerrak eman nahi dizkio 2011-2012 denboraldian ematen ari den babes eta laguntza guztiagatik, hamabostean behin Zubikoako kiroldegia betez eta Bazkide Kanpainari berebiziko erantzuna emanaz.

Kolosala izan dadin

Amaia Agirre

('Ein deigun bidie' ekimena)
Arrasate

Larunbatekoa kolosala izan zen, bai! Azken urteetan herriz herri egindako lan eskeraren isla. Egindako lan horren ondorioz Euskal Herrian preso eta iheslari politikoen eskubideen defentsak oinarri oso zabal eta anitza hartu duela esan dezakegu. Gaur egun, Euskal Herrian ia inork ez du Espainiako eta Frantziako gobernuek Euskal Preso Politikoen Kolektiboari aplikatzen dioten espetxe politika babesten, sekulako sufrimendua sortzen duen eta mendekuan oinarrituriko erabaki politikoen indarrean mantentzen duten espetxe politika. Arrasatetik 6 autobus eta hamarnaka kotxe joan ginen Bilbora, dudarik gabe azken urteetan egin den herri mobilizazio handienera.

Manifestazioaren aurreko astean, etengabeko kriminalizazioa jasan zuen deialdiak hainbat

komunikabide eta alderdi politikoren eskutik, mobilizazioarekin bat egin ez zutenen eskutik noski (horietako bi dispertsioa diseinatu zutenak, ezin ahaztu). Audientzia Nazionaleko mehatxua ere iritsi zen, eta mobilizazioaren egunean bertan probokazioa nagusi izan zen Autonomia kalera Aresen bidalitako Ertzaintzaren eskutik. Hala ere, euskal gizarteak erantzukizunez jokatu zuen, manifestazioaren aldarrikapena desitxuratu nahi izan zutenen asmoa ezerezean utziz.

Mobilizazioaren dimentsioak ikusita, hurrengo egunean PSOEko eta PNVko agintarien diskurtso aldaketa etorri zen. Kaleak betetzen direnean bulegoetan zeresana egoten den seinale. *Ein deigun bidie!* ekimenarentzat positiboak dira hitzok, dudarik gabe. Baina euskal gizartearentzat hitzen garaia amaitu da, eta diskurtsoetatik ekintzetara pasatzeko ordua heldu da. Pausoak behar dira, konpromiso sendoak, behingoz espetxe politika konponbide klabeetan koka dezaten. Behingoz, preso politikoei aplikatzen zaizkien muturreko egoerak desaktiba ditzaten.

Barne ministroari, berriz, neurri kolektiborik ezin dela hartu entzun diogu, eta dena legearen barruan egin behar dela. Legea aplikatuz soilik, beraien legea; euskal preso guztiak Euskal Herrian egongo lirateke, preso gaixoak aske eta zigorraren 3/4ak beteta dituztenak ere bai. Hasi, bada, legea aplikatzen, ministro jauna! Eta neurri hauek guztiak ez al zaizkie kolektiboki aplikatzen? Ba, errepresio klabeetan kolektiboki hartu dituzten

neurri hauek konponbide klabeetara, eta kolektiboki noski, hartzea eskatzen dizuegu ekimen honetatik.

Bukatzeko, zuri, Bilbon egon zinen horri gonbidapen bat luzatu nahi dizugu. Jarrai ditzagun gure herrietako kaleak betetzen, jarrai dezagun preso eta iheslari politikoen eskubideen defentsan indarrak bilduz eta aktibatuz, konpromisoak handitzen. Eta Bilbon egon ez zinen horri ere gonbidapena, noski. Preso eta iheslarien eskubideen defentsak ideologia politikotatik haratago joan behar duelako, *Ein deigun bidie!* ekimenak besoak zabalik hartuko zaituzte espetxe politika aldatzearen alde zaudeten guztiok, gatazkaren konponbidea eta espetxeak beteta izatea bateragarriak ez direla sinesten duzuen guztiok.

Herri bilguneetan parte hartuz, azken ostiraletan agertuz... Kaleak betetzen ditugunean bulegoak mugitzen direlako, kaleak betez soilik hustuko ditugulako espetxeak. Benetan kolosala izan dadin, Bilboko mobilizazioa oinarri moduan hartu eta jarrai dezagun urratsez urrats bidea egiten!

Kontatu bergararrekin

Iñigo Arregi

(Presoak Libre herri bilgunekeo kidea)
Bergara

Kolosala izan da. Izugarria. Apartekoa. Historikoa. Hunkigarria... Hitz asko erabili litezke pasa den larunbateko manifestazioaren nolakotasuna esateko. Aldiz, hitz gutxi dira sentitu genuen guztia adierazteko.

Arratsaldeko lauretan Bergarako autobus estazioan ikus zitekeenak arratsaldeko ekimenaren tamaina nolakoa behar zuen pentsatzera ginderaman; hamar autobus, errenkadan estazioan. Urduritasunaren harriduraz. Bilbora, kotxeetan ere jende asko joan zela esanez. Han ikusten genuena ezin sinetsiz.

Bilbora iritsi ahala, begiekin ikusten genuena sinesten hasi ginen. Bilbo handia txiki gelditu zela. Bergaran eta Euskal Herriko beste hainbat herritan hasitako bideek Bilbon bat egin zutela.

Bidea, espetxean edo deserrian dituzten etzekoen begien hezetan distiratsuek argitzen zutela zabaldu zen. Milaka pausoren elkartasunak ematen zien babesaren emozioari ezin eutsirik. Larunbat hartan, bisita gabe gelditu zen anai-arreba, seme-alaba, aita-ama edo senidearen aldarrikapena eskuan hartuta. Bidearen helmugara iritsi nahian.

Bilboko helmugara iritsi baginen ere, bidearen lehenengo urratsean gaude. Haatik, lehen urrats sendo hau ematen lagundu diguzuen guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu: hamar autobus haiek bete zenituztenei, bai eta kotxeetan joan zinetenoi. Autobus zerrendak zabaldu zenituzten tabernari eta dendarioi, kirol elkarte ezberdinetako kideoi, sindikatuei, herriko gazteei, Udalari... guztiei. Abenduan senide eta lagun ondoan abestu eta ekimenetan parte hartu duzuenoi. Zuen lana, konpromisoa eta laguntza gabe ezingo baikenituen Bilboko kaleak bete.

Orain, hasi berri dugun bide honetan, aurrera jarraitu behar dugu; *Kanto* bergararra

espetxean bahituta mantentzen duen *Parot doktrina*-ren aurka. Zigorren 3/4ak eta 2/3ak beteta dituzten presoek kaleratzearen alde. Larriki gaixo diren presoak etxeratzearen alde. Euskal preso eta iheslari politikoei dagozkien eskubideen alde. Finean, Euskal Herriratzea eta amnistiaren alde. Azken helmugaraino. Elkarrekin, urrats sendoak emanez. Elefanteak lez.

Mugitzen bagara, mugituko da.

Hauxe azaldu nahi dut

Jesus Markaide San Pedro
Arrasate

Gutun honen bidez hauxe adierazi gura dut:

Jesus Markaide jauna Rodriguez Lejarza jaunari eta Ugalde Mendieta jaunari zuzendu aurretik, haiek zuzendu zitzaizkion Markaide jaunari lehenik, haren familiarenganako termino iraingarriekin, ustezko desbideratze sexualak egotzita eta hura onuradun zen azpijokoak egotzita, eta akusatzaileek eurek sekula zehaztu ez dituztenak.

ZUZENKETA

Urtarrilaren 9ko Asteleheneko *Goiena* paperean, *Urte berriarekin prezioek gora egin dute* izenburuko albistean akatsa zegoen. AP-1 autobidea %3,1 garestiago izango dela agertzen bazen ere, Gipuzkoako Aldundiak KPI igotzea erabaki du; hau da, 2,8.

Hori dela eta, barkamena eskatzen diegu irakurleei.

Atal honetan argitaratzeko diren gutunak, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 0513

GORAKADA

GOIENA.NET

Goiena.net %50 hazi da 2011n.*

GOIENA PAPERREKO EDIZIOA

33.000 irakurle astero Gipuzkoan.**

GOIENA TELEBISTA

10.000 ikus-entzule egunero Debagoienean, iaz baino 2.000 lagun gehigok.**

ESKERRIK ASKO!

* GOOGLE ANALYTICS-ETIK ATERATAKO DATUAK. ** CIES-EK EGINDAKO NEURKETAN.

Iñaki Alkorta | Gureak Taldeko presidentea

"Gure bezeroek aukerak ematen dizkiguten neurrian, egoera berrietara egokituz goaz"

- ▶ Gureak Taldea 1975ean sortu zenetik, oso zabaldu eta errotuta dago gure eskualdean
- ▶ "Gaixo mentalak, gutxitasun intelektuala zein fisikoa dutenak, gorrak..., denetik dugu"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Donostiarra, 61 urte, Gureak Taldearen ia sorreratik, 1977tik, bertan lanean. Gaur egun taldeko presidentea da Iñaki Alkorta. Abenduan, Bergaran lantegi berria inauguratu zutela-eta, Gureak Taldearen gainean berba egiteko aprobetxatu dugu.

1975ean hasi zen lanean Gureak Taldea. Asko aldatu da azkeneko 36 urteotan?

Jendartea asko aldatu da eta geu ere bai. Edozelan ere, sorrerak zelakoak izan ziren gogoratzeak badauka zentzia. Duela ia 40 urte, gauzak oso zailak ziren guztiondako eta, jakina, are eta zailago, gutxitasunen bat zutenendako. Gaur egun baino zailagoak.

Gure bailarekin lotura zuzena izan du Gureak Taldeak sorreratik?

Bergaran lanean hasi zen talde bat. Lehenengo lortu zuten Aurrezki Kutxa Munizipalarekin, San Migel Patronatua sortzea. Eskola bereziak antolatu zituzten Gipuzkoa osoan; 15 eskola. Baina horiek heltzen zihozen neurrian, hurrengo urratsa izan zen ikasle horiek lan merkatuan sartzea eta hala sortu zuten Gureak. Bergaran eta Donostian. Errege Seminarioan, Bergaran. 1975ean izan zen hori. Jose Antonio Zabala Bergarako alkate zena izan zen sortzaileetako bat.

Ze eratako ezgaitasuna dute zuen taldean lanean dihardutenak?

Hasiera hartan, Gureak taldeak Atzegirekin zeukan loturarengatik, batez ere gutxitasun intelektuala zutenendako antolatu zen. Gaur egun ere, horiek laneratzea da gure helburu nagusia, baina jendartea aldatu egin da eta gu egokitu egin gara. Gizarte politikak ulertzeko moduak ere aldatu egin dira. Hazten jarraitzeko ahalmena izan dugun neurrian, lanpostuak sortuz, beste gutxitasunen bat zutenei ireki diegu atea. Une honetan, Gureak Taldean gaixo mentalak, gutxitasun fisikoa dutenak, gorrak..., denetik dugu. Gure bezeroek aukerak ematen dizkiguten neurrian, egoera berrietara egokitzen goaz.

Ze sektoretan egiten duzue lan?

Gipuzkoa kultura industrialeko lurraldea da, eta duela 40 urte, askoz ere gehiago zen. Sorreran, bailara bakoitzean lan gune edo tailer bat abiatzea izan zen erronka. Bergaran lehena, baina, hortik aurrera, lurralde osoan barrena. Hori izan zen hasierako helburua. Tailer haietako bakoitzak, bere inguruko enprekin erraz sortu zitzaizkeen loturak,

lanak eta negoziak. 80ko industria krisia gogorra izan zen eta prozesu horrekin batera geu ere hasi ginen zerbitzuen alorrean lanean, gure eskaintza dibertsifikatu egin genuen. Gureak Taldean, langileen erdiak baino gehiagok zerbitzuetan dihardu gaur egun. Industria garrantzitsua da, baina ez sorreran bestekoa.

Zehaztu dezakezu?

Lorezaintzan, marketingean, garbitasunean, ostalaritzan... dihardugu. Esaterako, bailara honetan, Garaia Ikerkuntza Gunean badugu jatetxe bat; Aretxabaletako zaharren egoitzako garbitasuna geure esku dago; Oñatin, Zubillagako gasolindegia geuk eroaten dugu, Repsolekin batera; Gupostekin, Olandixon, bereziki Euskadiko Kutxarako egin izan dugu lan asko; Arrasateko Udalarari zerbitzu batzuk eskaintzen dizkigu lorezaintzan. Bestalde, Goienetxe Fundazioarekin eguneko zentro bereziekin bagabiltza. Kutxa Zeharo ere badugu, Kutxarekin batera, Arrasaten... Zailtasunak, zentzu zabalenean ulertuta, dituzten pertsonak lan merkatuan sartzea da gure helburua.

Zenbat lagun daude lanean Gureak Taldean?

4.000 bat. Horietatik, 388 daude bailaran. %90 dira gutxitasunen bat dutenak. Eta horien erdia-edo, gutxitasun intelektualekoak. Gaixo mentalak ere gero eta gehiago dira, erakunde publikoek eskatzen dituzte egitea ahalegina eta horiek ere baditugu.

Eta zenbat lantegi ditu?

Oso banatuta daukagu langile taldea. Zerbitzuetan 2.000 baino gehiago badira, ez daude denak leku berean. Hainbat tokitan sakabanatuta daukagu. Industria lantegiei dagokienean, Donostian dago handiena. Baina, Arrasaten, Bergaran eta Tolosan ere, 100 laguntik gorako tailerrak ditugu.

Berez, Gipuzkoan sortutako taldea da, baina Gipuzkoatik kanpo ere lan egiten duzue?

Bai, baina gure bezeroen dinamikak eroan gaituzte kanpora. Esaterako, Gasteizen, Nafarroan, Guadalajaran edo Leonen, beste erakunde batzuekin batera egindako akordioei esker. Baina, gure izateko arrazoia Gipuzkoa izan zen sorreran eta gaur egun ere hala da.

Espanian bada Gureak Taldearen modukorik?

Gu sortu ginenean European bazen eredurik. Bigarren Munduko gerraren ostean, milaka eta milaka elbarritu geratu ziren eta horiendako soluzio bila, gurearen



Iñaki Alkorta Goienaren egoitzan, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

"4.000 bat langile daude Gureak Taldean eta 388 daude bailaran"

"Holanda erreferentzia izan zuten Gureak sortu zutenek"

"Multinazional handiak dira gure bezeroak, Bosch-eta"

"Musakolako instalazioak handitzeko akordioa egin dugu"

estiloko erakundeak sortu zituzten. Nik uste dut Holanda erreferentzia izan zutela Gureak sortu zutenek. Katalunian ere bazen antzeko eredu bat Tarrasan. Egia da, edozelan ere, Gipuzkoan aurre hartu geniola. Gero, 1982an, Demokrazia berrezarri eta lege berriak sortu zituztenean, forma eman genion gure erakundeari, moldatu egin genuen. Orduan ere, Euskadin eta Katalunian hartu genion aurrea. Punta-puntan gaude. Gaur egun lanera doan gipuzkoarren %1 Gureak Taldekoren batera doa. Horrek markatzen digu neurria. Urte oparoetan ere zailtasunak dituzte gutxituek lana topatzeko eta krisi denboretan, areagotu egiten da hori.

Zuen tailerretan zer egiten dute langileek?

Debagoianean, autogintzarako dihardute lanean, batik bat, hemengo tailerretan. Etxetresnetan ere bai, sasoi batean. Espezialdu gara kableari lotutako muntaietan. Esaterako, abenduan Bergaran ireki genuen plantan, kablea tratatzen espezializatu dira. 32 lagunek egiten dute lan makina nahiko sofistikatuekin. Autoen faroetarako, airbagetarako edo klaxonetarako erabiltzen dira. Bergaratik irteten diren kableetarako, Gipuzkoa osoan daude 400 lagun muntaketa lanean.

Non daude zuen bezeroak?

Multinazional handiak, Bosch-eta... Mundurako egiten dugu, ez Espainiarako bakarrik.

Gure bailara erreferente da Gureak Taldeen ere?

Historia da. 1972an-edo hasi zen lehen tailerra Bergaran, artean taldea sortu barik zela. 1990ean, igaro ginen Labegaraietako industrialdera, instalazio on batera. 2011n ireki dugu pabilioi berria... Arrasaten ere, nahiko justu gaude Musakolako instalazioetan eta Udalak egin berri du akordioa aldamenean dituen lokal batzuk Gureak Taldeari gehitzeko. Aurreko agintaldian aurreratu zuten lan hori eta oraingoan zehaztuko da Hori berri oso ona da.

Zaila da gutxituekin lan egitea?

Zintzo lan egin behar dela onartzen duten langileak dira, diziplinadunak... Langile onak dira. Bestalde, pertsona bakoitza mundu bat da. Gutxitasun fisikoa duen karreradun bati edo down sindrome duna bati ez diogu berdin exijituko. Lan aukerak behar ditugu horretarako.



Sei landa-apartamentu Eskoriatzako Zarimutzen

Alex Perezek zabalduko du zerbitzua Gatzagatik 10 minutura dagoen Gorosarri baserrian | LARRAITZ ZEBERIO

Ingurune paregabean dago Gorosarri baserria; Aizkorri parke naturalaren mugetan, eta Gatzagatik hamar bat minutura oinez. Eskoriatzako Zarimutz auzoko lurretan dago, baina Arlabandik du sarrera; GI-627 errepidearen 23. kilometrotik, hain zuzen ere. Duela hamar urte erosi zuten Gorosarri Goikoa Aretxabaletako Alex Perezek eta Ane Gaztañagak. Eraikina guztiz eraberritu dute, eta bertan bizi dira gaur egun. Hori bakarrik ez: guztiz ekipatutako sei landa-apartamentu ere gertatu dituzte. Urta-rrilaren 20an zabalduko dute zerbitzu berria.



Alex Perez, etxe atarian, bikotekide Anerekin batera. | LARRAITZ ZEBERIO



Eraikinaren kanpoko estetika zaintzea lehentasuna izan da. | JON SADFI

APARTAMENTU EROSOAK

30-35 metro koadroko sei landa-apartamentu dituzte Gorosarrin, eta Eskoriatzako elizateen izenak ipini dizkiete. Apartamentuetako bat bi lagunendako da eta gainerrakoak, 2-4 lagunendako. Elbarriendako bereziki egokitutako apartamentua ere badago. Guztiek dute komuna eta sukaldea.

Gorosarrin, gainera, jangela eta garbigailu zerbitzua ere eskainiko dituzte; eta kanpoko aldean, aterpea, parrilla, labea eta aisialdirako mahaiak eta belardiak dituzte. "Egonaldi motzak eta luzeak hartuko ditugu", adierazi du Alex Perezek. "Langileak, ikasleak, familiak, bikoteak, enpresa munduko jendea... Egonaldi motza egitera datorren jendeari toki askotatik oso gertu egotea eskaintzen diogu eta egonaldi luzea egitera datorrenari, berriz, bizi izateko beste modu bat, Gorosarri oso leku lasaia delako". Prezio eta eskaintza bereziak egingo dituzte, eta on



Sukaldea eta komuna dute sei landa-apartamentuek. | JON SADFI



Kanpoko aldean aisialdirako gune ederrak ditu Gorosarrin. | JON SADFI

line erreserbak ere egin ahal izango dira, Ruralgest plataformaren bitartez.

ERAIKIN IRAUNKORRA

Perezek eta Gaztañagak mimo handiz eraberritu dute Gorosarri. Ogibidez argiketaria da Perez, eta langabezia geratu ostean

abiatu zuen Gorosarrin landa-apartamentuak egiteko proiektua. Eraikina jatorrizko materialarekin berritu du, kanpoko estetika errespetatzeari lehentasuna emanda. Gatzagarainoko oinezko bide zaharra ere berreskuratu du, eta, kontsumo energetikoari dagokionez, iraunkortasun parametroak

lehenetsi ditu. "Lurraren bero-tasunaz baliatzen den geotermia instalazioa egin dugu. Ura bertako iturri batetik hartzen dugu. Hala, argindarra kenduta, guztiz autonomoak gara", azaldu digu Perezek.

Lehen aldia da Debagoienean landa-apartamentuen eskaintza

egiten dena. Ingurune naturalean kokatutako sei aparta-hotel moduan aurkeztu digu Gorosarri Perezek. "Nekazaritza-etxe batek ematen duen lasaitasuna eta ingurune naturala eskaintzen dugu, baina apartamentu batek intimitaterako ematen dituen aukera guztiekin", adierazi du.



Zarimutz elizatea 32
(sarrera Arlaban mendatetik)
Eskoriatza.

www.gorosarri.com
info@gorosarri.com
943 71 57 27



- Astelehenetik ostegunera eta epe ertain eta luzeko egonaldietarako **ESKAITZA BEREZIAK.**

- Jangela zerbitzua: gosari, bazkari eta afariak bezeroentzat.

- Oinezkoendako ibilbideak.

Goatzeko lekua!



DUELA 10 URTE

2002-01-18

Ikurrinak 25 urte udaletxeetan

1977ko urtarrilaren 19an bihurtu zen berriz ere legezko ikurrina, eta 25. urteurrena bete zen 2002ko urtarrilean horren alde Debagoieneko alkateek egindako lana izan zen hizpide. "Euskal abertzaleek bultzatu eta alkate talde batek bideratutako garai-pena izan zen hura", idatzi zuten 2002ko urtarrilaren 18ko *Goienkaria*-n. "Alkate talde iraultzaile hari Bergarako Alkate Taldea deitu zioten".



Goieskolaren aurkezpen ekitaldia. | ENEKO AZKARATE

2002-01-18

Ibarreko eskola publikoen sarea

Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa osatzen zuten ikastetxeek proiektu komuna eratu zuten, eta proiektu horri Goieskola izena ipini zioten.

Debagoieneko eta Aramaioko eskola publiko guztiak batu ziren egitasmo horretara; guztira, 14 ikastetxe, hain zuzen ere. Egitasmoaren arduradunek Arrasaten aurkeztu zituzten egitasmoa eta horren helburu nagusiak.

DUELA 5 URTE

2007-01-11

Kaltetuak etxera bueltan

2007ko urtarrilaren 6an egin zuten Arrasateko Garibai kaleko La Caixaren bulegoaren kontrako kale eraso. Eragindako kalteak tarteko, 47 bizilagunek etxetik kanpo eman zituzten bi aste inguru. Urtarrilaren 11an itzuli ziren azkenak etxera. Ambrosio Fernandez kaltetuak egun gehiago egin zituen ospitalean.

ARETXABALETA

HERRITARRAK

Iban Luermo UDAREN partiduetan markagailuaz arduratzen da. | LARRAITZ ZEBERIO

"Beti eskatzen didate markagailuan UDAREN aldeko emaitzak jasotzeko"

Aski ezaguna da Iban Luermo Aretxabaletan. Orduak eta orduak ematen ditu astero Ibarra futbol zelaian. Lehenengo kadete mailako botileroa da, eta talde nagusiak etxean jokatzeko duenean hura arduratzen da markagailuaz. Futbolzale sutsua da; Aretxabaleako taldeaz gain, Real eta Bartzelona ere jarraitzen ditu, eta mendia ere asko gustatzen zaio. Zاراia mendizale elkarteko kidea da 16 urte zituenetik. Mendi irteera eginaz eman zion hasiera 2012ari; Murura egin zuen igoera Urteberri egunean. Urtarrilean, gainera, urteak betetzen ditu Ibanek. Aurten, 34 egin ditu, eta urtebetetzea ospatu eta biharamunean egin dugu hitzordua harekin.

Zorionak, Iban!

Eskerrik asko! [Barre]

Zer moduz bizi zara Aretxabaletan?

Oso gustura. Oso herri polita da. Gurasoak Zamorakoak dira, eta aspaldi etorri ziren Aretxabaleta bizi izatera. Gasteizen jaiotakoa naiz, baina nire nortasun agirian *Aretxabaleta* ipintzen du. Beti bizi izan naiz hemen. Bertan ditut familia, lana eta lagunak. Ez zait sekula beste herri batera bizi izatera joateko ideia burutik pasa ere egin. Ez dut inoiz beharrik sentitu.

Ordu asko sartzen ei dituzu zuek Ibarra futbol zelaian?

Bai. Futbola nire afizioetako bat da. UDA, Real eta Bartzelona jarraitzen ditut. Aretxabaleako lehenengo kadete mailako botileroa ere banaiz, eta markagailuaz arduratzen naiz talde nagusiak etxean jokatzeko duenean.

Zuk jakingo duzu orduan beste inork baino hobeto UDA zelain doan.

Ondo doala esango nuke nik. Lehenengo kadete mailako taldea, berriz, Kopa jokatzeko puntuan da. Ea lan ona egiten dugun!



Iban Luermo hain gustuko duen Aretxabaleako Durana kalean. | L.Z.

"Futbolzalea naiz; UDA, Real eta Bartzelona jarraitzen ditut"

"Gustatzen zait informatuta egotea; egunero irakurtzen dut egunkaria"

Aizu, markagailuaren ardura ez da txantxetako izango! Baduzu anekdotarik?

Bueno... beti eskatzen didate etxeko taldearen aldeko emaitzak jasotzeko markagailuan. Badakit txantxetan ari direla, baina jendeak ulertu behar du ezin dudala horrelakorik egin, nahiz eta gogo faltarik ez izan.

Botileroa ere bazara lehenengo kadete mailako taldean. Zeintzuk dira zure ardurak?

Astean bitan –eguztenez eta egubakoitzean– entrenatzen da lehenengo kadete mailako taldea. Entrenamenduetara joaten naiz, baita aste bukaerako partiduetara ere. Nire ardura nagusia materiala prest edukitzea da; petoak, baloiak, ura...

Futbolari denbora luzea eskaintzen diozu, baina mendizaleak zure bai, ezta?

Bai. Nire beste afizio handia da. Zاراia mendizale elkarteko kidea

naiz 16 urte nituenetik, eta hama-bostean behin irteera bat egiten dugu. Urteberri egunean, esaterako, Murura igo ginen, 10:00etan abiatuta. Salda, txorizoa... prestatzen laguntzen dut. Asko gustatzen zait dagoen giroa. Hurrengo irteera domekan, urtarrilak 15, egingo dugu.

Zein mendi dituzu gustuko?

Gogoan dut elkarrekin egin nuen lehenengo irteera; Urduñara izan zen. Inguruko mendiak oso gustuko ditut, hala nola Kurtebarri, Muru, Degurixa, Gexao... Gainera, Nafarroan, Frantzia, Palentzia eta Sorian ere ibiltakoa naiz. Aste Santuan beti egiten dugu irteera bereziren bat. Behin, Gipuzkoako Itzulia ere egin genuen.

Herriko jaietan parte hartzen duzu?

Bai, noski. Abuztuko Andramai-xetan kanpoan egoten naiz, baina, bestela, gustatzen zait kalera

NIRE HERRIAN

ERDIGUNEAN EGINIKO LANAK

Durana kalea gustuko du Iban Luermok eta pozik dago erdigunean egindako lanekin. "Lan potoloak egin dira. Nire gurasoak gertu bizi dira eta urak gainezka egin zuenean egoera gertutik bizi izan genuen". Herrian, bestalde, etxebizitzak egitea ondo ikusten du; garrantzitsua deritza jende gaztea Aretxabaleta etortzeari.

AMAITU BAKO ETXEBIZITZAK

Kezkaz ikusten du Luermok Txarapeko auzotarren egoera. "Etxebizitza horiek amaitu egin behar dituzte lehenbailehen, jendeak etxebizitza horien premia du". Apurketekin ere kezkatuta dago. "Jendeak zergatik apurtzen ditu autobus geltokiak? Zergatik egiten dituzte grafitiak edonon? Ez zait gustatzen", dio.

irtetea. Inauterietan, orain, ez naiz moztortzen, baina txikitzen bai. Eta zinema ere oso gustuko dut. Sarri joaten naiz Arkupera pelikula ikustera.

Eta informatuta egotea garrantzitsua ei da zuretzat.

Bai. Egunero irakurtzen dut egunkaria eta telebistako albisteak ikustea ere asko gustatzen zait. Dena jarraitzen dut: politika, ekonomia, kirola... Badakizu, gainera, orain krisia dugula eta egoera oso txarto dagoela. Fagor Etxetresna Elektrikoak lantegiko langilea naiz, eta gurean ere nahiko lan dugu. Ea 2012an gauzek hobera egiten duten!

Baduzu itxaropen hori?

Bai, noski! Krisi honetatik aterako gara. Sinistuta nago. Horrela behar du, gainera. Beti pentsatu izan dut baikorrak izan behar dugula; bestela, jai dauka! Gauzak ez doaz ondo, baina hobera egingo dute. Ziur.

HERRIAK

BERGARA



Demoliciones Ryde enpresako dozena bat lagun dabil lanean, hondeatzeko hiru makina eta garabi handia erabiltuta. | J. LETURIA



Eraikina 1960ko hamarkada hasierakoa zen. | JOSEBA LETURIA



Atzo, eguena, eraikineko aretoan ziharduten lanean. | E.M.

Eraiste lanen ikusgarritasuna

- ▶ Mariaren Lagundia botatzeak hil amaieran bukatuko da
- ▶ Demoliciones Ryde dabil lanean, Gabonen aurretik

EDU MENDIBIL | BERGARA

Uste baino gehiago luzatzen ari dira Mariaren Lagundiko eraikin berria botatzeko lanak; Erregetxo plaza aurreko eraikina botatzeko 15 bat egun beharko zituztela esan zuten arduradunek Gabonen aurretik. Bada, abenduaren 19an hasi ziren eraiste lanak eta oraindik ere lan handia geratzen da egiteko. Bada, urtarrilaren amaierara arte lanean aritzeko baime-na luzatzea eskatu dute Udalean.

Javier Korta arkitektoa da egiten ari diren lanen zuzendaria eta Demoliciones Ryde enpresako dozena bat langilek dihardute. Hondeatzeko hiru makinarekin eta garabi handi batekin dabilta egunotan. Lanok ikusmin handia piztu dute herritarrengan eta benetan ikusgarria da makinak eraikina *jaten* ikustea. Eraikinaren ondoan Zabalotegiko 14. zenbakiko eta Bidekurutzeta 31ko etxeak daude eta horrek segurtasun neurri bereziak jarraitzea eta lanak luzatzea ekarri du atzetik. Gainera, eraikinaren egitura ez zen hasieran uste zuten bezalakoa. Erregetxon dagoen garabiak

sare handi bati eusten dio Bidekurutzeta 31ko etxeak babesteko. Edozelan ere, arrisku handien eskatzen zuten lanak egin dituzte dagoeneko. Aretoaren anfiteatroan ziharduten atzo eta besaul-

ki-patiora iristekoak ziren gaur. Ziurrenik, bihartik aurrera zapatuetan ere lanean jardungo dute, lanak lehenbailehen amaitzeko. Beste garabi handi bat erabiltzen hasiko dira habeak moztu eta

behera jaisteko. Tona handiko habeak dira eta lur mordo hasi da pilotzen. Material dena txikitzeko (eta ondoren birziklatzeko) makina birrintzailea erabili beharko dute.

Etxeen zain

Eraikina dagoen tokian 63 etxebizitza egitea aurreikusten da. Oraingoz, behintzat, merkatu-ikerketak dioenaren zain dira promotoreak.



Mariaren Lagundiko geletako bat, joan den abenduan. | NEKANE LAZKANO



Aretoan 400 bat lagun sartzen ziren. | NEKANE LAZKANO

1a 50 urteko historia duen eraikina

Mauricio Arregik eraiki zuen Mariaren Lagundiko eraikina. Luis Astiazaran arkitektoaren proiektua 1960koa da, baina lanak zerbait atzeratu ziren eta hamarkadaren erdialdera hasi ziren Mariaren Lagundiko lehen

ikasleak han. Belaunaldi ugari igaro da hango geletatik 1995ra arte eta, era berean, herriko kultur ekintzatan garrantzi berezia izan du azken solairuko aretoak. Ikasleen ospakizunak ez ezik, zine eta antzerki emanaldi dezente

jaso ditu urtetan. Orfeoien *Oliver!* izan zen han antzeztutako azken ikuskizuna, 1999ko udaberrian. Kultur erreferente nagusietako bat galdu zuen Bergarak Mariaren Lagundiko aretoaren itxierarekin.




Arrasate 1930eko hamarkadan eta 2011ko urrian. Bistakoa da herriak jasan duen aldaketa. | INDALECIO OJANGUREN / ANGEL GT



Aldaiazpi, eztabaida-iturri. Irudikoa irisgarritasuna hobetzeko ideia bat da.

Biharko Arrasateren oinarria aurreratzen

- ▶ HAPOn lehen fasea herritarrei zabalik, Kulturaten
- ▶ Abiapuntua da, luze joko duen plana onartu aurretik



Etxe txikiak: Gipuzkoa eta Nafarroa etorbideen konexioa eta ondarea berbagai.

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udalak herritarren parte hartzea sustatu nahi du etorkizuneko Arrasate nolakoa izango den zehaztuko duen Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) egiteko orduan. Herritarren iritzia jasotzeko erakusketa ireki zuten abenduaren 16an Kulturaten, planaren aurrerapenarekin.

Herritarren artean eztabaida sustatu gura du erakusketak, eta oraingoz lortu du helburua. Izan ere, ikusmin handia piztu du; lehen astean 200 bat herritar pasa ziren Kulturateko klaustrotik. Erakusketan herritarren zerbitzura dagoen udal langileak honela azaldu digu: "Harritu egin gara etorri den jendeaz. Zifra zehatzik ezin dut eman, baina zabaldu zenetik gaur arte 500 herritar baino gehiago pasako ziren. Gainera, batzuk proposamen zehatzekin etorri dira; badakite zertaz ari diren. Aldekoak eta kontra-koak, denetarik iritziak jaso dira orain arte". Ekarpenok erakusketa itxi ostean aztertuko ditu Udalak.

2013rako onartzea, goiz jota

Plan orokorra onartzeko prozesua luzea izango da. Eta bertan jasozten diren proiektuak gauzatzek

are eta luzeago joko du oraindik. Hirigintza Saileko teknikari buru Juan Antonio Urdangarinek uste du 2013 edo 2014rako onartuko dela HAPO berria. Kontuan izan behar da duela zortzi urte pasa onartutako planaren barruko zenbait proiektu egiteke daudela oraindik eta plan berriarekin ere hala gertatuko dela: "Erakusketan marraztuta agertzen denak ez du esan gura egin behar denik, inondik inora", gaineratu du Urdangarinek. Gaineratu du proposamenak ez direla larregi garatu: "Ideiak dira, batzuk oso ausartak eta beste batzuk ez horrenbeste. Ideion gainean herritarrek duten iritzia jakin gura dugu".

Herritarren proposamenak jaso ostean plana idazteko oinarriko irizpide eta helburuak zehaztuko dira. Gero agiri hori jendaurrean erakutsiko da hila-betez, eta eskumenak dituzten bestelako administrazioei ere jakinaraziko zaie. Erakusketa horretako emaitzak jaso eta behin behineko onartuko da agiria, dagozkion aldaketekin. Aldaketok egiturazko antolamenduaren funtsa aldatzen badute Udalak hasierako onespina eman behar-ko dio agiriari eta jendaurrean irekiko du berriz, beste behin

onartu aurretik. Horren ostean Udalak agiria EAeko Lurraldearen Antolamendurako batzordeari igorriko dio eta batzorde horren txostena loteslea izango da lurralde antolamenduko tresnei, eta Udalaz harago dauden proiektuei. Hiru hilabete izango du batzorde

horrek txostena egiteko. Eta orduan, aldaketa horiek guztiak egin ostean, behin betiko onartuko da HAPO berria.

Kanpanzar ustiatzeko plana

Harrobia ustiatzen duen enpresak aurkeztu berri duen lurpeko mea-


tzaritzaren proiektuaren inguruan dagoen eztabaida abian jarri nahi da erakusketarekin. Enpresa horrek Udalari aurkeztu dio harrobi ustiapena lur azpian edo meatzaritzaren egiteko proposamena, hau da, kareharria lurpetik ateratzea. Omer Arregi Hirigintza zinegotziaren arabera, Udal Gobernuak proposamenaren aurkako jarrera dauka, "erabat". Hala ere, herritarrek proiektuaren gainean iritzia ematea gura du Hirigintza Sailak.

Garagartza: zer da eraikigarria?

Atxabalpe, Barrutieta, Akisoalde eta Bustintzako inguruan egun bertako lurrek duten eraikitze eskubidea jarri gura da ezbaian. Lau aukera erakusten dira, eztabaidarako. Udalaren ideia da auzotarren oniritziarekin eskubide hori murriztea, eta, murrizten bada, zein neurritan egin behar den zehaztea.

Aldaiazpi, polemika iturri

Aldaiko etxebizitzak orain dela berrogei urte baino gehiago eraiki ziren eta egun, zona horretako hiritartze eta irisgarritasun baldintzak nahiko kaskarrak dira. Epe luzean edo ertainera baldintza horiek hobetu beharra ikusten



HAPOren aurrerapenaren gaineko xehetasunak kontsulta daitezke. | J.B.

Zazpi gune orokor eta 21 proposamen

Kulturateko erakusketan bi gune bereiz daitezke. Batetik, zazpi gune orokor aztertzen dira: antolamendua, eraikigarria ez den lurzorua, sistema orokorrak, ondarea, arkeologia-gune eta elementuak, natur-ondarea eta lurzoruen kutsatzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioa. Bestetik, 21 proposamen daude. Gainera, 50 bat argazki zahar eta 1933ko jaien bideo bat ere daude ikusgai, klaustroaren erdian.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE



Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Restaurante
UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

PATXI CASTRO



Era guztietako aulkien konponketa

• Tapizatu lanak


• Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta

• Besaulki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69



Garagartza: O aukera, indarrean dagoen plana; A-k ildo horri eusten dio. Udalak, berriz, eraikigarria dena murriztu gura du.



Kanpanzar: harrobia lur azpitik ustiatzeko ideia. Udala "erabat" aurka dago.



San Viator txiki: San Andresko eliza handitzeko proposamena.



Uruburu-Grandenape: txaletak beharren garapen iraunkorrekotako etxeak –babes ofizialekoak– egitea da ideia. | IRUDIAK: HURBIL



Santamaina-Santa Teresa: irisgarritasuna berreskuratzea da lehentasuna.

Oinezkoendako lehentasuna sustatzea eta auzoaren kalitatea hobetzeko azterketa sakona egitea beharrezko ikusten du Udalak. Irisgarritasun baldintzak hobetu eta espazio publikoak zabaltzea dira lehentasunak. Proposamenean, besteak beste, erdigunea auzoko kale ezberdinekin zuzenean komunikatuko duen gunea antolatzea aurreikusten da. Aldaiko parkearen kota berean hasi eta maila desberdinetan antolatuta egongo litzateke. Hala, Santa Marina ingurua Aldai inguruko bidegorriarekin, parkearekin eta Gipuzkoa etorbidearekin erraz komunikatuko litzateke. Bestetik, gune horrek auzoko hornikuntza eta aisialdirako gune garrantzitsuenak jasoko lituzke, baita auzoan irisgarritasun baldintzak bermatzeko beharrezkoak liratekeen igogailu eta elementuak ere.

Etxe txikiak: ondarea ere jokoan
Udalaren ustez, komenigarria da Gipuzkoa eta Nafarroa etorbideko ardatzen konexioa hobetu behar den planteatzea. Egun Gipuzkoa etorbideetik Nafarroakora doan zirkulazioa ondo antolatuta dago baina alderantziz, berriz, nahiko aldrebestua da. Ikusiko balitz bi etorbideotako konexioa hobetzea beharrezkoa dela –horrela Zerrajera eta erdigunea hobeto komunikatuz– aukera bat da biribilgunea jartzea. Biribilgune horrek hiru etxe txiki eraistea suposatuko luke. Herriko ondarearen defendatzaileak horren kontra agertu dira; Udala kontziente da etxeok duten balio historikoaz. Beraz, industri iraultza garaiko adibide den langile etxe-multzoa ahalik eta gehien mantentzea da hasierako helburua.

San Viator Txiki eta Otolara
San Viator Txiki esparruan indarrean dagoen araudiak irakaskuntza eraikinak finkatzen ditu –ordezkatzeko aukera emanez,

du Hirigintzak. Erakusketara eramandako proposamenak polemika sortu du, herritar askok ulertu dutelako egungo etxeak bota eta berriak eraikiko direla. Arregik ukatu egin du hori: "Ez dugu buruan dauden etxeak bota eta berriak egitea. Erakusketakoa ideia bat da, ez proiektua: goazen aztertzerara Gipuzkoa etorbidean eta Aldaiko urbanizazioan irisgarritasun aldetik zein hobekuntza egin daitezkeen".

zaren aurrealdea eta Udalara doan errepidea lotzen dituen oinezkoen bidexka berreskuratzea egingo litzateke, eta Uribarri auzoaren ostean dagoen lurzorua ingurumen kalitatea hobetu egingo litzateke egungoarekin alderatuz.

Santa Marina: azterketa sakona

Uruburu, iraunkortasunerantz
Uruburu-Grandenape gunean indarrean dagoen antolamendua aldatu egin behar da, egungoa legearen aurka doalako. Hala, trinkotasun eta dentsitate txikiko etxeak beharrean, trinkotasun handikoak aurreikusten dira, garapen iraunkorra bermatuko dituztenak –gizarte, ekonomia eta ingurumen alde-rik-. Aurrera egingo balu, etxeen %75 babes publikokoak izango lirateke –%55 babes ofizialekoak eta %20 tasatuak-. Gainerako %25a etxe libreendako litzateke. Eraikinen kokapena eta antolamendua bera malda eta eguzkiari egokitzuz aurreikusiko litzateke. Kutsatua dagoen lurzoria egon daiteke, gainera. Era berean, Uribarriko eli-

DATUA

21

PROPOSAMEN, BAINA ZABALIK

21 proposamenen gainean iritzia eman, eta beste batzuk proposa daitezke.

ESANAK

"Marraztuta egoteak ez du esan nahi egingo denik"

JUAN A. URDANGARIN | HIRIGINTZA

INKESTA

<p>JESUS APERRIBAI HERRITARRA</p> <p>"Oso ondo dago erakusketa jartzea herritarrek proiektuen berri izan dezaten. Uruburu eta Grandepaneko proiektua gustatu zait. Otolara erreka bistan utzi eta lurpeko pasabidea egitearena arraroa iruditu zait. Planoan ez da gauza handirik bereizten".</p>	<p>ISABEL ARREGI HERRITARRA</p> <p>"Erakusketa egitea ondo ikusten dut, baina proiektu batzuk ez ditut argi ikusten. Lehen irakurketan, etxe larregi ikusi ditut. Egun, bloke batzuk erdizka daude, horiek amaitu beharko lirateke. Tranbiarena, Etxe Txikiak, Otolara... ez ditut beharrezko ikusten".</p>
--	--

hala behar ezkeror- eta horrez gain, San Andresko eliza handitzeko aukera ematen du. Eztabaidan jarri nahi da elizaren handitze proposamen hori, parkean eragina duelako.

Azkenik, Otolara kalerako proposamen ausarta dago. Ekonomikoki ausartegia akaso, eta

galdetu diegun herritarrei ez zaie egingarria denik iruditzen: arbolapetatik Amaia antzokira arteko tartean erreka bistan jarri eta gune osoa oinezkoendako egitea da proposamena. Oinezkoendako egiteko, autoendako errepidea lurpetik egitea aurreikusten da, aparkaleku eta guzti.

ARGITU
Psikologia eta osasun etxea

Psikoterapia kognitiboa eta jokabidearena
Haurrak – nerabeak – helduak – indibiduala – bikoteak - familiak

PROGRAMAK ETA TAILERRAK

Tabakoaren mendekotasuna gainditzeko tailerra
Urtarrilak 28 eta 29

Laguntza doluan
Adimen emozionala
Ikasketa ohiturak
Guraso eskola
Beste batzuk...

675 70 68 07
Bidebarrieta 27 B, 9. bulegoa. EIBAR

Boluntarioen lana txalotu dute Aita Menni ospitalean

Ospakizun eguna egin dute asteon gaixoeekin batera

J.BEREZIBAR/M.BITERI | ARRASATE

Aita Menni ospitalean boluntario moduan dihardutenek ospakizun eguna egin zuten joan den martitzenean. Gaixoeek eta boluntarioek elkarrekin pasa zuten eguna; meza, bazkaria eta dantzaldia izan zuten.

Astero boluntario talde bi joaten dira ospitalera gaixoeekin egotera; denera, 25 lagun inguru dira. Serapi Arantzabal bergararra da horietako bat. Hamaika urte daramatza zeregin horrekin eta oso gustura egiten duela esan digu: "Gizona gaixorik eduki nuen hasi nintzen; jasotako laguntasuna asko eskertu nahi nuen. Etortzen direnean egiten dizuten irribarretxo gozoak dena betetzen du, oso aberasgarria da".

Rosa Usabiaga ere martitzen arratsaldeetan joaten da Aita Mennira. Gaixoak jaso eta lehenengo paseatzera eta gero, kafetxo bat hartzera joaten direla jakinarazi digu. Horrekin batera, kantuan eta dantzan egiten dute, eta batzuetan baita jokoan ere. Boluntario izatera zelan heldu

zen ere azaldu du: "Kasualitatez hasi nintzen orain dela urtebete. Proba moduan hasi nintzen, eta oso esperientzia aberasgarria dela ikusi dut denbora honetan. Maitekorrak dira guztiak".

Ongietorriak

Boluntarioen sarea koordinatzeaz arduratzen den Egoitz Zabalak azpimarratu du gaixoen ongizaterako eta sendatze prozesuan laguntzeko ezinbesteko lana egiten dutela lagun horiek, gaixoe

oso gustura jasotzen dituztelako bisitak. Honakoa esan du: "Ordu bi etortzen dira astero; gazteenak 22 urte inguru ditu. Aita Menni sortu zenetik boluntariotzak bere garrantzia izan du, gaixoen sendatze prozesu horretan garrantzitsua delako. Betidanik bultzatu da. Denbora eta hau ezagutzeko gogoia duen edozein pertsona ongiatorria da. Orain gazte gaixo asko dauzkagu, eta ondo egongo litzateke gazteak izatea; baina edozein etor daiteke".



Bazkaria egin zuten martitzenean. | JON BEREZIBAR



Goraino bete zen astelehenean Kulturate. | JOKIN BEREZIARTUA

"Zibilizazioaren gaitzen" eta elikaduraren arteko lotura izan dute berbagai

Kulturate goraino bete zen martitzenean Dorleta Martinez medikuaren hitzaldia entzuteko

M.B. | ARRASATE

Ikusmin handia sortu zuen martitzen iluntzean Dorleta Martinez mediku arrasatearraren hitzaldiak. Elikaduraren eta osasunaren gainean jardun zuen. Hasiera batean, Kulturateko Jokin Zaitte gelan zen egitekoa, baina, batutako jende kopurua ikusita, areto nagusian egitea erabaki zuten. Han ere zutik jarraitu behar izan zuten ikusle batzuek hitzaldia.

Hitzaldian, gaur egungo elikadurak "zibilizazioaren gaitotasunak" bezala ezagutzen diren gaitzetan duen eraginaz jardun zuen: hain justu ere, gaixotasun kardiobaskularretan, endekapenezko gaixotasunetan eta minbizian. Horretaz gainera, esandako gaixotasunak eki-

diten lagunduko duten elikadura osasuntsuaren oinarriak zehaztu zituzten berbaldi berean. Horren harira, Martinezek elikagai gomendagarriak zeintzuk diren eta saihestea komeni direnak jakinarazi zizkien han batutakoei.

Elikadura eta hezurak

Otsailaren 21a bitartean, elikadura eta osasuna hizpide duten beste hiru hitzaldi egingo ditu mediku arrasatearrak. Bigarren berbaldi martitzenean, urtarrikilak 17, izango da, Kulturaten, 19:00etan. Elikaduraren bidezko hezuraren osasunaren gainean luze egingo dute berba horretan. Lehenengoan bezala, librea izango da horretarako sarre-

Abian da AED elkartearen 25. Arrasate literatura lehiaketa

M.B. | ESKORIATZA

AEDk 25. Arrasate literatura lehiaketa jarri du abian. Gaia librea izango da hiru sailetan: hain justu, ipuina, poesia eta bertso-papera. Euskara elkartetik gogorarazi dute euskarazko obra originalak eta inoiz saritu edo argitaratu gabeak izan beharko dutela eta lanak martxoaren 30a baino lehen aurkeztu beharko direla.

Leintz bailaran bizi, lan egin edo ikasten duen edonork parte har dezake lehiaketan, banaka

edo taldeka, DBHko 4. mailara arte. Batxilergoko eta 1995ean baino lehen jaiotako mailan Debagoien osora zabaltzen da parte-hartzea. Lan guztiak lelo batez sinatuko dira, eta bi modutan aurkeztuko dira: aed@aedelkarte.com postara bidalita edo elkartearen egoitzara bidalita.

Eskola ibiltaria hilaren 21ean

Bestalde, hilaren 21ean, zapatua, Literatura Eskola ibiltariak Arrasaten emango du urtarrikilako saioa, AEDrekin lankidetzan. Emailea

Ixiar Rozas izango da eta gaia, *Idazketa luzatuz. Begirada bat performatibitate eta egungo praktika eszenikoei*. Saioa zapatu goizean izango da, 10:00etatik 14:00etara, Kulturateko Loramendi aretoan. Izena emateko www.literaturaeskola.org webgunera jo beharra dago.

Horretaz aparte, eguaztenean, hilak 18, egingo duten Argia egunaren harira, Ruben Marcillaren *Oroitarrria* dokumentala ikusi ahal izango da 18:30ean, Kulturateko Jokin Zaittegi aretoan.

Udalak Gizarte Ongizate Sailerako teknikaria behar du

Udalak Administrazio Oroko erreko teknikaria behar du, Gizarte Ongizate Saileko buru izateko. Izangaiek zuzenean aurkeztu behar dute hilaren 17an, Kulturaten, 10:00etan. Lehen proba (teoriko-praktikoa) egiteaz gain, eskatzen zaizen memoria laburra aurkeztu beharko dute egun berean.

Markaide zigortu dute Rodriguez eta Ugalde iraintzeagatik

Epaitegi batek Jesus Mari Markaide zigortu du, "publizitatea erabilia" Ander Rodriguez eta Joseba Ugalderen kontra "irainak" egiteagatik. Hedabideetan iragarkia argitaratzera behartzeaz gain, 3.250 euro ordaindu beharko dizkio bakoitzari, eragindako kalte moralarengatik.

Sipi Sipi

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

PUB HAIZEA

arrasate

Menace talde ingelesak gaztetxean joko du gaur

CC627, Achtung! eta Interprete Desconocido taldeek egingo diete lagun, 21:30ean hasita

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Punk-rock doinuak izango dira gaur, egubakoitza, gauean gaztetxean. Lau taldek joko dute 21:30etik aurrera: Menace (Londres), CC627 (Oñati-Arrasate), Achtung! (Hernani) eta Interprete Desconocido (Arrasate).

Menace taldea izango da gaurko karteiko buru. 1976. urtean Londresen sortuak, bertako punk eztearen lekuko zuzenenak izan ziren. Taldearen jarduna 1984. urtera bitartean luzatu zen, bidean hainbat disko eta zuzeneko emanaldi dezente eginez.

Urte askoan taldea lozorroan izan eta gero, 1998. urtean berriro jarri ziren martxan, aro berri bati hasiera emanaz, taldekide berriekin. Taldearen estudioko lan berriena 2009ko *No Escape From Nowhere* diskoa da. Arrasatekoa izango da taldearen kontzertu bakarra Euskal Herrian.

Achtung!, diskoa aurkeztera

Achtung! talde hernaniarra da gaur gauean gaztetxeko agerto-



Menaceko abeslaria; 1976an sortua da taldea. | MYSPACE.COM/MENACELONDON

kira igoko denetako beste bat. Orain arte nahikoa ibilbide motza egin duen taldea da, baina disko bat badu dagoeneko, *Tumbando aguja* izenekoa. Iaz kaleratu zuten Hernanikoek euren lehenengo lana. Besteak beste, Afoña taldean jardundako zenbait kidek osatzen

dute Achtung!

Londrestik eta Hernanitik iritsiko diren doinuekin batera, etxeko taldeenak ere izango dira: CC627 taldeak punk-rockarekin eta Interprete Desconocidokoe euren punk-oi!arekin berotuko dute giroa.

Hamahiru lagun aurkeztu dira Jokin Zaitegi itzulpengintzako bekara

J.I. | ARRASATE

Hamahiru lagunek eman dute izena AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak antolatzen duten Jokin Zaitegi beka lortzeko. Tomas Transtömer suediarrek jaso zuen iaz Literaturako Nobel saria eta haren lana izango da, hortaz, aurtengo bekaren irabazleak itzuli beharko duena.

Epaimahaiak hilaren bukaran erabakiko du beka nori eman. Bekadunak irailera arteko epea izango du lana bukatzeko. Gero zuzenketak eta azken ukituak egingo dizkiote, eta Durangoko Azokarako argitaratzeko eraman- gero dute inprentara.

Zehazki, Tomas Transtömer suediarren poema bilduma da bekaren irabazleak itzuli beharko duena. Hamahiru lagun artetik aterako da itzulpena egingo duenaren izena. AEDko kideak pozik daude bekara aurkeztutako lagun kopuruarekin, "jende gutxi animatzen delako poesia itzultzer eta are gutxiago jatorrizko testua suedieraz bada", elkarteak arduradunen esanetan.

Aurtengo epaimahaia osatzen dute: Luigi Anselmik, Santi Leonek eta Joseba Ossak. Hauek, AEDko Itxaro Artolarekin eta Elkarreko Xabier Mendigurenekin, ebatziko dute sariketa.

3 dimentsioko filmak izango dira Amaian aste honetan

3 dimentsioko filmak ikusteko aukera izango da hemendik aurrera Amaia antzokian. Aste honetako hirurak, adibidez, gisa horretakoak izango dira. Tarsem Singh zuzendariaren *Immortals* akziozko filma egongo da ikusgai, bate-tik, zapatu (19:30 eta 22:00), domeka (19:30) eta astelehenan (20:30); hurrek, berriz, Charles Martin Smithen *La gran aventura de Winter el delfin* ikusteko aukera izango dute zapatu eta domekan (17:00); martitzeneko (20:30) filma, berriz, *Pina* izango da, Wim Wenders zuzendariaren musikal erako lana.

Besaideren urteko batzar orokorra eta irteerak

J.I. | ARRASATE

Datorren egunean, hilak 19, egingo du Besaidek urteko batzar orokorra. Gai zerrenda ondorengoa izango da: 2011ko ekintzen azalpena eta balantzea; aurtengo aurreikusitakoen azalpena eta aurrekontuaren onarpena eta 2013rako kuotaren onarpena. Kulturaren izango da batzarra, 19:00etan hasita.

Bestetik, prest du dagoeneko Besaidek hasi berri dugun urterako ekintzen egutegia. Eski irteerak izango dira aurrenekoak, mendikoak eta alpetar erakoak, biak hurrengo asteburuan, urtariraren 21 eta 22an. Alpetar erakoa Formigalera izango da, eta bertarako izena astelehenetik eguaztenara eman daiteke, 18:30etik 19:30era, Besaideren egoitzan. Mendiko eski irteera, berriz, Anayetera eta Aspera izango da. Astelehen eta martitzenean eman daiteke izena, 19:00ak eta 20:00ak bitartean.

Besaidek antolatutakoak horiek; Gipuzkoako federazioak, berriz, ikastaro bi antolatu ditu datozen asteetarako. Mendi eski ikastaroa izango da urtariraren 28 eta 29koa, eta izotz eskalada ikastaroa otsailaren 4 eta 5ean egingo dutena. Bietarako izena eman daiteke dagoeneko. Federazioak zein Besaidek antolatutakoen informazioa, elkartearen webgunean.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Sonografos-Ekaitz	9-2
Aston Birra-Iluntz	3-7
Dribling-Aldatz	4-3
Abokajarro-McAwen	2-6
Fidel&Discipulos-AT Betrayer	7-13
Portaboleiros 2.0-Lasagabaster	1-9
Iluna-Dublin	4-6
Iriztu	Atsedena

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Dribling	18	7
2 Dublin	18	8
3 Aldatz	17	8
4 Iriztu	16	7
5 Sonografos	15	7
6 McAwen	15	8
7 AT Betrayer	13	8
8 Abokajarro	12	7
9 Lasagabaster	11	8
10 Iluntz	9	8
11 Fidel & Discipulos	9	7
12 Ekaitz	4	8
13 Iluna	3	7
14 Aston Birra	3	7
15 Portaboleiros 2.0	0	7

PARTIDUAK

URTARRILAK 14, ZAPATUA
09:30 McAwen-Aston Birra / Dribling
10:30 AT Betrayer-Dribling / McAwen
11:30 Iluntz-Iriztu / AT Betrayer
12:30 Sonografos-Aldatz / Iluntz
17:00 Abokajarro-Lasagabaster / Antolak.
URTARRILAK 15, DOMEKA
11:30 Dublin-Fidel&Discipulos / Iluna.
12:30 Portaboleiros-Iluna / Fidel&D.
Ekaitz Atsedena

Hiru partiduko zigorra bi jokalarirendako

Iluntz taldeko jokalaria batek eta Aston Birra-ko beste batek hiru partiduko zigorra jaso dute; taldeotako jokalariek berriro istiluren bat izanez gero, bermea galduko dute.

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua

Gubi

ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 74




URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



943 71 17 68

OHARRAK

1956AN JAIOTAKOEN AFARIA HILAREN 28AN

1956. urtean jaiotakoen afaria urtarrilaren 28an Tartufon. Joan-etorria egiteko autobusa izango da. Afari egunean Bule tabernan elkartuko dira, 19:00etan. Izen-ematea Tarufo jatetxean (943 76 35 51) edo 630 62 61 30 telefono zenbakian.

UNIBERTSITATEA AZTERGAI GAZTETXEAN

Zein unibertsitate eredu nahi dugu? izenburupean hitzaldia izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 17:30ean.

EQUO-REN HITZALDIA EGUENEAN

Equo alderdiak antolatuta, Junkal Arrutiren eskutik *Desazkundera* gaia jorratuko dute egunean, hilaren 19an, kultura etxean, 19:30ean.

BERGARA KIROL ELKARTEAREN ZOZKETA

Honako hauek izan dira sari-tutako zenbakiak Gabonetan: lehen saria, egoitzan ikusgai izan duten Gabonetako saski ederra, 43.554 zenbakiari egokitu zaio; bigarren saria (Ecuador bidaia agentziarekin aste-buruko egonaldia hotel baten) 40.086 zenbakiarendako izan da; eta, azkenik, Multiptica-sen opari sorta 50.310 zenbakidun txartelak jasoko du.

LOKATZAREN GABONETAKO ZOZKETA

Lokatzaren zozketan, lehen saria 8.268 zenbakiari egokitu zaio eta bigarrena 3.404 zenbakidun txartelari. Irabazleek Peio Garitanori (615 74 28 93) dei diezaiokete.

IRUDIREN ZOZKETA

Irudi erloju-dendak Gabonetan egindako zozketan 3.263 zenbakia izan da sarituta.

HERRIBUSAK, ASTEKO EGUN GUZTIETAN

Gabonak ezker, egunero dabil herribus zerbitzua. Ibilbide bakoitzeko txartelak 1,10 euro balio du, baina, kargatzeko txartelak erabiliz gero, 0,60 euro ordainduko du herritarrek ibilbide bakoitzeko. Argibideak: www.herribusa.com edo 943 76 59 42 telefonoa.

449 biztanle gutxiago azken hamarkadan

2001ean, 15.023 lagun ziren; 2011ko urtarrilaren 1ean, 14.574

EDU MENDIBIL | BERGARA

Orain dela 10 urte baino 449 biztanle gutxiago ditu Bergarak. Horixe Udaleko eroldaren datuek erakusten dutena. Mende berriaren hasieran 15.023 lagun bizi ziren Bergaran eta kopuru hori beheraka joan da urtetik urtera, 2011ko urtarrilaren 1ean zenbatutako 14.574 herritar kopurura iritsi arte.

Udalera jo dugu datu eske eta beherakada da hori urtetik urtera antzematen da, poliki-poliki bada ere: 15.053 biztanle 2002an; 15.044 (2003); 14.883 (2004); 14.879 (2005); 14.853 (2006); 14.823 (2007); 14.746 (2008); 14.707 (2009); eta 14.637 biztanle 2010ean.

Atzean geratu dira beraz 1970-80 datuak; garai hartan zegoen herritar gehien gure herrian. Urtetan udaletxeko langile izandako Lorentzo Laskurainen ara-

bera, 16.184 biztanle izatera iritsi zen Bergara 1980ko hamarkadaren hasieran, 83an. 1990eko hamarkadan 15.000 lagun bueltan izan ziren eroldako datuak. Aipatutako hamarkadan 1993an zenbatu ziren herritar gehien: 15.551. Ordutik behera egin du.

123 ume jaio ziren iaz

Iazko datuei dagokionez, jaiotako umeak 123 izan ziren eta bestalde 107 herritar hil ziren. Jaiotakoen artean, mutilak izan ziren nagusi: 70.

Hildakoei dagokionez, baliteke kopurua handiagoa izatea, Bergaratik kanpo hiltzen diren datuak beranduago iristen direlako udaletxera.

Bergarara bizitzera 314 lagun etorri ziren eta gure herritik alde egin zutenak 281 izan ziren, betiere Udaleko datuen arabera.



Biztanleei dagokionez, Debagoieneko bigarren herria da Bergara. | GOIENA

Astelehenetik aurrera derrigorrezkoa izango da 2012ko 'bertakoen' TAO txartela

E.M. | BERGARA

Erdiguneko zenbait kaletan denbora mugarik gabe aparkatzeko eskubidea duten herritarrek astelehenetik aurrera izan beharko dute 2012ko TAO pegatina. Herri barruan bizi diren 1.100 bat gidarik jasotzen dute aipatutako pegatina TAO guneetan aparkatu ahal izateko.

Ibargarai 2-14, Zurradero, Telesforo Aranzadi, Juan XXIII, Fraiskozuri, Irizar pasealekua, Bideberri eta Kruz Gallastegi TAO eremuak dira; astelehenetik aurrera, baimena erakutsi ezean, isuna jasotzeko arriskua dago.



Doako TAO sistema 2010eko irailean jarri zuten abian. | GOIENA

Ordutegi bera

Doako TAO sistema 2010ean jarri zuten abian eta ordutegi bera izango du aurten ere: astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 21:00etara, eta zapatuetan 09:00etatik 13:30etara. Lehen aipatutako kaleez gain, San Martin plaza, Oxirondo azokako aparkalekua eta Ibargaraiko lurpeko aparkalekua TAO eremuak dira; plazan 30 minutuz aparkatu ahal da; erdiguneko kaleetan 90 minutuz eta Ibargaraiko zein azoka pareko aparkalekuetan hiru orduz laga daiteke autoa TAO makinetan txartela ateraz gero. Denbora agortutakoan, ezingo da autoa beste TAO eremu batera mugitu hurrengo hiru orduetan; plazan aparkatzeak bakarrik ematen du aukera jarraian beste nonbaiten aparkatzeko.

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29


ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Bergaran ere sortu dute Zero Zabor taldea, informazioa zabaltzeko

Eguazten guztietan batzen dira, kultura etxean, eta edozein herritarri irekita egoten dira batzarrak

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA


Lurraldeko eta eskualdeko beste herri batzuetan bezala, Arrasaten eta Oñatin, esaterako, Bergaran ere sortu dute Zero Zabor taldea.

Zaborraren egungo kudeaketarekin kezkatuta dagoen herritar talde batek sortu du, eta hau xe diote: "Hondakinekin arazo bat dugula kontziente garen talde batek denbora daramagu gai potolo honen inguruan hausnartzen. Bergararrak arazo honen parte gara, baina zinez sinesten dugu konponbidean ere parte aktibo izango garela".

Bergarako Zero Zabor taldearen helburu nagusiak hauek dira: kontzientzia sortzea, informazioa zabaltzea eta hondakinen kudeaketa arduratsua bultzatzea.

Batzarrak eguaztenetan

Helburu horiek guztiak lortzeko, batzarrak egiten dituzte eguazteneko kultura etxean. Batzar irekiak izaten dira eta edozein herritar joan daiteke bertara. Oraingoan, bost lagunek osatzen dute taldea, baina espero dute pixkanaka-pixkanaka herritar gehiago elkartzen joatea; hauxe esan digu Amaia Osak, Bergara-



Imanol Biain. | GOIENA

ko Zero Zabor taldeko kideak: "Hemendik aurrera eguazteneko elkartuko gara kultura etxean eta gure asmoa da taldea handitzen joatea".

Hitzaldia hilaren 25ean

Lehen ekimen publiko bat iragarri dute, zaborren kudeaketaren gaineko berbaldia. Hilaren 25ean izango da, 19:00etan, Irizar jauregian. Hizlaria Imanol Biain Oñatiko Natur Eskolako biologo izango da eta Bergarako Zero Zabor taldeko kideek espero dute lehen hitzaldi horrek harrera

ona izatea herritarren artean eta pixkanaka-pixkanaka Zero Zabor filosofia herrian hedatzen joatea.

Zaborra guk sortu guk kudeatu da hitzaldiaren izenburua eta Biain biologoak esan digu bertan azken hamarkadan zaborraren kudeaketak izan duen bilakaera azaldu eta aztertuko dutela, gure eskualdean eta Gipuzkoa osoa orokorrean hartuta. "Kaleetan zabor-poltsak batu eta zaborte-gietara eramaten ziren garaietatik (duela 50-60 urte inguru) nola izan den bilakaera, bai zabor kopurua gorantz egin duelako eta beronen kudeaketak ere aldatuak izan dituelako", gaineratu digu Biainek.

Orain bi aukera dauzkagula adierazi digu: erraustegi bat egitearen aldeko eredu edo Zero Zabor filosofiarekin bat egiten duena. "Zero Zaborren, hau da, atez ateko sistemari alegia, herritarren parte hartzea bultzatzen da eta birziklatze kopuru handiak lortuz lehengaiak xahutzea ekiditen da. Horrela ez legoke erraustegi baten beharrik. Gogoratu behar da inork ez duela nahi erraustegi bat bere herrian edukitzea", azaldu digu Biainek.

Gurasoei zuzendutako hitzaldiak kultura etxean

A.T. | BERGARA

Udaleko Prebentzio Zerbitzuak gurasoei zuzendutako lau hitzaldi antolatu ditu, urtarrilerako eta otsailerako; gurasoendako antolatu dituzten prebentziorako informazio eta formazio programaren parte dira hitzaldiak. Pro-

gramaren asmoa da familiek egiten duten lan hezitzaile horri laguntza eta babesa ematea, seme-alaben heziketarekin zerikusia duten gaien inguruko hausnarketarako guneak bultzatuta.

Lehenengo hitzaldian, haurtzaroko oinarri sendoei buruz

jardungo dute, egunean, hilak 19, 18:00etan, kultura etxean. Hurrengoak hauek izango dira: *Dibortzio osasuntsu baterantz*, *Errespetuzko komunikazioa* eta *Jaterako ohituren garrantzia haurtzaroon*. Adituek egingo dituzte hitzaldiak.

Eman izena

Interesa duzuenok eman izena, hilaren 17a baino lehen, 943 77 91 26 telefonora deituta edota aloidi@bergara.net-era idatzita.

Saharara bidaltzeko jakiak batzen laguntzeko, ikasleen txanda heldu da

Hilaren 20ra arte batuko dituzte jakiak Bubisher elkarteko kideek, eta gero Saharara bidaliko dituzte otsail inguruan

A.T. | BERGARA

Gabonetan egin ohi duten moduan, aurten ere Bubisher elkarteak Sahararen aldeko janari bilketari ekin dio. Aurreko urteotan bezala, kanpainaren helburua hauek batzea da: egoskariak (lentejak, garbanzuak eta beste), pasta, olioak, azukrea, atun eta sardina latak, helduendako fardelak eta konpresak.

Janari bilketa

Herriko hainbat dendatan (Eroskin, Dian eta Super Amaran) eta beste hainbat janari komertzio txikitik hasi ziren jaki horiek batzen. Eta, oraingoan, kontaketa ofizialik egin ez duten arren, jaso dutenaren balorazio positiboa egin digu Bibi Anduezak, Bubisher elkarteko kideak: "Erantzuna nahiko ona izaten ari dela uste dugu. Lau egunean saltoki desberdinetan izan gara eta, behintzat, igarri dugu gu bertan egoten garenetan jendea gehiago animatzen dela eta badoala poliki-poliki kanpaina. Hala ere, esan beharra dago kanpaina amaitu arte eta kontaketa ofiziala egin arte ez daki-gula aurreko urtearekin alderatuta gehiago edo gutxiago jasoko dugun. Baina uste dugu orokorrean kanpaina erantzun ona izaten ari dela".

Ikastetxeen txanda

Herritar guztiek segitu ahal izango dute janari-dendetan euren laguntza uzten, baina orain bereziki etxeko txikien txanda heldu da. Gabonetako oporren bueltan eskoletan hasi direla-eta, eurei dagokie jakiak eta bestelakoak geletara eramatea, ondoren, jasotako guztia Saharara bidaltzeko. Horretarako aukera izango dute hilaren 20ra arte, eta herri hauetako ikastetxeetan batuko dituzte Sahararako jakiak eta bestelakoak: Bergara, Antzuola, Elgeta, Angiozar eta Sorraluzen. Anduezak azpimarratu digu garrantzitsua dela txiki eta gazteei hango egoera zein den azaltzea eta kontzientziatzea.

Bubisherkoek ekainean ere batu zituzten jakiak Sahararako kanpalekuetara bidaltzeko, eta orain batutakoak otsailen bidaliko dituzte. Gainera, urte osoan bi kontu korronte dituzte zabalik, dirua eman nahi dutenendako.

Eskerrak herritarrei

Anduezak eskerrak eman gura dizkie herritarrei: "Gu ahalegintzen gara jaki bilketa bideratzen, baina jendea da benetan laguntza ematen duena; herritarrei, eskerrik asko, lan txalogarria egiten dutelako".

Etxe-langileen araudi berriari buruzko jardunaldia



Eguna: Urtarrilak 17
Tokia: Bergarako Kultura Etxea
Ordua: 19:00

Dohainik eta interesaturik dagoen edonori irekia.

Antolatzailea:

AIERDI S.A.
Aholkulariak

Aurrez izena ematea eskertuko genuke:
Telefonoz: 943 76 03 50
E-mailez: aiardi@asesoriaierdi.com

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Zorionak

Aitziber, etxekoan partetik!





Eskiatzaileak mendian gora. | POL-POL

Pol-Polek mendi eski irteerarekin estreinatuko du egutegi berria

X.U. | BERGARA

Pol-Polekoek proposatuta anizmatzen diren mendizaleak Zurizara joango dira urtarrilaren 21eko eta 22ko asteburuan, mendiko eskia egitera. Hori izango da mendi taldetik 2012ko egutegira begira prestatu duten lehen irteera –guztira 4 mendi eski irteera egingo dituzte.

Irteera horretan, zapatuan Atxeritora (2.378 m) igotzeko asmoa dute, eta domekan Chinebral de Gamuetara (2.329). Irteera horretan izena emateko azken eguna urtarrilaren 17a da, martitzena, eta egun berean batzarra egingo dute irteeraren gainean berba egiteko. Besteak beste, elur eskasiagatik irteera

aldatzeko egon daitekeen aukeraz egingo dute berba; horrenbestez, batzarrera joatea gomentatzen dute (19:00etan, Pol-Poleko bulegoan).

Kontuan hartzekoak

Mendi eskiko irteera horietan parte hartzeko hainbat gauza izan beharko dira garbi: taldean egiteko irteerak izango dira, ez lasterketak, eta inor ez da bakarrik geldituko mendian; eskiatzen jakitea beharrezkoa izango da, ondo biratzen jakitea; jendeak material egokia eraman beharko du, eta derrigorrezkoa izango da federatuta egotea. Informazio gehiago jasotzeko, jo bulegora.

Mugurutzak aurrera egin du Soraluze sarian

Martitzenean jokaturako kanporaketan Bergarakoak 12-22 irabazi zion Jauregiri

X.U. | BERGARA

Martitzenean jokatu zuten Soraluze sariako lau 7'erdiko txapelketako kanporaketa, eta Bergarako ordezkarietako baten txanda izan zen, Ander Mugurutzarena. Hala, Bergarakoak ez zuen kalerik egin, eta Jauregiri 12-22 irabazita aurrera egin du kanporaketan. Gainontzeko partiduetan, Quina eta Urbietarena izan zen parekatuena, tanto bakarrek aldeaz

gailendu zen-eta Urbietara (21-22). Jakak, azkenik, 22-14 irabazi zion Bendoirori.

Martitzenean, gehiago

Datorren martitzenean jokaturako dituzte (19:15) hurrengo kanporaketak. Lehenengo partiduan Artola eta Antsoategi izango dira, Etxaniz eta Andreu hurrengoan eta arratsaldeko azken partiduan Albaradok eta Elezkanok jokaturako dute.

Txingudiko badiatik dominaz beteta itzuli ziren Beti Bustikoak

Urrezko hiru domina, zilarrezko lau eta brontzezko bat ekarri zituzten Irunen egindako txapelketatik

XABIER URTZELAI | BERGARA

Gipuzkoa osoko 66 piraguistak hartu zuten esku Irunen, Txingudiko badiatik, egindako txapelketan. Bergaratik hiru emakumezko eta lau gizonezko egon ziren, eta etxean dagoen maila ona erakutsi zuten, zortzi domina ekarri zituzten-eta, horietako hiru urrezkoak. Bistan da Gabonek ez dutela etxekoengan eragin handirik izan.

Maila probintzian prestaketa ona eginda, Beti Bustikoak egoera ezin hobean daude gertu hasiko dituzten estatu mailako txapelketetan esku hartzeko: "Espainiako promozio kopa jokatzen hasiko dira hilabete batzuk aurrerago, eta klubeko nagusiek otsailean hasiko dituzte Euskal Herriko eta Espainiako txapelketak".

Irungo emaitzak

Hauek dira Beti Bustiko zazpikoteak Irunen lortutako emaitzak. Emakumezkoen dagokienez, infantil B mailan Leire Ugalde hirugarren izan zen K-1 kategorian. B mailako infantiletan Aitziber Iturriaga laugarren izan zen K-1 mailan, eta bigarren C-1 kategorian. Alebinetan Miren Murgizu lehenengo postuan sailkatu zen, urrea irabazita K-1 mailan, eta C-1 mailan ere beste horrenbeste egin zuen.

Gizonezkoetan ere Beti Bustikoek lan oso ona egin zuten: Mikel Zubizarretak urrea irabazi zuen alebin mailako K-1 mailan; Javier del Rey infantiletan bigarren izan zen K-1en; Unai Otadui alebin mailan hartu zuen esku, eta zilarra irabazi zuen K-1en; eta azkenik, Iker Manso bosgarren izan zen alebin mailako K-1en. Emaitza horiekin batera Iker Manso eta Mikel Zubizarreta C-2 mailan ere lehiatu ziren, bigarren postuan sailkatuta.



Begarako piraguista, ur-bizietan egindako erretratuan. | BETI-BUSTI

ESANAK

"Otsaileko hitzorduetarako maila onean daude gazteak"

JULIAN UGALDE | BETI BUSTI

Euskal Herriko eta Espainiako txapelketarako prestaketan dihardute piraguistek

Intxaurrondo eta Iraurgi, onenak

Gabonetako infantil mailako II. Bolintxo txapelketa oso arrakastatsua izan da, eta antolatzaileak hasi dira dagoeneko datorren urteko edizioan pentsatzen. Gizonezkoen mailan Inter Intxaurrondokoak nagusitu ziren; emakumezkoetan, berriz, Iraurgikoak izan ziren onenak. Argazkiak, bergarake.com-en.





Aroztegi aretoan ikusgai egongo den Nekane Lazkanoren argazkietako bat. | NEKANE LAZKANO

Garun-paralisia argazkitan, topikoak alde batera utzita

Nekane Lazkano bergararrak 24 argazki ipini ditu ikusgai Aroztegi aretoan

EDU MENDIBIL | BERGARA

Nekane Lazkano artista bergararrak garun-paralisiaren gaineko argazki erakusketa irekiko du gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan.

Joan den udan Bergarako Aspacen ateratako 24 argazki izango dira ikusgai. Aspacen dauden alde positiboa nabarmendu nahi izan du argazkilari bergararrak.

Naturaltasunaren erakusle

Topikoetatik urruntzen eta ikusleei ikuspuntu ezberdin bat eskaintzen ahalegindu dela diosku: "Aspacekoekin bizi izandako esperientziak argi utzi zidan zerbait ederra zirela. Edertasuna euren ilusioan eta bizi-gogoan datza. Ez dago gezurrik erakusten duten irribarre eta begiradan. Nire lana zera izan da: kameraren leihatilatxotik begiratu, irribarre bat

ikusitu eta irudi lortu. Protagonistena berriz, euren naturaltasuna erakustea, besterik ez".

Hilaren 29ra arte zabalik

Erakusketa urtarrilaren 29ra egongo da ikusgai: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan goizez bakarrik, 12:00etatik 14:00etara.

Udal Musika bandaren kontzertua, DJ jaialdia eta antzerkia urtarrilean

A.B. | BERGARA

Urtarrilerako, haur, gazte eta nagusiendako kultura eskaintza polita antolatu du Udalak. Gaztetxoenei dagokienez, hilaren 21ean dantza egiteko aukera izango dute DJ jaialdiarekin Zabalotegin. Dantzaldia, beti bezala, 18:30etik 21:30era izango da.

Haur eta helduentzat antzerkia

Antzerkiaz gozatzeko aukera ere izango da hil honetan. Urtarrilaren 27an Glu-glu taldeak *La Lechuga* helduendako lana antzertuko du Zabalotegin, 22:00etan. Sarrera bost euro ordaindu behar da. Horrez gain, hilaren 28an 3 eta 7 urte bitarteko umeenda-

ko *Beltzitina* antzezlanaren taularatu du Panta Rhel taldeak, 18:00etan. Sarrera hiru euro izango da.

Bergarako Udal Musika Banda ere bada urtarrileko kultura gidaren protagonistetako bat. Kontzertua eskainiko dute urtarrilaren 22an Udal Pilotalekuan, 12:30ean.

Kirol hitzordu garrantzitsu bat ere izango da hilaren 29an: eskola arteko igeriketa liga Agorrosin igerilekuan.

AEBetatik eta Iparraldetik ere iritsi dira amodiozko gutunak

A.B. | BERGARA

Pasa den astean amaitu zen Jardun euskara elkarteak antolatzen duen Amodiozko Gutunen Lehiaketan izena emateko epea. Aurtengoa 20. edizioa izango da eta argi dago deialdiak urtetik urtera gero eta arrakasta handiagoa duela. Aurten 65 gutun jaso dituzte -pasa den urtean baino 9 gehiago-, eta batzuk, gainera, urrutitik iritsi dira. Gipuzkoakoak dira 47 gutun -18 Bergarakoak eta 21 Debagoienekoak-, Bizkaikoak 8, Arabakoak 2, Nafarroakoak 3 eta Iparraldekoa beste bat. Horrez gain, atlantikoaren beste aldetik, Boisetik, hiru gutun iritsi dira eta New Yorketik bat.

Orain, epaimahaiak erabaki behar du sariak nori eman. Urtero, literatura eta kultura inguruko pertsona ezagunez osatuta egoten da epaimahaia eta aurten ere halaxe izango da: Andoni Tolosa, Oihane Perea, Peio Añorga eta pasa den urteko irabazle Idoia Galanek izango dute irabazleak aukeratzeko ardura. Horrez gain, epaimahai gaztea osatuko dute Aranzadi ikastolako Maialen Marauri eta Irantz Casanellas ikasleek eta Ipintza institutuko Maitane Mujika eta Laura Axpek.

Sari banaketa, beti bezala, otsailaren 14an izango da, San Balentin egunean, kultura etxean 19:30ean.



Anton Arrillaga eta Jose Mari Larrañaga, margolanekin. | A.BARRUSO


Arrillaga eta Larrañagaren lanak ikusgai Nahikarin, gaurtik aurrera

A.B. | BERGARA

Elgoibartarrak izanda ere, urte asko daramatzate Bergaran bizi izaten eta bien zaletasuna margotzea izan da betidanik. Hori horrela, Jose Mari Larrañagak eta Anton Arrillagak erabaki dute erakusketa egitea elkarrekin. Gaur, egubakoitza, inauguratuko dute, Nahikari tabernan. "18

lan inguru ipiniko ditugu ikusgai; olio, tenperak, plumillak... denetik egongo da", kontatu digute. "Erroka handia da gure lanak jendaurrean erakustea, baina ilusio handiarekin egiten dugu".

19:30ean lancha eginda irekiko dute hilaren 31ra arte zabalik egongo den erakusketa.



Gabonen ostan berreskuratu zure silueta!

Etor zaituz, konpromiso barik, azterketa morfologiko bat egingo dizugu eta horren arabera programa nutrietikoa eta gorputz tratamendua gomendatuko dizugu.

20, 30 edo 40 eguneko plana

Gal itzazu kiloak, behar duzun lekuan bakarrik!

LILURA
EDERTZE INSTITUTUA

Guadalupe Garcia
Mikropigmentazioan espezialista.
Nº 1793

Etor zaituz eta informa zaituz konpromiso barik!

Bidekurutzeta 7 1 a. 20570 • Bergara • Tel.: 943 76 31 71
lilura@lilura.com • www.lilura.com

Gorputz tratamenduan

%20ko
bonifikazioa!

Eskaintza baliagarria
otsailaren 10era arte.



San Martin guneko 6., 7. eta 8. bebarruak egiten dihardute oraindik. Udaberrian egingo dute zozketa. | MIREIA BIKUÑA

Kupo berezia bi logelako etxeekin

San Martinen etxe gehiago egiteko baldintzak ikusgai

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

San Martingo 6., 7. eta 8. bebarruetan eraikitzen diharduten babes ofizialeko etxeen zozketa arautuko duten oinarriak ikusgai daude. Abenduko osokoan behin-behineko onartu zituzten. 39 etxe egingo dituzte: 31 hiru logelakoak eta zortzi bi logelakoak; tartean, elbarriandako egokitu-tako bi etxeak.

Babes ofizialeko etxeen zozketa arautuko duten baldintzetako berrikuntza bakarra bi logelako etxea gura duten eskatzaileekin egingo duten kupoa da. Etxe txikiagoak gura dituzten artean sei etxe zozketatuko dituzte. Kupo horretako zozketan etxe barik geratzen direnak, kupo orokorrean sartuko dira.

Udalak aurrerago zabalduko du bi logelako etxea gura dute-

nendako izen-emate epea. Aurretik, alegazioak aurkezteko epea itxi, osokoan baldintzak behin betikoz onartu eta Etxebidek eskatzaileen zerrendak bidali beharko ditu.

Udaletik esan digutenez, zozketa udaberri aldera egingo dute, betiere, aurretik aipatutako epe guztiak betetzen badira.

DATUA
39
ETXEBIZITZA
Horiek dira San Martin 6., 7. eta 8. bebarruetan egiten diharduten etxeak.

Baldintzak

San Martinen egiten diharduten 39 etxeen zozketan parte hartu ahal izango dute 2011ko abenduaren 1a baino lehen Etxebiden izena emanda eta Oñatin bi urte lehenagotik errolatuta daudenak. Dena den, mugikortasun arazoak dituztenek ez dute errolaren baldintza derrigorrez bete behar, baina oñatiarrek izango dute lehen-tasuna. 2010eko diru-sarrerak hartuko dituzte aintzat.

Lau kupo

Lau kupotan banatuko dituzte eskatzaileak: mugikortasun arazoak dituztenak (bi etxe), familia ugariak (bi etxe), bi logelako etxea gura dutenak (sei etxe) eta kupo orokorra (29 etxe). Etxearekin batera garajea eta trastelekua erosi beharko dira.

Lapurretak direla-eta "zuhurtziaz jokatzeari" eskatu du Udalak

M.B. | OÑATI

Azken bi hilabeteetan lapurreta asko izan dira Oñatin, eta horrek egoneza sortu du herritarrengan. Udalak lasaitasun mezua helarazi gura die: "Segurtasuna handitzeko protokoloa abian ipini dugu. Ertzaintzak kontrola egiten dihardu herri sarreretan. Herrian patruila gehiago egoteko eskaera ere egin dugu. Hori horrela, lasaitasunaz eta zuhurtziaz jokatzeari eskatu gura dut", esan digu Mikel Biain alkateak.

abenduan egon da. "Bi hilabeteetan bederatzi salaketa jaso ditugu. Inguruko herrietan baino salaketa gutxiago, baina Oñati bezalako herri lasai baterako asko dira", dio Biainek. Egoera hori dela eta, neurriak hartzea aholkatzen dute: giltzari bi buelta eman, buzoiak hustu...

Lapurretaren bat edo saikeraren bat dagoenean salaketa ipintzea eskatu dute udal arduradunek, eta zer edo zer susmagarria ikusten denean, Udaltzaingoiari abisua ematea.

Igoera azaroan eta abenduan

Udaltzaingoiak emandako azken datuen arabera, 2011n lapurretengatik 18 salaketa jaso zituzten, 2010ean baino zazpi gehiago (11 egon ziren). Urrira arte, aldeketa ez zen oso nabarmena. Igoera handiena azaroan eta

Buzoietak markak

Hainbat herritarren buzoietan markak agertu dira: koloretako errotuladoreekin edo giltzarekin egindakoak. "Marka batzuk lapurrek egindakoak izango dira, baina beste batzuk, agian, ez", esan digu alkateak.



Buzoia X-rekin markatuta. | M. BIKUÑA



Buzoia marka gorriarekin. | O. ELORTZA



GERARDO PLAZAOLA

Saskia Enrike Zabaletarendako

Oñatiko presoen senideek Gabonetako saskia zozketatu zuten abenduaren 26an. Zerbaki saritua 1.254 izan zen, eta sariduna Enrike Zabaleta. Hark jaso zuen oparia Arrano elkartearen: urdaiazpikoa, turroia, ardoa, gazta, patxarana, pastak, txorizoa... Oñatiko presoen senideek eskerrak eman gura dizkiete txartelak saldu eta erosi zituzten herritar guztiei.

Maribel Mendibasok asmatu zuen prezio zehatza

1.938,10 euro. Horixe da Txandak Kale Barrian ipini duen erakusleihoaren prezio zehatza. 8.000 txartel entregatu dituzte eta horien artean Maribel Mendibaso hurbildu da gehien: 1.938 euro zela ipini zuen. Eguaztenean jaso zituen erakusleihoko gauzak Txandako ordezkarien eskutik. Zorionak!



MIREIA BIKUÑA

Astelehenetan hartuko dituzte eski irteeretakako izenak Aloña tabernan

Urtarriletik martxora hiru irteera egingo dituzte Baqueirara; Pazko Astekoa zalantzan dute

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Gabonak bukatuta, kirol zuriaren txanda da orain. Askok Gabone-tako oporrak aprobetxatu dituzte eskiatzera joateko. Oraindik eskien gainean ipini ez direnek, Aloña Mendi elkarteko eski sailak antolatzen dituen irteeratan parte hartu ahal izango dute. Urtarriletik martxora arte aste bukaerako hiru irteera egingo dituzte Baqueirara: bi eskiatzera, eta hirugarrena, zeharkaldiko eskia egitera.

Dagoeneko izena emateko epea zabaldu dute. Hilaren 9an hasi ziren, eta astelehenero, Aloña Mendi tabernan egongo dira (19:00-20:00) izenak hartzen edo informazioa banatzen.

Aste bukaerako hiru

Lehen irteera hilaren 27tik 29ra egingo dute; bigarrena otsailaren 24tik 26ra; eta hirugarrena martxoan. Azken horretarako ez dute datarik zehaztu. Baina eski sailekoek aurreratu dute zeharkaldiko eski ikastaroak hiru maila izango dituela: hasierakoa, ertaina eta aurreratua. Hirurak Baqueiran egingo dituzte, eta hotelean hartuko dute ostatu. Prezioak ez dituzte zehaztu.



Lagun koadrila Baqueiran eskiatzan. | LEIRE GUENETXEA

Forfaitak merkeago

Denboraldia amaitzeko aste oso irteera egin izan dute eski sailekoak: Alpeetara eta Pazko Astean. Aurten, bada, ez dute egunik eta lekurik zehaztu. "Elur-raren bilakaera ikusi beharko dugu. Pazko Astea apirilaren 9an

hasten da, eta akaso ez da elur asko egongo", esan digute.

Bestalde, Aloña Mendiko eski sailak Aragoiko estazioekin duen akordioari esker, leihatilan baino merkeago erosi ahal izango dira forfaitak Oñatin bertan: Mendizabal kirol-dendan.

Emakumeendako ikastaroak antolatu ditu Berdintasun Sailak

M.B. | OÑATI

Udal Berdintasun Sailak emakumeendako ikastaroak antolatu asmo ditu. Martxoan hastekotan dira, eta oraingoz izena emateko deialdia egin dute. Interesa duten emakumeek Bidebarrietako zerbitzura dei dezakete hilaren 12tik 30era (943 03 77 00 telefonora),

informazioa eskatzeko edo izena emateko. Ondoren, sortzen diren talde kopuruaren arabera, ikastaroen ordutegiak eta egunak zehaztuko dituzte.

Hiru talde osatzeko asmoa

Berdintasun Sailaren asmoa da bederatzi saioko ikastaroak egitea,

astean ordu eta erdiko eskolak emanda. Hiru talde sortzeko asmoa dute: azken urteotan autoestimua ikastaroa lantzen ibili direnekin, hastapeneko autoestimua ikastaroan parte hartzeko izena ematen dutenekin, eta bikote harremanen gaineko ikastarokoekin. Azken horretan, dependentzia emozionala, harreman osasuntsua, tratua onak, tratu txarrak eta beste jorratuko dituzte.

Talde bakoitzean, gehienez, 15 emakume onartuko dituzte.

40 lagun baino gehiago argazkigintza ikastaroan

M.B. | OÑATI

Ilunpetan argazki taldeak Udal Kultura Sailaren bidez antolatatu duen argazkigintza ikastaroak erantzun zabala izan du herritarren artean. 40 lagun baino gehiagok eman dute izena, eta oraindik epea ez dute itxi: hilaren 16ra arte egin daiteke 50 euro ordainduta. "18 lagunendako ikastaroa zen, baina erantzuna ikusita bi edo hiru talde egi-tea aurreikusten dugu. Hasieran, esan genuen zozketa bidez osatuko genuela taldea, baina orain talde gehiago egingo ditugu", esan digu Itziar Bastarrika irakasleak.

Ikastaroa martitzenetan, 18:00etatik 20:00etara, egitekoak ziren, baina talde kopuruaren arabera egun gehiago zehaztuko dituzte. Iraupena ez da aldatzen: bi orduko hamar saio egingo dituzte.

Analogikoa ere bai

Ikastaroaren helburua argazkigintzaren hastapenak lantzea da, era teoriko eta praktikoa. "Etxean daukagun argazki kameraren funtzionamendua landuko dugu: botoi bakoitzak zertarako balio duen; automatikoa ez dagoenean, kamera nola erabili...", dio Bastarrikak.

Batez ere, digitalizazioa landuko dute, baina ikasleen artean interesik badago argazkigintza analogikoa ere aztertuko dute.

BETERANUAK

EMAITZAK "A" TALDEA

Kalañatasaray-Txuskos	8-1
Albok-Paketinaikos	5-0
Nandrolona-Dollygans	0-2
Etxaixat-Lozorromo	2-3

SAILKAPENA "A" TALDEA

TALDEA	P	J
1 Kalañatasaray	12	5
2 Dollygans	10	4
3 Etxaixat	10	5
4 Albok	9	5
5 Lozorromo	7	4
6 Txarrixak	7	4
7 Nandrolona	3	5
8 Txuskos	0	4
9 Paketinaikos	0	4

SAILKAPENA "B" TALDEA

TALDEA	P	J
1 Xaguxar	9	4
2 Zorrobero	7	4
3 Gibel Boys	7	4
4 Indar 85	7	4
5 Joxely	6	4
6 Bundeswehr	4	4
7 Sasquatch	3	4
8 Ankarteko	1	4

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

B TALDEA, 5. jardunaldia

Zapateria 13:00 Joxely-Indar 85

Zapateria 14:30 Zorrobero-Bundeswehr

Zapateria 18:30 Gibel Boys-Sasquatch

Zapateria 20:00 Xaguxar-Ankarteko

Arduraduna: Txarrixak

Atzeratutako partidua

B multzoko taldeek urteko lehen jardunaldia jokatu dute aste bukaeran. Sailkapena begiratu, partidua parekatuena lehen izango da: Joxely eta Indar 85ek jokatu dutena. Liderrak ez luke arazorik izan behar lehen lekuan jarraitzeko: azkenaren kontra jokatu du.

Belceblues bergarrek euren azken lana aurkeztuko dute Antton tabernan, gaur, 20:00etan

Belceblues bergarrek kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, Antton tabernan 20:00etan. Bluesa oinarri hartuta egingo duten emanaldian, taldearen azken diskoa aurkeztuko dute: *Diabolus in musika* delakoa. Asier Elortza, Ibon Larrañaga eta Oihan Vegak osatzen dute taldea. Musika beltza eta zuriaren ezaugarriak nahasten dituztela eta zuzenekoan euskaraz eta ingelesez abesten dute. Gainera, blues munduan errege izan direnen bertsiok joko dituzte; besteak beste, Steve Ray Vaughan, Jimmy Hendrix eta Jeff Healeyren moldaketak. *Diabolus in musika* taldearen bigarren lana da -aurretik *Infer* grabatu zuten- eta "helduagoa eta garatuagoa" dela diote protagonistek.

AGURTZANE
ile apaindegia

ZABALDU
BERRIA

Euskadi etorbidea 8 - Oñati
Tel.: 943 53 45 44.

ESKAINZA BEREZIA
URTARRILA ETA OTSAILA

ostegunetan
garbitu eta orraztu

12€

KIWI EKOLOGIKOEN SALMENTA

Banaketa pertsonalizatua

10 kilo 10 euro

Arrazola baserria • Olabarrieta auzoa • Oñati • 670 24 01 69

Osasun etxe berririk ez du egingo Osakidetzak; oraingoz, behintzat

Proiektua 2011. urtean egitea aurreikusten zen, baina Osakidetzak jakinarazi du ez duela dirurik

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Iaz martxoan iragarri zuten udal agintariek 200.000 euroko partida gordea zuela Osakidetzak Aretxabaletako osasun etxe berriaren proiektua egiteko. Asmoa hori zen, baina ez da gauzatu, Ana Bolinaga alkateak argitu duen moduan: "Osakidetzako ardura dunek esan digute ez zegoela 2011rako proiekturik. Agian, 2012an egongo da proiektu bat, baina ikusi egin behar...; izan ere, eurek, Osakidetzako ordezkariak ere ez dakitela adierazi digute, ez dagoelako dirurik".

Basotxorendako irtenbidea

Asmoa zen Basotxo erretiratuen elkarteak egoitza duen eraikina ematea Osakidetzari bertan jar zezan osasun etxe berria. "Eta debalde eman ez gero behar bada lehentasuna ezarriko diotela proiektu horri esan digute", argitu du alkateak.

Baina orduan beste kezka bat sortuko litzateke: nora eroan Basotxo? "400.000 eurotik gora beharko lirateke Basotxo berria egiteko eta ezin dugu. Horregatik, Basotxorendako irtenbideren bat topatu ezean ezin dugu osasun etxe berririk egin egoitza hartan", azaldu du alkateak. Horri konponbidea topatu guran urtero 50.000 euro gordeko dituztela udal aurrekontuan iragarri du Bolinagak, "etorkizunean Basotxo berria eraiki ahal izateko". Eta erretiratuendako kokapen egokia Zainduz gimnasioa izan daitekeela aurreratu du.



Errekabarren kalean dagoen osasun etxea. | M.A.

Kurtzebarri eskolako proiektua, aurrera

Atzerapenarekin bada ere, aurrera doa Kurtzebarri eskola handitzearen proiektua, "eta ez da izan Udalaren asmoa atzeratzea, Hezkuntza Sailetik esandako moduan", dio alkateak. Hain zuzen, proiektu hori egiten dabilela Hezkuntza Saila argitu du, eta seguru asko, otsail ingururako izango dela gertu. Behin proiektua egin eta onartutakoan, "garrantzitsua delako proiektua segurtasuna bermatzeko", obra-baimena emango du Udalak, eta orduan lanak hasteko moduan egongo dira. Hala ere, datarik ez daki alkateak.

Zerbitzu berririk ez

Errekabarren kalean dagoen osasun etxea bisitatu dute oraintsu Osakidetzako ordezkari batzuek, eta "ez dute aparteko beharrik atzeman". "Behar zehatz batzuk badaudela langileen lanarekin lotuta aipatu zuten, baina ez erabiltzaileei begira", dio alkateak.

Osasun etxe berria eginda ere Osakidetzako ordezkariak argi utzi zuten, zerbitzu berririk ez dutela eskainiko. Bestalde, Udala gertu azaldu da Zainduz gimnasioa uzteko ginekologia zerbitzurako eta haurdunen gimnasia-tarako, baina Osakidetzak ez du zerbitzua banatu gura.

Bi enpresa aurkeztu dira kiroldegi berria kudeatzeko lehiaketara

Goiena Sport da bata; LKS, Athlon eta Ondoan enpresek bat eginda aurkeztutakoa bestea

M.A. | ARETXABALETA

Martitzenean bukatu zen kiroldegi berria kudeatzeko lehiaketara aurkezteko epea eta bi eskaintza jaso dituzte udaletxean; biak Debagoienekoak: bata, Goiena Sport, azken urteotan Aretxabaletan kirol jardueren ardura izan duen enpresa; eta bestea, hiru enpresak bat eginda aurkeztu duten proposamena: LKS, Athlon eta Ondoan.

Eskaintzen azterketa mahaia

Datorren astean eskaintzak aztertzea mahaia osatuko dute udal ordezkariak. Hiru ardura-dun politiko izango dira bertan: Ana Bolinaga alkatea, Tomas Fernandez Kirol zinegotzia eta Olaia Sagredo Berdintasun

zinegotzia. Eta hiru teknikari: idazkaria, diruzaina eta idazkari lanak egingo dituen Asier Muxika Kirol teknikaria. Eskaintzak aztertu ostean hartuko du erabakia mahai horrek, eta ondoren osoko bilkuran aurkeztuko dute proposamena, eztabaidatu eta onartzeko.

Kudeaketa integrala

Kudeaketa integrala izan arren mistoarekin beteko liratekeen helburuak lortu gura ditu Udalak. Hala, bailarakoei eman diete aukera esperientziarik izan ez arren; eta langabeak kontratatzearen alde egin dute, formazioa, langabeziaren iraupena eta marjinaltasuna kontuan hartuta oinarrietan.

Autobusen ibilbide eta geltoki berriekin ados daude herritarrak

M.A. | ARETXABALETA

Urtarrilaren 2az geroztik ibilbide berria dute Arrasatetik Eskoriatzarantz doazen autobusek, eta hainbat geltoki ere aldatuta daude. Horren arrazoiak azaldu zituen alkateak abenduan: "Bi helburu bete gura ditugu: batetik, herria hiru eremutan banatuz gero, hiruretan izatea geltokia; eta bestetik, Loramendi kaleko zirkulazioa banatzea". Eta herritarrak konforme dira aldaketa horiekin; izan ere, ez dute kexarik jaso udaletxean.

Eskoriatzara doazen autobusak herriaren erditik pasatzen

dira orain: Otalora kaletik Errekabarrenera eta Belorrietako biribilgunetik bueltan Araba ibilbidera. Asmoa hori bazen ere, egunotan ikusi da autobusak ez dutela ibilbide hori zehatz betetzen, Belorrietako biribilgunean aurrera egiten dute eta Loramendi kaletik. Udalak Pesa konpainiari jakinarazi dio adostutakoa ez dabilzala zuzen betetzen.

Hainbat geltoki ere berriak dira: Otalora kalean, kuarter zaharraren parean; Errekabarren kalean, osasun etxearen aurrean; eta Loramendi kalean.

Bihar hasiko dute liga Arrasate-Arlutz xake taldeko kideek

Bihar, hilak 14, hasiko da xake denboraldia. Iaz legez, arrasatearrek eta aretxabaletarrek elkarrekin jokatu dute Arrasate-Arlutz taldean, eta lau talde egin dituzte hainbat mailatan jarduteko.

Euskal Ligako B mailako taldeak Fomento Culturalen aurka jokatu du bihar, Errenterian. Etxeko partidak, ostera, Aretxabaletan jokatu dute. Gainerako hiru taldeek Gipuzkoako ligetan jardungo dute: preferentekoak, Billabonaren aurka; lehenengo mailakoak, Legazpiren aurka; eta bigarren mailakoak, Elgoibarren aurka. Partida guztiak dira kanpoan.

Web ataria aurkeztuko du UDAk gaur (19:30), Durana kalean

Aretxabaleta kirol elkarteak badu webgunea: www.udaretxabaleta.com. Dagoeneko abian da eta gaur, egubakoitza, (19:30) aurkeztu egingo dute Durana kalean -udaletxe zaharraren aurrean.

Kirol elkarteak talde txoa osatu du, web ataria egin, eguneratu eta albisteekin elikatze asmoarekin. Hala, aste bukaeratako futbol partiduen emaitzak jasoko dituzte, eta horietako hainbati jarraipena ere egingo diete.

Futbolaz gain, UDA barruan dauden beste sailen gaineko argibideak ere jaso dituzte, eta horien berri ematen segituko dute.

OHARRAK

ZINEMA: 'LA VOZ DORMIDA' ETA 'ARTHUR CHRISTMAS'

Helduek gerra osteko kontuak izango dituzte Benito Zambranok zuzendutako *La voz dormida* filmean gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00). Umeek, ostera, *Arthur Christmas: operación regalo* bihar eta etzi (17:00).

Eta datorren egunean, hilak 19, *Miel* film turkiarra eskainiko dute zineklubean (19:30).

ESKOLA AGENDA 21 BILERA

Kurtzebarri eskolako ikasleen ordezkariak udal ordezkariekin elkartzeko dira Eskola Agenda 21 barruan iazko ikasturtean landutako gaien erantzunak jasotzeko. Martitzenean, hilak 17, da bilera, udaletxean (11:30).



M.A.

Puri Aldaik jaso du otzara ederra

Aretxarte merkatarien elkarteak zozketatutako otzara, 1.000 eurotan balioztatua, Puri Aldai aretxabaletarrek jaso du. Gemes edertze aretoko kideek eman zioten zenbaki saritua -130.136- eta saria bera. Otzara ederra benetan, denetik du-eta: jatekoa eta edatekoa -hiru gazta, langostinoak, whiskya...-, arropa eta oinetakoak -alkandora, eteko zapatilak...-, erlojua, aterkia, txakurrarendako besaulkia...



Askotariko margolanak ditu Gilsanzek. | MIRARI ALTUBE

Begoña Gilsanzen 24 artelan daude ikusgai Arkupen, hil amaierara arte

Bilbotarrak 2005a ezkerro egindako olioak eta akuarela bat ekarri ditu

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Begoña Gilsanz bilbotarraren artelanak ikus daitezke urtarrilaren 31era arte Arkupeneko erakusketa gelan. Honako ordutegian bisitatu ahal da erakusketa: astelehenean egubakoitzera 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara eta zapatuetan 11:00etatik 13:00etara.

Gilsanzek 24 margolan ekarri ditu Aretxabaletara: 23 olio eta akuarela bakarra. Horren harira, jakinarazi digu 2005etik hona egin dituela pinturok, eta askotariko gaiak jorratzen dituzten lanak ekartzen saiatu dela. Hona-

koa esan du: "Denetarik ekarri dut: abstraktuak, figuratiboak, paisaiak eta erretratuak, besteak beste".

Bada, lehen aldiz erakusten ditu lanak Aretxabaletan; Eskoriatzan joan den urtean izan zen. Azaldu du lagunak dituela herrian, eta haiei esker izan duela Arkupen jartzen dituzten erakusketen berri.

Terapia moduan

Hamar urte pasatxo darama bilbotarrak margotzen. Bere ibilbidearen hasiera gogorarazi digu: "Betidanik izan dut margotzeko

gogoia, baina, era berean, beldurra ere ematen zidan. Azkenean, 2001. urtean hasi nintzen, lanerako ezintasuna eman zidatenean. Terapia moduan hartu nuen, eta, egia esan, asko lagundu dit. Oso gustura egiten dut".

Ordutik hona 50 lan inguru egin ditu; gehienak olioak badiara ere, akuarela, akriliko eta ikatz-marrazkiekin ere egin duela lan adierazi digu. Gaiari dagokionez, bereziki, argazkietan oinarritzen dela esan digu. Askok bidaiatu duela eta bidaia horietatik ideia asko ateratu dituela dio.

Aratusteetarako kartelak aurkez daitezke

Lanak martitzena, hilak 17, baino lehen eroan behar dira Arkupera

M.B. | ARETXABALETA

Aratusteak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du Udaleko Kultura Sailak. Kartelak martitzena (14:00) baino lehen aurkeztu behar dira, Arkupen. Kartelarekin batera kartazal itxi bat aurkeztu beharko da ezizenarekin, barruan datu hauek dituela: izen

-abizenak, adina, helbidea eta telefono zenbakia.

300 euroko saria

Lehiaketan edozeinek har dezake parte, eta teknika librea izango da. Neurriari dagokionez, papelean aurkeztuz gero 50x70 zentimetro izango ditu; digitalean

eroaten bada, DIN-A3n aurkeztu ahal izango da. Kartelak derri gorrez *Aratusteak Aretxabaletan 2012* testua izan beharko du.

Epaimahaia kultura batzordeko kideek eta hainbat herritarrek osatuko dute eta erabakia hilaren 18an jakinaraziko da. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du.

Domeka arratsaldeetan ere zabalik izango da ludoteka, negu partean, 8 eta 12 urte artekoendako

Domekan, hilak 15, hasi eta martxoaren 25a artean domeka arratsalde guztietan (17:00-19:00) zabalduko dute Algara ludoteka; 8 eta 12 urte arteko gaztetxoendako egongo da zabalik.

Hainbat ekintza egiteko aukera eskainiko diete ludotekako hezitzaileek gaztetxoek; baina ez hori bakarrik, ateak zabalik izango dituzte beste barik bertan egon gura dutenendako: lagun artean kontu kontari egiteko; karta jokoan jarduteko; lagun berriak egiteko... Hau da, neguko domeka arratsalde euritsu eta hotzak leku babestuan eta giro atseginetan pasatzeko.

Loramendi elkarteak dinamizatzailea gura du, eta eskaerak aurkezteko epea zabalik dago

Loramendi elkarteak dinamizatzaile postua bete gura du, aretxabaletarrekin batera euskararen erabilera sustatzeko ekimenak dinamizatzeko. Horretarako eskatzen dutena da euskalgintza ezagutzea eta antolatzea, dinamizatzeko eta komunikatzeko gaitasuna izatea.

Eskaerak, curriculumarekin batera, urtarrilaren 20a baino lehen aurkeztu behar dituzte interesatuek udaletxe zaharrean -Durana, 11- edo posta elektronikoz bidali -loramendielkartea@gmail.com-. Egun erdiko lana izango da, arratsaldeetan, eta berehala hasteko.

Ate irekiak eginda hasiko du biodantza ikastaroa Jaiki elkarteak egunean, kuarter zaharrean

Jaiki Koloretan elkarteak, Udalaren laguntzarekin, biodantza ikastaroa jarriko du abian urtarrilean. Egunean izango dira eskolak (19:30), kuarter zaharrean, eta biodantza zer den eta eskolatan zer egingo duten erakusteko ate irekiak antolatu dituzte datorren egunerako, hilak 19. Edonor joan ahal izango da egun horretan kuarter zaharreko areto nagusira. Argibide gehiago gura duenak, edo izena eman, hona hemen harremanetarako telefono zenbakiak: 644 35 10 40 eta 665 73 17 66.

ATXABALTA LEHIAKETA

Hartu parte eta irabazi hainbat sari!



5. Gaur egun zein eraikinetan dago Aretxabaletako udaletxea?
a) Arratabe jauregia b) Otorala jauregia
c) Zuazubizkartarren jauregia d) Galartzako dorretxea

6. Bukatu esaera zahar hau: "Gutxiagia eta larregia..."

Erantzunak eta zure datuak (moztu azpialdea) Loramendi Elkartera ekarri (16:00-20:00) edo bidali hona: Aretxabaletako 96 posta-kutxa edo lehiaketatxabalta@gmail.com.

5: _____ 6: _____
Izen-abizenak: _____ Tel.: _____

Azken eguna: urtarrilaren 20a.

Aurreko galderen erantzunak:

3: Elizatik kanposantura zerraldoa eramaterakoan geldialdia egin eta erritual bat burutzeko.

4: b) Lastategia

Nagusion hizkuntza ohiturak jasotzen dituzte gure seme-alabek.

eredu izan EUSKARAZ plazera delako!

Aretxabaletako Udala
EUSKARA SAILA

Tasei buruzko hobariak hil amaiera arte eska daitezke

Familia ugariak deskontua dute, aurten lehen aldiz, ibilgailuen gaineko zergan

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Familia ugariak gutxiago ordainduko dute aurten trakzio mekanikodun ibilgailuen zergagatik. Udalbatzak uste du familia horiek bolumen handiagoko ibilgailuak behar izaten dituztela, eta gastuei aurre egiteko 2012. urteari begirako ordenantza fiskaletan familia horiendako %15 eta %60 arteko hobariak aurreikusitu ditu.

Ez da ordenantzetan dagoen deskontu bakarra. Urtero moduan, ondasun higiezinaren gaineko zergan

eta kiroldegiko urteko abonuan ere deskontuak daude: azken horretan tarifa bereziak dituzte kide anitzeko familiek, langabeek, elbarriek, ikasleek eta Eskoriatzako Kirol Elkarteko federatuek. Horren gaineko informazioa gura duena kiroldegira joan daiteke.

Asteon Udaletik jakinarazi dute esandako deskontuak lortu ahal izateko eskaera egin beharra dagoela; interesatuek urtarrilaren 31 baino lehen eskatu beharko dute udaletxean. Horrekin bate-

ra, azaldu dute egunotan horren gaineko informazioa iritsiko dela eskoriatzarren etxeetara.

Ura: %5,5 gehiago

Bestalde, abenduaren 27ko osoko bilkuran ordenantza fiskalak behin betiko onartu ostean, hainbat igoera izango dira aurtengo tasa eta zergetan. Ura da igoera nabarmenarikoa izango duena; hain justu, %5,5eko igoera izango dute fakturek. Udaletik aipatu dute Ur Kontsurtzietatik igoera %8koa iza-

tea aurreikusten bada ere, kostu guztia herritarrei aplikatzea larregi dela, eta, hortaz, aipatutakoa igotzea erabaki dela. Bestalde, hiri hondakinengatik %2,82 gehiago ordainduko da; hain justu, Mankomunitateak onartutako igoera adostu da Udalean ere.

Sauna eta gimnasioa

Bestalde, kiroldegiko abonuan ere gehiago ordainduko da. Abonatuak urteko kuotan %4,5eko igoera izango dute, eta zerbitzu gehiago erabili ahal izango dituzte: orain arte aparte ordaindu behar zituzten sauna eta gimnasioa erabili ahal izango dituzte. Tabernetako terrazengatik ere gehiago ordainduko da. Orain arte, mahaiak eta aukiak lur publikoan ipintzeagatik tasa hiru hilean behin ordaindu behar zen. Aurten, urteko tasa bakarra izango da, lehengo hiruhileko tasa gehi %25eko igoera.

Hil honetan hasiko dituzte San Pedro auzoko lanak

M.B. | ESKORIATZA

Dagoeneko esleitu dituzte San Pedro auzoko 1. eta 9. atarien arteko urbanizazioaren obrak, eta, Beñat Herce alkateak baieztatu duenez, urtarrila amaitu baino lehen hasiko dituzte berritze lanak.

Excavaciones Olloquiegi enpresari eman dizkiote esandako lanok. Lehiaketarako aurrekontua 299.932,5 euro zen, eta esandako enpresak 224.951,40 eurora murriztu du aurrekontua. Horretaz gainera, hasierako exekuzio epea bost hilabete zen, eta Olloquiegi baiezatu du lau hilabetean egiteko aukera izango duela. Urtarrila amaitu aurretik obrak hasteko asmoa dutela kontuan izanda, maiatzerako amaituta egon beharko luke.

Auzo erdialdean dauden 1. eta 9. atarien arteko zatia berritzea bigarren faseari dagokio. Aurretik, Ibarraundi museo inguruko ingurua konpondu zuten.

Goiko kalea eta parkea

Eskoriatzako alkateak gogorarazi du, denera, hiru faseetan berrituko dela San Pedro auzoa. Horren harira, honakoa adierazi nahi izan du: "Hori amaitzean, goiko aldea eta parkea geratuko da. Urtea amaitu baino lehen zati horretako proiektua idaztea da Udalaren asmoa".

'Herrixa dantzan' jaialdi irekia egingo dute domekan

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzan ere *Herrixa dantzan* herri dantzaldi arrakastatsua izango ditugu hil honetatik aurrera. Beheko Errota musika eskolak antolatuta eta Udalak eta Huhezik lagunduta, etzi, domeka, izango da lehenengo saioa, unitbertsitateko kaperan. Horretarako sarrera libre da eta parte-hartzea, debalde. Patxi Montero irakasleak gidatuko duen dantzaldia, 18:30ean hasiko da eta ordu eta erdi iraungo du.

Harrera ona ari da izaten ekimena. Elgetako Kafe Antzokian bi urtez dihardu martxan; urrian, berriz, Arrasaten eta Bergaran hasi ziren egiten. Azken herri horretan domekan egin zuten azken saioa. Bi zati izan zituen: ume eta gurasoei zuzendutakoan 70 lagunek parte hartu zuten eta helduendakoan, 50 bergarar.

Hirugarren domekan

Eskoriatzan dagoeneko zehaztuta daude maiatzerako bitarteko datak: hileko hirugarren domekan egin-

go dituzte beti, 18:30ean. Monterok jakinarazi du adinari dagokionez, hasiera batean helduei zuzenduta badago ere, askotariko adinetako herritarrek har dezaketela parte.

Azken bi urteotan, hileroko

dantza saioez gain, sanjuanetarako herri dantza antolatu du Kultura Sailak, Montero berak eta herriko txistulari taldeak gidatuta. *Herrixa dantzan* "dinamikoagoa" izango da eta erreper-

torio "aberatsagoa" izango du. Taldean, soka edo bikoteka egiteko plaza dantzak ikasiko dituzte, Euskal Herrikoak eta Europako beste lurralde batzuetakoak tartekatuta.



Arrakastatsua dira dantzaldi irekiak; irudian, Bergaran egindakoa. | JOSETXO ARANTZABAL

OHARRAK

KIROL HITZORDUAK

Lau partidu jokatu dira egunotan kiroldegian: bihar, 11:00etan, areto futboleko, gazteen mailako Eskoriatza eta Aurrera lehiatuko dira; 16:00etan, saskibaloian, etxe-koak eta Krafft; eta 18:00etan, seniorretan, Murkol Zast Zke. Etzi, 11:00etan, Euskal Ligako areto futbola dago Eskoriatza eta EHU Campus Alava artean.

MALABAREAK

Tortolis ludotekan eskujokoak dituzte umeek, 18:00etan.

BIDEOKLIP GRABAZIOAK

Gaztelekuan bideoklipak grabatzen ibiliko dira asteburuan.

Aikidoa praktikatu ahal izango dute herriko umeek

Interesatuek kiroldegian eman behar dute izena



Aikido eskolak eskainiko dituzte kiroldegian. | GOIENA

M.B. | ESKORIATZA

Urte berriarekin batera, umeei zuzendutako kirol jarduerak berria eskaintzekotan dira herriko Kirol Zerbitzukoak: arte martzialen barruan sartuta dagoen aikido disziplina. Jose Manuel Matas eskoriatzarrak emango ditu eskolak; asteen bi egunean izango dira horiek, kiroldegian: martitzenetan eta egunetan egingo dituzte, 17:00etatik 18:00etara bitartean.

Izen-ematea zabalik dago. Interesa dutenek kiroldegira joan behar dute, eta bertan izena eman. Taldea osatu bezain laster hasiko dira eskolak ematen.

Japoniako arte martzial moderno da aikidoa. Horren ezaugarri nagusia da gatazka egoeretan hazkunde pertsonala eta harmonizazioa eta neutralizazioa bilatzea.



GOIENA

Karmelo Oñaterendako sari ederra

Guk euskal nazio independentzia Gabonetako zozketa Karmelo Oñaterendako izan da aurten; 5.932 zerbakiak zuten. Besteak beste, Ternua etxeko askotariko arropa, urdaiazpikoa eta *Konkistak 500 urte* liburua irabazi ditu.

Eguerdietan saio bereziak egingo dituzte gimnasioan

Spinningeko eta pilatesko hastapen ikastaroak egingo dira urtarrilean

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Herriko gimnasioan ikastaro berriak antolatu dituzte 2012rako. Joan den hiru hilabetez patinaje ikastaroa bukatu da, eta urtarrilaren 17an hasiko da berria. Martitzen eta eguenetan izango da, 19:30ean, eta hiru hilabetez iraupena izango du. Gimnasioko bazkideek 50,5 euro ordaindu beharko dute; bazkide ez direnek, berriz, 94,5 euro. Haurrek ere izena eman dezakete, baina heldu batekin joan beharko dira. Bazkide diren haurrek 40,95 euro ordainduko dute; bazkide ez direnek 65,52.

Spinningeko eta pilatesko hastapen ikastaroak ere antolatu dituzte. Spinningekoak urtarrilaren 11 eta 16an izango dira goizez (9:15) eta 12 eta 17an arratsaldean (20:30). Batez ere, ariketa horretarako kontuan eduki behar diren gainera ikastaroa izango da: bizikletaren posizioa, indarra... Pilatesko hastapen ikastaroa urtarrilaren 19an, 23an, 25ean eta 30ean egingo da, astelehen eta eguaztenetan, goizez 09:15ean eta arratsaldean 20:30ean.

Ordutegi pack-a

Aurtengo berritasunetako bat da *Ordutegi pack-a* izenekoak. Eguerdietan kirola egiteko modua eskaintzen du pakete berezi horrek. Gimnasioa erabili ahal izango dute 12:00etatik 13:30era bitartean eta horrez gain spinning saioa izango dute astelehen eta eguazten eguerdian, eta fitness gelako zirkuitua eguenetan. Hileko kuota 35 euroko da; 16 euro bazkideendako.



Spinningeko saio bat gimnasioan. | USOA AGIRRE

Honen jabe izateak, Oñati, Bergara, Arrasate eta Eskoriatzako instalazioak erabiltzea ahalbidetzen du. Antzuolarrek edozein herritan atera ahal izango dute DKTa baina gehien erabiltzen duten herriko kiroldegian tramitatzea eskatu dute arduradunek. Bi aukera ezberdin daude: Plus (gimnasioa + igerilekua) eta Premium (Plus + bainuetxea). Debagoieneko gainerako herrietako bizilagunen baldintza berdinetan egin ahal izango dute aurtengo antzuolarrek DKT txartela.

Kirol txartela

Antzuolarrek ere egin ahal izango dute 2012an Debagoieneko Kirol Txartela edo DKT delakoa.

Honen jabe izateak, Oñati, Bergara, Arrasate eta Eskoriatzako instalazioak erabiltzea ahalbidetzen du. Antzuolarrek edozein herritan atera ahal izango dute DKTa baina gehien erabiltzen duten herriko kiroldegian tramitatzea eskatu dute arduradunek. Bi aukera ezberdin daude: Plus (gimnasioa + igerilekua) eta Premium (Plus + bainuetxea). Debagoieneko gainerako herrietako bizilagunen baldintza berdinetan egin ahal izango dute aurtengo antzuolarrek DKT txartela.

NIRE USTEZ

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ



Sarea berriro osatzen

Espazio publikoa, iritzia publikoa galtzen ari gara, gure garai bateko foro kolektiboak desplazatuta daude, besteak beste, beste eremu individualistagoak direnetera. Eta diagnostiko hau onartuz gero eta talde egoera batera buelta ematera adostuz gero, nola bueltatu esparru/espazio kolektiboetara? Komunikazioa, dialogoa

ber hartzea, eta horretarako kolore politikorik izan behar ez lukeen zeharkakotasuna praktikatzeko datza, nire ustez, itxaropena. Hementxe dago herri bezala gure etorkizuna, alegia, garai bateko komunitate-sarera egokitzen jakitea mende berri honetan, eta horretarako laguntzen duten parte-hartze sareak indartuz.

Baina hasteko, galdu dugun konfiantza berreskuratzea ezinbestekoa da.

"Galdu dugun konfiantza berreskuratzea ezinbestekoa da"

bestekoa deritzot. Izan ere, parte-hartze plangintza baten elaborazioak suposatzen du, baita ere, mesfidantzak baztertzea eta konplizitateak eskuratzea. Hementxe datza bere garrantzia. Kultura, elkarbizitza, komunitatea, komunikazioa eta dialogoa bultzatu eta inklusio sozialerantz bueltatzeko eguna hemen dugu. Izan ere "haserretu gara", "suminduta gaude", baina ez da nahikoa, orain ustez zailena egitea eskatzen zaigu: "konprometitu!"... eta "lanean hasi!", bakoitzak dakienetik abiatuz eta berori gertuko komunitateari eskainiz. Ez litza-teke urte berri honetarako erronka makala izango, izan ere, uste dut, une honetan, ez dugula beste oasirik basamortuan.

Sahararako janari bilketa hilaren 20ra bitartean

U.A. | ANTZUOLA

Sahararen aldeko kanpaina abenduaren 26an hasi zen Antzuolan eta urtarrilaren 20ra bitartean batuko dituzte janari eta bestelakoak. Jasoko dituzten produktuak dira hegazuak, sardinak oliotan, arroza, azukrea, pasta, leka-leka eta helduentzako fardelak eta konpresak. Horiek guztiak Eskolan edo Aixa, Eroski eta Kalebarren dendetan laga beharko dira. Asteon banatu da idatzi bat eskolako umeen artean, gurasoak jakinaren gainean egoteko.

Sahararako errefuxiatuek 35 urte daramatzate Tindufe-ko basamortuan; 180.000 lagun inguru bizi dira. Anelkarren arabera, urte horietan jasandako desnutrizioaren ondorioak "latzak" dira eta "denon elkartasuna" behar dute.

Patxi Cabo antzuolarrek ez du kartzelara joan beharko; ados jarri dira fiskala eta defentsa

2004an atxilotu zituzten eta abenduaren 21ean epaitzekoak ziren hamar lagunei urte eta erdiko, bi urteko eta hiru urte eta lau hileko espetxe zigorrak ezarri dizkie Espainiako Auzitegi Nazionalak, fiskalak eta defentsak adostuta. Tartean dago Cabo antzuolarra. Urtebete eta sei hilabetezko espetxe zigorra ezarri dio auzitegiak, ETari laguntza ematea egotzita, eta, ezarritako zigorra bi urtetik beherakoa izanik, ez du espetxera joan beharko.

Mugatze lanak egiteko batzordea sortzea adostu zuen udalbatzarrak ezohiko bilkuran

Martitzenean egindako ezohiko bilkuran onartu zuten Bergara eta Oñatiko udalerrien artean mugaketa lanak egiteko espedienteak hastea eta mugaketa batzordea osatzea. Alkateak, Idazkariak, Hirigintza teknikariak, eta Hirigintza eta Nekazaritzako zinegotziek osatuko dute batzordea. Oñatiko eta Bergarako udalek onartuta dute mugaketa lanak egiteko espedienteak hastea.

Baserrir ingurunean sortutako plastikoen bilketa-egutegia egin du Mankomunitateak

Hilean behin batuko da baserrir ingurunean sortutako plastikoa: siloa estaltzeko plastiko beltza; belar boletan erabiltzen dena; berotegietan eta orduetan estaltzeko plastiko beltza; eta berotegiko plastiko zuria. Plastikozko sokak ez dira batuko. Hurrengo bilketa urtarrilaren 24an egingo da. Zupide baserriaren azpialdeko aparkalekuan laga beharko da plastikoa.

OHARRAK

FUTBOLA

Erregional preferente mailako taldeak Intxurreren kontra jokatu du partidua bihar, zapatua, 15:45ean, Eztalan. Joan den asteko partidua irabazi ostean sailkapenean bigarren dago Antzuolako taldea, puntutan hirugarren den Soralezekin berdinduta. Intxurre, berriz, azkenengo postuan dago. Zortziko futboleko infantil mailako mutilek ere bihar etxean jokatuko dute partidua Antigua Luberriren kontra, 10:00etan, Eztalan.

PILOTA

Urte berriarekin txapelketa berriak jarri dira martxan. Gipuzkoako txapelketa jokatzen hasi dira eskuz alebinak eta Arrasateren aurka dute lehen partidua. Larruzko pilota jokalaria, berriz, Udaberri saria jokatzen hasiko dira. Antzuolan jokatuko dute partidua Andoaingo Gaztelekuren kontra, gaur, egubakoitza, 20:00etan.

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak
Kalégoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

GAILUR
taberna eta
gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

ANTZUOLA
Apainketak eta
solamenduak
Pladurrezko dibisiok
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

35 urte Ikurrina legeztatu zela: Aramaio protagonista izango da ospakizunetan

Ekitaldia etzi da, Etxarri Aranatzen: orduko eta egungo alkateak joango diren ibarreko herri bakarra da Aramaio

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO


Domekan ekitaldi berezia egingo da Etxarri Aranatzen: urtarrilaren 16an 35 urte beteko dira udaletxe bakoian Ikurrina jarri zela, Euskal Herri osoan sona handia izan zuen ekitaldi jendetsuan. Orduko ekitaldi hartan trantsizio garaiko Alkateen Mugimenduko kideak Etxarrin bildu ziren, eta amnistiaren, foruen eta euskararen aldeko aldarrikapena egin zuten.

Bada, Etxarri Aranazko Udalak urteurren borobil hori gogoratzeko ekitaldia egingo du etzi. Ekitaldi "xumea" izango da, Etxarri Aranazko alkate Jose Ignacio Bakaikoaren arabera: 10:30ean harrera ofiziala egingo zaie udal hautetsi eta eragileei, 11:30ean ekitaldi instituzionala egingo dute udaletxe areto nagusian eta 12:00etan, berriz, ekitaldi publikoa egingo da udaletxe aurrean. Amaitzeko, 12:30ean, luntxa egingo dute.

Elkoro, etxean preso

Euskal Herri osoko hainbat alkate eta eragile gonbidatu dituzte ekitaldira. Debagoienari dago-kionez, Aramaio, Arrasatek eta Bergarak ziurtatu dute egongo direla. Jose Luis Elkoro -Alkateen Mugimenduko buru izan zena- ez da egongo, etxe barruko atxilotze egoeran dagoelako. 08:00etatik 13:00etara bakarrik irten daiteke. Jesus Elortza egungo alkatea eta Elkororen senideren bat egongo dira. Hori horrela, ekitaldiaren antolatzaileek aipamen berezia egingo diote Elkorori, "35 urte pasa eta gero, herriarekin hartutako konpromisoagatik preso daukatelako".

Arrasateko alkate Inazio Azkarraurizar joango da. Arrasateko orduko alkate Jose Antonio Altuna, berriz, ez da egongo, erdi gaixorik dagoelako.



Aramaio hainbat ume, ikurrina udaletxean jarri zen egunean. | MARI CARMEN AIASTUY

Aramaion jarri zenekoa

Beraz, Aramaio izango da orduko eta egungo alkatea eramango dituen ibarreko herri bakarra. Julian Untzueta 1977an Aramaio alkate zenak ez du oroitzapen handirik Etxarri Aranazko ekitaldiaz, bai-

na oso ondo gogoratzen du Ikurrina Aramaion jarri zen egunaz: "1977ko urtarrilaren 19an jarri zen. Bailarako herrien artean Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara eta Aramaion ordu berean jarri genuen. Osoko bilkura egin ostean izan zen, 20:00 aldera. Alkateen Mugimenduarien barruan geundenok bagenekien hilaren 20an Donostian jarri behar zela. Bada, guk egun bat lehenago jarzea erabaki genuen, Donostiako alkatea ez zelako inplikatu".

Bitxikeria bat ere kontatu digu: "Arrasateko alkate Altunak antolatutako afari baten gogoratu ditut Elkororekin izandako berbaldiak. Adibidez, taldeko zaharrena nintzen eta gerra garaiaz berbetan ari nintzela Elkorok galdetu zidan ea nola nekizkien halako kontuak. Orduko 8 urte nituela esan nion. Beteranoena nintzen eta orduan esperientzia asko baloratzen zen". Egungo alkate Ramon Ajuriaren batera joango da Unzueta.



"Beteranoena nintzen, orduan asko baloratzen zen hori"

JULIAN UNTZUETA | ALKATEA 1977AN



Xabier Elempuru eta Maider Aldai, Aramaioko saridunak. | JOKIN BEREZIARTUA

Kulturgura, eskualdeko kontuen berri izateko

Xabier Elempuru eta Maider Aldai aramaioarrak, saridunetako bi Zuiako Koadrilako lehiaketan

J.B. | ARAMAIO

13 urte pasa dira dagoeneko Zuiako Koadrilak Kulturgura lehiaketa antolatzen duenetik, Arabako Diputazioko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren laguntzaz. Parte hartzaile guztiek zazpi galdera erantzun behar izan dituzte: Zuiako Koadrila osatzen duten sei udalerriarako galdera bana eta zarpigarraren bat eskualde osokoa. 8 urtetik gorako edozeinek izan du parte hartzeko aukera.

Ekimen xumea bada ere, Zuiako Koadrilaren eskualde izaera indartzea du helburu, besteak beste.

100 euro kirol materialean

Irabazleak asteon jakinarazi dituzte eta lau saridunetarik bi aramaioarrak dira: Xabier Elempuru eta Maider Aldai. Elempuruk hiru edo lau aldiz hartu du parte, eta, dioenez, lehiaketako galderak erantzutea ez da

lan zaila izan: "Galderaren bat erantzuteko laguntza eskatu behar izan arren, nahiko modu errazean osatu nuen galdeketa. Bestalde, halako ekimenen garrantzia goraiatu du Elempuruk: "Badauka bere garrantzia. Gu ere Koadrilako parte garenez, bertako herrien berri izateko ekimen polita da".

Maider Aldai saria jaso duen 16 urteko gazte aramaioarrendako, berriz, lehen aldian izan da aurtengoa. Lehiaketaren berri "kasualitatez" izan zuten: "Liburutegiko arduradunak proposatu zigun parte hartzea eta galderok erantzuteko liburu baten aurkitu nuen informazioa. Koadrilako hainbat konturen berri izateko aukera ona izan da, beti dago-eta ondo inguruko herrietan gertatzen denaz jakitea".

100 euroko txartel bana jaso dute Elempuru eta Aldaik, kirol materialean gastatzeko.

Aramaio Argindar Banatzailea SA enpresak baja bat betetzeko administraria behar du aldi baterako

Egungo arduradunak amatasun-baja hartu behar duelako administraria behar dute. Eskatzen da, besteak beste, gutxieneko titulazioa, EGA, legeen eta zergen obligazioak betetzeko beharrezko ezagutza, kostuen eta inbertsioen analisisien ezagutza, egungo argindar sektoreko legedia ezagutzea eta gidabaimena eta autoa izatea. Argindar sektoreko enpresetan lan esperientzia izatea ere baloratuko da. Curriculumak helbide honetara bidal daitezke: aab@aramaio.org. Azken eguna urtarrilaren 20a da.

Alaiak elkartearen mus txapelketa, giro ederrean

Alaiak erretiratu elkartek urtero antolatzen duen mus txapelketan bederatzi bikotek hartu zuten parte. Urtarrilaren 7an egin zuten; Angel Astondoa eta Ramon Altuna izan ziren irabazleak. Sariak jaso ostean, afari ederra egin zuten guztiek. Datorren urterako erronka da emakumeek parte hartzea. Irudietan, finalistak eta afaria.



ARGAZKIAK: CRISTINA ETXENAGUSIA

ELGETA

Asentzio eta eskolako jolastokia dira 2012ko inbertsio nagusiak

43 langaberekin eta %8,74ko langabezia tasarekin amaitu du Elgetak 2011. urtea; hain zuzen ere, urte hasiera eta uda izan dira sasoirik txarrenak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Ohiko hitzorduez gain bestelako albisteak ere ekarri dituzte Gabonak. Udalak, esaterako, 2012rako aurrekontua onartu zuen abenduaren 27an, eta urte berriarekin bat Arantxa Aretxagak erretiroa hartu eta Ostatu taberna ixteko erabakia hartu zuen. Langabezia bulegoak abenduko langabezia datuak eman ditu aditzera, eta horrek urte osoko balantzea egiteko aukera eman du. Bestetik, euskal preso politikoen eskubideen alde hilaren 7an Bilbon egindako manifestaziora joateko antolatutako autobusa bete egin zen.

2012rako aurrekontua

Aralar-Independentek eta EAJ-ko zinegotzien aldeko botoekin onartu zuen udalbatzak 1.901.161 euroko aurrekontua; Bilduko hiru zinegotziak abstenitu egin ziren. "Ez dugu trabarik ipiniko", esan zuen Bilduko Janire Lazkanok.

Inbertsio nagusien artean eskolako jolastoki estaliaren lanak eta Asentzioko hezegunea berreskuratzeko egitasmoa nabarmentzen dira. Oxel Erostarbe alkatearen hitzetan mantendu egiten dira gizarte-ongizatearekin eta euskarekin lotutako diru-lerro guztiak, baita herriko talde eta eragile ezberdinek Udaletik jasotzen dituzten dirulaguntzak ere. "Gainerako alorretan gerrikoa estutzea tokatuko da", esan zuen.

Ludoteka Aste Santura arte

"Akaso ezingo dugu urte osoko zerbitzua eman, eta garai baten moduan zerbitzua sei hilabetera mugatu beharko dugu", izan ziren Erostarberen hitzak. Azaldu zenez zerbitzuaren etorkizuna Diputazioaren erabakiaren arabera izango da. Oraingoan, bai ludotekari, bai gaztelekuan, Aste Santura arteko zerbitzua ematea erabaki du Udalak. "Urteetan proiektu honetan bidelagun izan dugun Diputazioak nabarmen jaitzi ditu dirulaguntzak; 18.000 eurotik 3.000 eurora. Zerbitzuaren gastuak handitu egin dira Udalarendako eta sarrerak, berriz, nabarmen jaitzi dira".



Besteak beste, Ostatu pareko eserlekua berrituko dute aurtun. | L.Z.

43 langabe abenduan

Abendu amaieran 43 elgetar zeuden langabezia bulegoan izena emanda, eta %8,74ko langabezia tasarekin amaitu dugu 2011. Debagoienean langabezia tasa %9,83 da, eta Euskadin %12. Amaitu berri dugun urtean bereziki gogorrak izan dira urte

hasiera eta udazkena. Langabeziak beheranzko joerak ere izan ditu. 2010ean bezala apirilean, maiatzean, abuztuan, eta irailean eman dira jaitziera txiki horiek. Dena den, batez beste 42 langabe izan ditugu hilero: 2010ean 34 ziren; 2009an 41; eta 2008an 20.

ELGETAKO AURREKONTUA 2012RAKO

KONTZEPTUA	EUROAK	KONTZEPTUA	EUROAK
INBERTSIOAK		Transferentzia korranteak	103.496
Asentzio hezegunea	233.640	Mankomunitateko zabor zerbitzua	98.286
Domingo Iturbeko lanak	138.572	Eguneko zentroaren zerbitzua	80.000
Auditoria energetikoa	36.000	Fondo Foralaren itzulketa	77.444
Ibilbide tematikoa	30.000	Etkez etxeko zerbitzua	55.000
Asentzioko lursaila erosteko	5.000	Bideberri mankomunitatea	41.008
Ibilgailu berria	3.700	Finantza interesak	40.601
Ostatu ondoko bankoa konpontzea	1.200	Herriko jaiak	37.100
Frontoiko komuna konpontzea	1.200	Aretoko ekitaldiak	30.000
Fotokopia zentralita	1.106	Kirol Zerbitzuak	27.185
INBERTSIOAK GUZTIRA	450.418	Ludoteka eta gazteleku zerbitzua	26.600
		Etxe tutelatuaren zerbitzua	10.000
BESTELAKOAK		Mankomunitateko inbertsioak	6.000
Pertsonala	412.923	BESTELAKOAK GUZTIRA	1.445.743
Mantentze-lanak/Materiala	275.070		
Maileguen amortizazioa	125.030	GASTUAK 2012 GUZTIRA	1.896.161

LEINTZ GATZAGA

Hemen Garbiketak enpresak garbituko ditu udal eraikinetan

MIRIRI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Udalaren jabetzako hainbat eraikin garbitzeko lehiaketa deia egin zuten duela hilabete batzuk, eta hiru enpresa aurkeztu ziren. Horien eskaintzak aztertu ondoren, Eskoriatzako Hemen Garbiketarako hartzea erabaki zuen udalbatzak abenduan egindako osoko bilkuran -atzo GAOn publikatua-;

hain zuzen, aurkeztutako enpresen artean Debagoieneko enpresa bakarra zen.

Azken urteotan ere Hemen Garbiketarako enpresak izan du udal eraikinetan garbitze lanen ardura, eta horiekin segituko du, gutxienez, 2013a bukatu arte. Garbituko dituzte, besteak beste, udalera eta herri eskola.

Bi urteko kontratua

Lehiaketarako Udalak ezarritako oinarritzko aurrekontua zen 15.183 eurokoa urtean, eta Eskoriatzako garbitze enpresak hobetu egin du zertxobait aurrekontu hori; hala, 14.740 eurotan esleitu dizkiote lanok.

Bestalde, bi urteko kontratua sinatu dute, eta epe hori bukatutakoan bi aldeak gustura egonez gero, luzatzeko aukera izango da, urtetik urtera, beste bi urtez; hau da, 2015. urtea bukatu arte.

Anthony Blakek hirugarren emanaldia ere egingo du Elgetan; gaztetxean, berriz, kontzertua dago

Anthony Blake mentalista ospetsuak hiru emanaldi egingo ditu aste bukaeran Espaloian. Barikuan eta zapatuan ez ezik, domekan ere egingo du saioa. Azken hori 19:00etan hasita izango da. Gaztetxean, berriz, kontzertua egingo dute bihar, zapatua, 22:00etan hasita, Achtung, Kaleko Urdangak eta CC 627 taldeek. Jarraian, Tragons eta Naken DJek hartuko dute lekukoa. Festa *Nafarroa 1512-2012* bilduma finantzatzeko izango da. Sarrera 5 euro da.

Urtarrileko erretiratuendako podologia kontsulta hilaren 19an, eguna, egingo dute kultura etxean

Hilero etortzen da podologia Elgetara herriko erretiratuerei kontsulta pasatzera. Urtarrileko bisita hilaren 19an, eguna, egingo du. Kultura etxean artatuko ditu bezero guztiak, 14:45etik aurrera. Gehienez ere 20 lagun hartzen ditu; beraz, ezinbestekoa da kontsulta pasa nahi izanez gero alde aurretik txanda hartzea. Interesatuak lehenbailehen deitu behar diote Nati Arrietari, 943 76 80 77 telefono zenbakira.

Ozkarbi elkarteak urtarrilaren 19an, eguna, egingo du urteko batzar orokorra

Urteroko batzarra 20:15ean hasiko da. Aurretik ezohiko batzarra deitu du zuzendaritza batzordea. Batzar hori 19:30ean hasiko da eta estatutuetan bi aldaketa egiteko proposamenak bozkatzeko dira bertan. Bazkideak, beraz, 19:30erako deitu ditu zuzendaritza batzordeak. Bestetik, jakinarazi dute Gabonetako Loterian tokatutako dirua zuzenean bazkideen kontu korranteetan sartuko dutela.

Hurrengo aste bukaeran hasiko da frontenis txapelketa: bihar da izena emateko azken eguna

Asier Osorok aurreratu duenez, hilaren 21ean, zapatua, hasita da frontenis txapelketa. Norgehiagokak zapatu arratsaldeetan jokatu dituzte, eta, oraingoan, hamar bikotek eman dute izena; zazpi gizonezkoen txapelketan parte hartzeko eta hiruk txapelketa mistoan aritzeko. Interesatu gehiago egonez gero, antolatuzaileek bihar arte luzatu dute izena emateko epea. Interesatuak Espaloian eman behar dute izena; prezioa 10 euro da bikoteko.

Udal Kirol Zerbitzuetan izena emateko aukera dago, eta plaza libreak daude spinningeko bigarren taldean

Elgetan sasoi, martxan jarri lelopean Kirol Zerbitzuetan izena emateko kanpaina abiarazi du Elgetako Udalak. Bost jardueratan izena emateko aukera zabaldu dute: mantentze-gap, yoga, tai txi, erretiratuendako gimnasia eta spinningean. Spinningeko bigarren taldean, esaterako, plaza libre asko daude. Ekintza hori martitzenetan eta eguenetan egiten dute, 20:15ean hasita. Prezioa hileko 25 euro da.

Kantsatzeke mendi taldearen aurkezpena urtarrilaren 24an, 20:00etan, Udal Liburutegian

2009ko udazkenean jaio zen Ozkarbi Mendi Taldea. Taldea erregistratzeko eta federatzeko lanetan aritu dira azken hilabeteotan. Aurrerantzean Kantsatzeke Mendi Taldea izena hartuko du ekimenak, eta bultzatzaileak bilera ireki batera deitu dituzte elgetar guztiak, "egindako bidearen laburpena egin, proposamenak jaso eta mendi taldea hemendik aurrera antolatzeko".

Astelehenean dinamizatzailea izango da KZgunean

Astelehen arratsaldean (16:00-20:00), zabalduko ditu ateak KZguneak eta Aitor Madrid dinamizatzailea izango da bertan. Herritarrek Interneten gainean dituzten zalantzak argitu eta ikastaro motzak eskainiko ditu, tartean sare sozialen gainekoak eta Googlek eskaintzen dituen tresnen gainekoak.

Egubakoitzean astinduko dituzte danborrak umeek

Herriko umeek hurrengo egubakoitzean, San Sebastian eguna, egingo dute danborrada. Eskolako kideen asmoa da herrian bertan ospatzea egubakoitz goizean; hau da, Eskoriatzara joan barik, baina asmo horrek aldaketak izan ditzakeela jakinarazi dute. Bien bitartean, entseguak egiten dabilta umeak.

SARIKETA**XABIER URTZELAI** | ARRASATE

Datorren urtarrilaren 20an, egubakoitza, banatuko dituzte Elgetan Debagoieneko Kirol Sariak (19:00etan hasita). Asmoa urterokoa da: Debagoiengan kirol esparruan lanean diharduten pertsona eta erakundeak saritzea. Aurreko hiru edizioetan moduan, aurretik ere epaimahaiko kideek lanak izango dituzte kirolari onenak aukeratzeko orduan. Bada, baina, sari berezi bat, herritarrek aukeratzeko dutena: herritarren saria, eta hori erabakitzea zuen esku egongo da [Ikus beheko taula].

Saria jasoko dutenak

Gainontzeko sariak epaimahaiko kideek erabakiko dituzte –epaimahaia hainbat kirol teknikari eta kirol kazetarik osatzen dute—. Eta onarpena jasoko dute 2011n kirol emaitza aipagarriak lortu

Herritarren saria, zuen esku DKSn

- ▶ Urtarrilaren 20an banatuko dituzte sariak, Elgetan
- ▶ 'Kirolsariak.com' webgunean eman dezakezue botoa

dituzten kirolari eta taldeek. Baina kirol sistema hau sostengatzen dabilzan horiek ere saritu nahi dituzte; egunero, ezkutuan lanean diharduten pertsona eta erakun-

deak: teknikariak, zuzendaritza taldeetako kideak, babesleak, boluntarioak... Hala, sari horiek izango dira kirolari onenarendako –gizonezko eta emakumezko-

tan–, talde onenaren saria, kirol teknikari edo entrenatzaile aipagarriena, kirol ibilbidearen saria, kirol babeslearen saria eta kirolari anonimoarena.

Iazko saridunak

Iazko edizioa Aramaion egin zuten (Oñatin eta Aretxabaletan izan ziren aurrekoak), eta kirol arloko jende asko batu zen sariketara. Kirolari onenaren saria Alberto Iñurrategi mendizaleak irabazi zuen, eta Jone Elortza sokatiralaria izan zen emakumezko nabarmenena. Kirol taldearen saria Aloña Mendiko saskibaloitza jaso zuen, eta Alberto Garairendako izan zen teknikari onenaren saria. Kirol ibilbidearen saria horrenbeste urtean Euskal Herriko mendiko txapeldun izan den Aitor Zabaleta pilotuak jaso zuen (2011n ere txapeldun). Herritarren sarirako Beñat Arnaitzek jaso zituen boto gehien, eta Rafa Etxabek hartu zuen, Ford Mugarriko ordezkari moduan, babesle onenaren saria. Kirolari anonimoaren saria, berriz, Bixente Pagaldaik jaso zuen.



Xabier Luis oñatiarra. | GOIENA



Iban Letamendi, Euskadiko mendiko eskiko txapelduna. | GOIENA



Aitor Mendizabal, promozio mailan lau t'erdiko txapelduna. | GOIENA



Mikel Aristik Gipuzkoako Itzulia irabazi du, bestek bestek. | GIPIU. TXIRRINDULARI FED.

Herritarren sarirako hainbat hautagai

Izenak dioen moduan, herritarren saria herritarrek bidalitako proposamenekin erabakiko da. Internetez egin ahal izango duzue zuen herriko kirolariaren –edo kirolarekin harremana duen edonoren– aldeko proposamena. Hala, www.kirolsariak.com webgunera sartuta bidal dezakezue zuen proposamena, eta erabaki horren zergatia idatzi. Eta aipamen gehien jasotzen duenak irabaziko du saria. Erretratuetan batu ditugun kirolariak DKSk antolatzaileek aukeratzeko batzuk dira, baina proposamena baino ez da. Seguruenez, horietako bat baino gehiago protagonista izango dira kirol sariaren ekitaldian, gehien nabarmendu diren kirolarietako batzuk dira-eta. Baina herritarren sarirako zerrenda amaigabea izan daiteke. Zuek erabaki.



Oihana Kortazar. | GOIENA



Maialen Axpe. | ARRASATE ATLETIKO



Amaia Doyaguek Euskotren eta Gipuzkoako ligak irabazi ditu arraunean. | GOIENA



Irizarrek Andaluziako Itzulia irabazi du aurten. | RADIOSHACK



Manex Azularen salto bat, Formigalgo estazioan. | JOSU AZULA



Manex Azula. | XU

SNOWBOARD

Manex Azula, gazteen Joko Olinpiarretara

Gaur hasiko dituzte Joko Olinpiarrik, Innsbruk-en (Austria); Bergarakoa domekan lehiatuko da

XABIER URTZELAI | BERGARA

Aurten egingo dituzte lehenengoz gazteen neguko Joko Olinpiarrik, Innsbruk-en (Austria), eta Bergarako Manex Azula snowboard rider-a aukeratu du Espainiako Federazioak gizonezkoen snow txapelketarako dagoen plaza baka-

rra betetzeko. Azulak 16 urte baino ez ditu –gazte mailara salto egin berri du–, baina azken bi urteetan lortu dituen emaitzen ondorioz eta etorkizunari begira daukan proiektioagatik aukeratu dute Joko Olinpiarretan egoteko.

Jokoen hasiera, gaur

Historian lehenengoz hartuko du herri batek –Innsbruk– jok oak hirugarrenez antolatzeko ardura. Hala, gaur, egubakoitza, hasiko dituzte, baina Azulak atsedean izango du domekara arte. Bergarakoak parte hartuko duen lehe-

nengo proba half-pipe izenekoak izango da, baina emaitza ona lortzeko proba horretan baino esperantza handiagoa du egingo duen bigarrenen. Izan ere, bigarren proban espezialista da –urtarrilaren 19an izango da–, sloop-style izenekoan.

Gabonak, entrenatzen

Kirol hitzordu garrantzitsu horri begira entrenatzen igaro ditu Azulak Gabonak. Abendu amaiera Cerlerren igaro zuen Bergarakoak, anaiarekin batera suabe entrenatzen, eta abenduaren 30ean etxera itzuli ostean, urtarrilaren 2an Alpeetarako bidea hartu zuen, Valthorens estaziora. Hor egin ditu azken entrenamendu saio serioak, eta atzo, eguena, zen selekzioko ordezkariekin batzeko.



dks '11
debagoieneko
IV. kirolsariak

Debagoieneko kirolaren sari banaketa ekitaldia

Urtarrilak 20 ostirala
Elgetako Espaloian | 19:00



ANTOLATZAILEA

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

KOORDINATZAILEA

arteman
KOMUNIKAZIOA

BABESLEAK

Kanpazar obate
— harrobiak —

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

la Caixa

Debagoieneko nork merezi du herritarren saria?

egin zure proposamena!

www.kirolsariak.com

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otorala lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behea

620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

KULTURA

20 urteko lanaren emaitza

- ▶ Goikobaluren 20 urteko ibilbidea jasotzen duen DVD-CDa kalean da dagoeneko
- ▶ Bihar eta etzi Fromista eta Carrion de los Condes herrietan eskainiko dute kontzertua

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

20 urtez kantuan DVD-CDa eskuetan dute Goikobaluko kideek. Abesbatzaren 20 urteko ibilbidea jasotzen duen lana da. Hain zuzen, Errege bezperan jaso zituzten lehenengo aleak, eta Seber Altuben jarri zituzten salgai egunean bertan. Taldeko kideak pozik daude lanak izan duen harrerarekin: 23 bat ale saldu zituzten. Lanak 15 eurotan daude salgai.

DVDan, abesbatzaren historia

20 urtez kantuan lanak DVDa eta CDa ditu. DVDan, Goikobaluko parte izan direnen testigantzak jaso dituzte. Besteak beste, 1989an Goibakolu sortu zuten Jesus Mari Arce, Jose Ignazio Agirre Txito, Eugenio Etxebeste, Joaquin Etxeberria eta Xabier Bengoa agertzen dira. Baita lehenengo zuzendari izan zen Luis Ignazio Ruiz de Alegria Jimmi-ren testigantzak ere (Jimmi-ren aurretik Markaide izan zen zuzendari hilabete batzuetan).

DVDan hiru zati bereiz daitezkeela dio Juan Mari Barriocanalek, Goikobaluko presidente ohiak: "Alde batetik, Arrasateko herria kokatzen dugu, eta herrian garrantzia izan duten hainbat enpresaren berri ematen dugu". Bestalde, Goikobaluko historia azaltzen dute, eta, horretarako, goian aipatu ditugun testigantzak erabili dituzte. Azkenik, gaur egun Goibakolu egiten dabilen Santiago bidearen berri ematen dute.

"Sorrerari dagokionez, kontatzen dute zelan 1989an Arce orduan zinegotzi zen Bengoaren-gana joan zen ideiare berri ematera", dio Rakel Murgiondok, Goikobaluko kideak. SUDC elkar-tearen eskutik etorri zen abesbatza sortzeko ideia eta deialdiak arrakasta handia izan zuen: 100 lagunek baino gehiagok eman zuten izena, gehienak gazteak.

Diskoan, euskarazko abestiak

Diskoak 20 abesti jasotzen ditu, denak euskaraz abestuak: "Hori horrela egiteko ados geratu ginen", dio Murgiondok. Zina-M. Matamorosen musika- eta Flying Pickets taldearen *Laztana* Jose Mari Ganboak euskaratutako bertsiok dira. Abestiak Bedoñako elizan grabatu zituzten: 2010eko azaroan egin zuten lehenengo grabazioa; 2011ko uztailean nagusiek grabatu zuten; gazteek 2011ko maiatzean; eta txikitxoek 2011ko irai-



Juan Mari Barriocanal eta Rakel Murgiondo lan berria eskuetan dutela. | ARANTZAZU EZKIBEL

ESANAK

"Goikobaluko historia jasotzen du DVDak"

JUAN MARI BARRIOCANAL | PRESIDENTE OHI

ESANAK

"1997an ardura hasierako ilusioa mantentzea zen"

RAKEL MURGIENDO | TALDEKO KIDEA

lean egin zuten grabazioa, haiek Kulturaten.

Gaur egun lau talde daude Goikobalun, eta 150 lagun inguru.

Mugarri izan direnak

1989an arrakasta handiz hasi zuten ibilbidea Goikobaluk: "Musikan ondo prestatutako jendea zen, Arrasate Musikalen ikasitakoak, kantu eta musika ikasketak zituztenak. Obrak azkar prestatzen zituzten", dio Murgiondok. Lehenengo urteetan San Vicente de la Barqueran lehenengo eta bigarren sariak irabazi zituzten. "1997an Iñaki Maidaganek hartu zuen zuzendari kargua eta ardura zen hasierako ilusioa eta giroa mantentzea", azaldu du Murgiondok. Ondorengo urteetako emaitzek erakutsi zuten maila mantentzeko gauza izan zirela: "1997an Ciezara joan ginen eta lehenengo saria irabazi genuen, eta 2006an Madrilen ere saria jaso genuen", gogoratzen dute Barriocanal eta Murgiondok.

Urte hauetan guztietan hainbat mugarri izan ditu taldeak: 1991n Galesen izan ziren; 1998an

DATUA

1.000

ALE

1.000 ale atera dituzte, baina oraingoz 100 bakarrik jaso dituzte.



Abesbatzako kideak Erroman, 2003an. | GOIKOBALU

Argentinan; 2003an Erromako San Pedro basilikan abestu zuten; eta 2006an berriro ere Argentinara joan ziren.

Santiago bidean, aurrera

Gaur egun Santiago bidea da Goikobaluko enpene nagusia. "Bihar eta etzi zortzigarren eta bederatzigarren etapak egingo ditugu: Fromista eta Carrion de los Condes herrietan, Palentzian", dio Barriocanalek. Orreagan hasi zuten ibilbidea eta, besteak beste, Iruñean, Lizarran, Santo Domingon eta Burgosko katedralean abestu dute. Euren asmoa Santiagoko katedralera iristea da.

Blaken emanaldira bakarrik ez joatea gomendatu dute

Anthony Blakek gaur, bihar eta etzi eskainiko du 'No vengas solo' azken ikuskizuna Elgetako Espaloian

ARANTZAZU EZKIBEL | ELGETA

Dagoeneko salgai daude Anthony Blakek Elgetan eskainiko dituen ikuskizunetarako sarrerak, 18 eurotan bazkideendako eta 15 eurotan bazkide ez direnendako. Gaurko eta biharko emanaldira (22:30) ia sarrera guztiak agortu direla ikusita, domekan ere emanaldia egingo du, 19:00etan.

Blakek orain dela hilabete batzuk Bartzelonan estreinatu zuen lan berria.

14 urtetik gorakoendako

No vengas solo ikuskizuna ez dela beldurrezkoa azaldu du; hala ere, bakarrik ez joatea gomendatu digu eta gaineratu du ez dela 14 urtetik beherakoendako ikuskizuna.

Blake ez da bakarrik egongo agertokian. Daniela izeneko panpina bat izango du alboan: "Ikuskizuna gidatuko du", dio. "Beldurraren gaineko elkarrizketa da ikuskizuna: beldurra zer den eta zerk ematen digun ikertuko dugu", gaineratu du.



Anthony Blake, lan berria eskaintzen, ikusle baten laguntzarekin. | GOIENA

ESANAK

"Beldurra zer den eta zerk ematen digun ikertuko dugu"

ANTHONY BLAKE | MAGOA

Ohikoa den moduan, ikusleen laguntza ezinbestekoa izango da ikuskizuna aurrera eramateko orduan: "Nire lan guztien oinarria ikusleak izaten dira. Eurengatik eta eurendako egiten ditut lanak. Ezin da beste modu baten izan: nik ezin dut aulki baten pentsamendua irakurri", azaldu du Anthony Blakek. Gaur, bihar eta etzi izango da Elgetan.

Gramones eta Keu izango dira gaztetxean datozen eguenetan

A.E. | ARRASATE

Urte berriarekin batera indartsu hasi dute Kooltur Ekintza taldekoek *Kooltur ostegunak* ekimena. Atzo, Giranice taldearen emanaldia izan zuten gaztetxean, eta urtarrilaren 5ean, Porrotzek eta Bonberenea Txarangak magia eta musikaz bete zituzten Arrasateko kaleak eta gaztetxea. Txatxilipurdik antolatu zuen emanaldia, Koolturrek babestuta.

Hilaren 19an Gramones

Hileko lehenengo bi emanaldiak eginda, beste bi geratzen zaizkie egiteke. Datorren egunean, hilak 19, Gramones taldeak girotuko du gaztetxea.

Euskal Herriko punk-rock taldeetako hainbat musikari osatzen dute taldea. Gramones taldeak Ramones talde mitikoari omenaldia egiten dio. Maisuki jotzen dute haien abestiak, eta adituek diote Gramones taldearen zuzenekoek ez dutela parekorik. *It's Alive* diskoa, esate baterako, oso-osorik jotzen dute. Emanaldia 22:00etan izango da, bost euroren truke.

Urtarrilaren 26an, bestalde, Keu Agirretxea musikari ondarrutarrak joko du gaztetxean. Otsaileko egitarauari begira jarrita, aurreratu dute Faire Leires eta Xabi eta Petti etorriko direla Arrasatera.

Julen Rivas margolari arrasatearrak margo erakusketa zabaldu du Baionako Kalostrapen

A.E. | ARRASATE

Urtarrilaren 4an zabaldu zuen erakusketa margolari arrasatearrak, baina aurkezpen ofiziala bihar, zapatua, izango da, 19:00etan, Kalostrape ostatuan.

Rivasek bakarkako lehenengo erakusketa zabaldu du Baionan. 26 margolan jarri ditu

ikusgai. Denetariko margolanak dira, estilo figuratibo naturalistan margotuak.

Lanak ikusgai eta salgai

Margolanak ikusgai eta salgai egongo dira. Paisaiak, figurak eta natura hilak margotu ditu gehien. Aurkezpenaren ondoren lancha egongo da.


IRITSI DA GOIENA GIDA 2012

PAPEREAN ETA INTERNETEN

Herriko denda eta enpresen telefonoen gida. Osatuena, erabilgarriena eta berriena.



Paperean, etxean jasoko duzu.



Interneten, goiena.net/gida helbidean duzu.



Memoria historikoa "errespetatzeko" jaialdia

Intxorta 1937 elkarteak antolatuta musika izango da protagonista gaur Arrasateko Amaia Udal Antzokian

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Noiz arte justiziarik gabe? delako jaialdia izango da protagonista gaur, egubakoitza, Arrasateko Amaia antzokian, 20:00etan. Sarre- ra doan da eta oholtza gainera igoko dira *Gerrako ipuinak* liburu-CDan parte hartu duten musikari gehienak. Hain zuzen ere, Anger; Gose; Ain_1; Andoni, Petti eta Eñaut; Iker Fernandez eta Oscar Manso; Musiraka dantza taldea; eta Domentx Uzin, Juan Fernandez eta Eider Varela.

Memoria historikoa

"Memoria historikoa errespetatzea ezinbestekoa da askatasunez bizitzeko, zauriak ixteko eta etorkizuna sendotzeko", esan digu Intxorta 1937 elkarte kide Juan Ramon Garaik. Aldarri hori egiteko erabiliko dute jaialdia, herri-tarrak sentsibilizatzeko. "Herri-tar guztiak daude gonbidatuta. Ekitaldi hunkigarria izango da", gaineratu du.

Ekitaldia Osintxuko Musiraka dantza taldeak hasiko du Mozarten *Requiem* batekin. "Jaialdirako propio egindako dantza da. Ikurriñak eta Errepublikako banderak erabiliko ditugu dantza egiteko. Bigarren dantza bertso batzuekin moldatu dugu, eta Soraluzeko musikari batzuen laguntza izango dugu: kantuan, gitarrarekin eta kaxa flamenkoarekin", esan digu Musiraka taldeko Amaia Agirrek.

Musiraka taldekoekin taula gainean egongo dira Domentx Uzin, Juan Fernandez eta Eider Varela.

Musika taldeei leku egiten dieten bitartean, Xarma taldeak *Gerrako ipuinak* liburu-CDrako idatzitako *Isiltasun hautsia* kantuen doinuak ipiniko dituzte, eta Elgetako irudiekin osatutako bideoklipa emango dute.

Talde bakoitzak hiru kantu

Segidan, Ain_1; Andoni, Petti eta Eñaut; Gose eta Anger igo-ko dira Amaia antzokiko taula



Gerrako ipuinak proiektuan parte hartu dutenak, aurkezpenean. | GOIENA

ESANAK

**"Herri-
tar guztiak daude
gonbidatuta;
hunkigarria
izango da"**

JUAN RAMON GARAI | INTXORTA 1937

**"Mozarten
musikarekin eta
banderekin
dantza berezia
egingo dugu"**

AMAIA AGIRRE | MUSIRAKA TALDEA

**"Ez da ohiko
kultura
ekitaldia; gerran
gertatuko du
oinarri"**

ARKAITZ BIAIN | ANGER TALDEKOA

gainera. Talde bakoitzak hiru kantu eskainiko ditu. Ain_1 taldeak *Amantalen ahotsa* ikuskizunerako propio sortutako abestia ekarriko du Arrasatera. "Uste dugu *Amantalen ahotsa* ikuskizunerako egindako kantua oso aproposa dela jaialdirako. Gerra beraren gainean egiten dugu berba, baina guk emakumeen ikuspuntutik. Ez genuen *Gerrako ipuinak* proiektuan parte hartu, eta hauxe da guk egiten dugun ekarpena", esan digu Iraitx Agirrek.

Bukatzeo, Anger

Segidan Andoni, Petti eta Eñaut eta Goseren txanda izango da. Biek ala biek hiruna kantu joko dituzte, tartean *Gerrako ipuinak* liburu-CDrako sortutako kantuek.

Noiz arte justiziarik gabe? jaialdia Anger taldeak itxiko du. Arrasatearrek hiru kantu joko dituzte, bi euren diskokoak eta hirugarrena *Gerrako ipuinak* libururako egindakoa. "Emanaldi interesgarria izango da, ez delako ohiko kultura ekitaldia. Garai batean gure herriak bizitakoa oinarri duen emanaldia izango da, polita", esan digu Anger taldeko kide Arkaitz Biainek.



Kepa Urteaga eta Karmelo Alberdi, makina berriekin. | MIREIA BIKUÑA

Pelikulak hiru dimentsiotan ikusi ahal izango dira Arrasaten

M.B. | ARRASATE

Digitalizaziorako pausoa eman du Arrasateko Udalak. Pelikulak hiru dimentsiotan ikusi ahal izateko proiektorea erosi du Amaia Udal Antzokirako. Horri esker, pelikulak ez ezik, beste era bateko ikuskizunak ere ikusi ahal izango dira. Digitalizazioari esker, satellite bidez edo Internetez lortutako irudiak emittzeko aukera izango dute.

Udalak 90.000 euro inguru gastatu ditu eta Eusko Jaurlaritzak, berriz, 13.000 euroko dirulaguntza eman du.

Helburuak

"Modernizatzea, teknologia berriekin bat egitea eta jendea peliku-

lak ikustera hiriburuetara joan beharrean herrian geratzea lortu gura izan dugu aldatzarekin", esan du Kepa Urteagak, Udaleko Kultura zinegotziak.

Digitalizaziorako pausok eragina izango du hiru dimentsioko pelikulen sarreretan: euro bat garestiagoak izango dira. Bestalde, ikusleek beturreko bereziak beharko dituzte filmak ikusteko. Emanaldiaren hasieran beturrekoak jaso eta bukaeran bueltatu egin beharko dira.

Aste bukaera honetan hasiko dira 3D pelikulak ematen: umeendako *La gran aventura de Winter el delfin* eta helduendako, *Inmortals*.



AMAIA TXINTXURRETA

Karmele Igartuaren omenez

Karmele Igartua zenaren omenez poesia errezitaldia egin zuten eguazten arratsaldean Aretxabaletako udaletxe zaharrean, Loramendi elkarteak antolatuta. Igartuaren poesiaren nondik norakoak aztertu ondoren, Tere Irastortza idazleak -haren laguna- eta hainbat herriarrek Igartuaren poesiak errezitatu zituzten.

ANTHONY BLAKE

'No vengas solo' ikuskizuna.

Domekan ere
emanaldia 19:00etan.





Ezkerretik eskuinera:
Iban, Marina,
Ane eta Alaiñe.

Iban, Alaiñe, Ane eta Marina | The Bird Sax Quartet taldea

"Saxofoia jotzen elkarrekin ikasi dugu, eta orain, taldea osatzea erabaki dugu, ezkontzetan-eta jotzeko"

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Alaiñe Olabarria (17 urte), Ane Lopez (18 urte), Marina Garmendia (16 urte) eta Iban Aparicio (21) arrasatearrak dira eta The Bird Sax Quartet taldea sortu berri dute. Laurek saxofoia jotzen dute, eta, oraindik hasi ez diren arren, ezkontzetan emanaldiak egiteko asmoarekin sortu dute taldea. Arrasate Musikalen elkar ezagutu zuten txikitik, Mario Fernandinoren babesean. Haiekin egin dugu berba taldearen nondik norakoak ezagutzeko asmoz. Erantzun bateratuak eman dizkigute, azken biak izan ezik.

The Bird Sax Quartet izena ipini diozue taldeari. Zergatik?

Gustuko dugulako eta, batez ere, Charlie Parkerri omenalditxoia egiteko.

Gazteak zarete, baina taldea sortu duzue. Ze asmorekin?

Ezkontzetan jotzeko asmoarekin, elizan eta jatetxean, bazkaldu edo afaldu aurretik. Dena den, beste ekitaldiren batera gonbidatzen bagaituzte, ez dugu hutsik egingo.

Laurok saxofoia jotzen duzue. Kantuak moldatzea errazagoa edo zailagoa da?

Errazagoa, ezagutu egiten dugulako gure soinua. Errazagoa egiten zaigu soinua entzutearekin batera jotzea. Segituan konturatzen gara abestia ondo doan edo soinua besteekiko moldatu behar den. Bestalde, laukoteendako partiturak egin da daude.

Mario Fernandino irakaslearen laguntza ere baduzue.

Bai, txikitatik ezagutzen gaitu,

eta eskerrak eman beharrea gaude.

Ze musika mota egiten duzue?

Ezkontzetan ohikoak diren kantuak joko ditugu. Dena den, orain arte, oso bestelako emanaldiak egin ditugu, eta erreperitorioa moldatu egin dugu.

Hasi zarete kontzertuak egiten?

Oraindik ez. Zailena egin dugu: taldea osatzea. Orain dela hila-bete inguru egin genuen aurkezpena Elgetan, Alai taldearen gonbidapenari esker. Ilusioa daukagu, eta laster hasiko gara enkar-guak hartzen. Gu irrikaz gaude, behintzat.

Nondik datorkizue musikarako zale-tasuna?

Batez ere, familiarengandik. Txikitatik jotzen dugu saxofoia, elkarrekin ikasi eta sakondu

dugun instrumentua da. Urteak pasa ahala zaletasuna aberastu egin da, taldea sortu dugun arte.

Arrasate Musikalen diharduzue. Zer moduz?

Arrasate Musikalek eman zigun musikarekin lehen hartu-eman izateko aukera. Txikitik hasi ginen, eta elkarrekin segitzeko aukera dugu. Hainbat taldetan hartzen dugu parte -Arrasate Musikaleko Banda eta Big Band- eta oso gustura gaude. Azkenean, musikarako loturak sortzen dira, eta hori oso polita da. Irakasleek eta Arrasate Musikaleko kideek familia handia osatzen dugu.

Musikak ematen duenarekin bizi izateko asmorik badaukazue?

Nork bere bidea egin du, eta saxofoia zaletasuna da guretzat. Ez gara profesionalak, gustuko dugulako jotzen dugu saxofoia, eta bide horretatik segitzeko asmoa dugu.

Ze musika eta talde dituzue gustuko?

Iban: Ska eta rocka; besteak beste, Betagarri. Mariñe: Gehienbat, rocka, baina denetarik entzuten dut eta talde gogokoena Extremoduro da. Alaiñe: Musika guztiak atsegin ditut: Ken Zazpi, Gatibu, El Canto del Loco, Coldplay... Ane: Estilo guztiak atsegin ditut. Badira talde edo kantu batzuk pertsona edo momentu jakin batzuk gogora ekartzen dizkidentenak: The Beatles, Queen, Fito, John Mayer...

Baduzue beste zaletasunik?

Alaiñe: Abestea, euskal dantzak eta argazkilaritza. Iban: Bidaia-tzea eta lagunekin parrandan irtetea. Marina: Bidaia-tzea eta boleibolean jokatzeko, baina, ikasketak direla-eta, nahi baino denbora laburragoa daukat. Ane: Gurasoekin bidaiatzea eta hizkuntzak; orain, alemana ikasten hasi naiz.

PERTSONALA

Arrasateko txoko bat: Monterron parkea.

Kontzertua egiteko musikari bat: Duda barik, B.B. King.

Musika talde bat: Fito y Fitipaldis.

Kontzertua egiteko areto bat: Monterrongo aretoa.

Eskerrak emateko pertsona bat: Mario Fernandino, gure saxofoi irakaslea.

Ezkontzetan jotzeko kanturik gustukoena: Gounovaren *Ave Maria*.

Amets bat: Taldeko kideen ametsak eta desioak betetzea.

LARRAITZ ZEBERIO



Rosita eta Jose Luis

Urtarrilaren 10ean Rosita Balanzategi eta Jose Luis Ezkurrak urrezko ezteiak ospatuko dituzte. Zorionak eta urte askotarako, etxeko partetik!



Berna eta Sole

Urtarrilaren 8an 35 urte egin zituzten ezkontuta. Mexikon egin dute ospakizuna. Zorionak, etxeko partetik!



Felix eta Luisa

Felix Biainek eta Luisa Gal-dosek domekan, urtarrilaren 15ean, urrezko ezteiak ospatuko dituzte sendiarekin batera meza eta bazkaria eginda. Zorionak eta muxu handi bat, anai-arreben eta loben partetik.

OROIGARRIA

Clara Gorosabel Etxagibel

Maribel Garro lankidearen ama

Arrasaten hil zen 2012ko urtarrilaren 9an, 95 urte zituela.

Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.



Arizmendi Ikastolako lankideak.
Leintz bailaran, 2012 urtarrilaren 13an.

ESKER ONA

Clara Gorosabel Etxagibel

Felix Garroren alarguna

Arrasaten hil zen 2012ko urtarrilaren 9an, 95 urte zituela.

Lerro hauen bidez Clararen sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu bihotz-bihotzez horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Haren aldeko meza domekan, urtarrilaren 15ean, 11:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian izango da.

Arrasaten, 2012ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA

Kontxi Marco Ortega

Arrasaten hil zen 2011ko abenduaren 28an, 87 urte zituela.

Haren senarra: Tomas Sanchez; seme-alabak: Tomas, Javier eta Ana, Joserra eta Rosa, Nati eta Joaquin; bilobak: Ander, Ane, Ainize, Nerea, Oxel eta Igor; anai-arreba, iloba, lehengusu eta gainerako senideek:

lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Arrasaten, 2012ko urtarrilaren 13an.

OROIGARRIA

Basili Uribeetxebarria Isasi-Isasmendi

Begoña eta M. Asun Garai lankideen ama

Arrasaten hil zen 2012ko urtarrilaren 5ean, 91 urte zituela.

Une zail eta gogor hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin.



Arizmendi Ikastolako lankideak.
Leintz bailaran, 2012 urtarrilaren 13an.

ESKER ONA

Basili Uribeetxebarria Isasi-Isasmendi

Frantzisko Garairen alarguna

Urtarrilaren 5ean hil zen 91 urterekin, Bedoñako Sologaitzto baserrian.

Lerro hauen bidez bere sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu bihotz-bihotzez horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Arrasaten, 2012ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA

Joxe Mari Arando Uribe

Mendiolan hil zen 2011ko abenduaren 23an, 71 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Mendiolan, 2012ko urtarrilaren 13an.

OROIGARRIA

Maite

1962-08-17 / 2010-01-13

Betibizi lorea

Antzuolan, 2012ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA

Jesus Mari Martinez Abarrategi

Arrasaten hil zen 2012ko urtarrilaren 7an, 64 urte zituela.

Lerro hauen bidez Jesus Mariaren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu bihotz-bihotzez horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Arrasaten, 2012ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA

Jose Luis Osinalde Mujika

2011ko abenduaren 23an hil zen, 80 urte zituela.

Lerro hauen bidez Jose Luisen sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu bihotz-bihotzez horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Bergaran, 2012ko urtarrilaren 13an.

OROIGARRIA

Paulo Zumalde Ugarte

Oñatin hil zen 2011ko abenduaren 25ean, 93 urte zituela.

Eskerrik asko aittajuna irakutsi dokozun danatik. Xirulen bai xirulen zure besuetan hegaz itten.

Bilobak: Haritz-Beatriz, Itziar-Eneko, Maider, Txomin-Iratxe, Iosu-Amaia, Iñaki, Irene, Paulo eta Manex. Birlobak: Peru eta Peio.

ESKER ONA

Paulo Zumalde Ugarte

Oñatin hil zen 2011ko abenduaren 25ean, 93 urte zituela.

Lerro hauen bidez Pauloren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu bihotz-bihotzez horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Oñatin, 2012ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA

Martin Madina Bengoa

Aramaion hil zen 2011ko abenduaren 28an, 86 urte zituela.

Lerro hauen bidez Martinen sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu bihotz-bihotzez horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Haren aldeko meza izango dira urtarrilaren 15ean eta 22an, domekak, 12:00etan, Aramaioko San Martin elizan. Bertaratuko zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko.

Aramaion, 2012ko urtarrilaren 13an.



goiena

2012-01-13

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

Kaikuk Oñatitik zoriondu ditu Gabonak

- ▶ Jose Felix Diaz de Tuestak duela bi urte ateratako argazkia Kaikuren iragarki batean erabili dute orain
- ▶ Argazkian Oñatiko Murgialdai auzoko Jauregi baserria ageri da urte hasierako elurteak zurituta

ARRITXU BARRUSO | OÑATI

Egunotan hotza eta izotza izan baditugu, duela bi urte elurtuta zeuden gure ibarreko herriak egun hauetan. Argazkizaleendako elurteak aukera aproposa izaten dira irudi ederrak eta ikusgarriak harrapatzeko. Bada, horixe bera pentsatu zuen 2010eko urtarrilaren 9an Jose Felix Diaz de Tuestak; Oñatin bizi da eta herri inguruan bueltatxo bat ematea erabaki zuen argazki batzuk ateratzeko asmoarekin.

Bilduma polita atera zuen, eta, ohi bezala, egun hartan ateratako argazkiak Internetera, Flickerren daukan kontura, igo zituen. Horraino guztia ondo eta nobedade barik. Jose Felix Diaz de Tuestak, baina, pentsatu ere ez zuen egingo bi urteren buruan egun hartan ateratako argazki-tako bat iragarki batean erabiko zutenik.

Oñati, Kaikuren iragarkian

Aurtengo Gabonak baino apur bat lehenago sorpresa ederra hartu zuen Jose Felixek. "Zarauzko Debolex enpresatik deitu zidaten esanez nire argazki bat asko gustatu zitzaizela, eta Kaiku enpresaren iragarki baterako erabili ahal izateko baimena



Jose Felix Diaz de Tuesta, Kaikuren iragarkian erabili den argazkiarekin. | A.B.



Kaikuren iragarkia, Oñatiko baserria atzean duela. | MOVIMIENTOCONTRALAMALALECHE.COM

eskatu zidaten. Kaikuren webgunean Gabonak zoriontzeko ipini duten bideoan erabili dute argazkia".

Bada, Zarauzko produkzio-etxeari horrenbeste gustatu zitzaion argazkia da Oñatiko Jauregi baserriari ateratakoa. "Seguru nago, jende askok ikusi du Kaikuren iragarkia eta askok jakingo ez dutena da atzean agertzen den baserria egiazkoa dela eta Oñatin dagoela, gainera. Askok pentsatuko dute margolan bat dela, eta beste askok iragarkia egin dutenak bertan izan direla irudiak grabatzen. Imajinatu ere ez dute egingo argazki bat denik". Iragarkia bi argazki-rekin dago eginda: batetik, Jose Felix Diaz de Tuestarena, eta bestetik, esne-marmita baten irudia. www.movimientocontralamalaleche.com webgunean ikus daiteke bideoa.

Oñatiko baserri zaharrena

Jauregi baserria Murgialdai auzoan dago eta Oñatiko zaharretarikoa dela kontatu digu Diaz de Tuestak. Gainera, garai batean Oñatiko leinu indartsu-netako dorretxea izan zen. Gaur egun bi familia bizi dira Jauregi baserrian.

AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



Mugituko ditugu

Handia izan zen larunbatekoa Bilbon. Alde bateko lana ondo ari da garatzen, hiru urtean ez da egon (agerian behintzat) atzerapausorik. Beste aldeari kostatzen ari zaio. Rajoy ez da ausarta, hobe amets handirik ez egitea. Baina leloa ere ez da, komeni zaionean zerbait egingo du.

Eta komeni zaio, Europa ez dago soilik Espainiako defizitari begira. Iritzi publikoa oso muturrera joanda dauka eta estu hartuko dute. Baina leloenak ere badaki ETA desagertzea ezinezkoa dela zientzokako preso espetxean dauden artean; eta zirrikituak ireki beharko direla, berandu baino lehen. "Estatuak jakingo du eskuzabal izaten", entzun izan diegu.

Hori baino lehen, ordea, eskubideak daude. Eta Bilbon eskubideak aldarrikatu ziren. Espainian diote legea bete behar dela. Hemen ere horretan gaudu: espetxe politikaren gainetik berma daitezela legeak presoek aitortzen dizkien eskubideak. Eta horretarako ez da behar presoan urratsik; nahikoa da gizalegea, behin jakinda jardunbide armatua amaitu dela betiko.

Udazkenean EAeko hauteskundeak espero daitezke, giro eskasa politikariei gano-ra eskatzeko. Baina aurten gauzak mugituko dira, mugituko ditugu.



Eraman dotoretasuna zure etxera



Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51